

Egiagarai: «Gobernuak ez dauka Konstituzioa aldatzeko inolako asmorik» /5

Unanue eta Zezeagak kostata irabazi zieten Bergara II eta Arretxeri /21

Egaña, Murua eta Peñagarikanok osatu dute finalerako lehen hirukotea /29

EUSKALDUNON Egunkaria

Larunbata, 1991ko Abenduak 7 / II. urtea / 312. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

DURANGOKO AZOKA

Euskal narratibari buruzko gogoetak

Durangoko Liburu eta Disko Azoka aitzaki, hiru narratzaile bildu ditugu Joxerra Garziak zuzendutako mahainguruan: Ramon Saizarbitoria, Mikel Hz. Abaitua eta Jimu Iturralde. / 24-25

Hamazazpi hildako autopistan

Hogeitalau kotxek txoke egin eta hemezortzi erabat erreta gelditu ziren Erletxe parean

Hamazazpi lagun hil eta beste berrogeitabederatzi zauritu ziren atzo eguerdian Galdakao eta Zornotza artean autopistan, Erletxeko bihurgunearen parean gertatutako istripuan. Behelaino itsu-itsua zegoen errepidean eta istripuaren arrazoia hori izan zitekeen Ertzaintzak adierazi zuenez.

Aidanez, bi kotxek elkarren kontra jo zuten eta Bilbo-Behobia autopistako Donostia alderako bi karrilak hartu zituzten. Atzetik zetorren kotxe andanak ezin izan zuen garaiz gelditu eta pilatuta gelditu ziren. Guztira hogeitalau kotxe ziren istripuan, eta gasolina ontziak lehertu zirenez, suak hartu zituen. Hemezortzi erabat kiskalita gelditu ziren.

Kotxeetan zihoazenetatik asko, burdin artetik atera ezinik erreta hil ziren. Ezbeharra gertatu zen lekuan bertan hil ziren hamasei lagun eta hamazazpigarrena Galdakaoko eritetxera zeramatela. Zaurituta gelditu ziren berrogeitabederatzi lagunetatik hemezortzi ingresatuta zeuden artean atzo gauean. Batzuk egoera oso larrian. Gorpuak eta kotxeak apartatu eta identifikatzen lan handiak izan ziren. / 8-9

Bi kotxek txoke egin eta bidea itxi zuten. Atzetik zetozenek haien kontra jo zuten eta pilatuta gelditu ziren.

ANDER GILLENEA

Autobideko harresiak hondatu egin dira Azpirotz gainean

Irurtzun Andoain autobideko Azpirotzeko plataforma eusteko harresiak hondatzen ari dira. Bi kilometrotan sei hilabetez eraikitako harresi 'ekologikoen' oinarria hausten ari da eta irailaz geroztik lanek ez dute aurrera egin puntu horretan. Suitzatik ekarritako sistemak ez du balio izan Azpirotzen. Teknikoek diotenez, sei metroko altura bitartean segurua da harresi 'ekologikoa', baina Azpirotzen 20 metrotik gora ditu harresiak eta oinarriko kutxak hutsik dauzka. Konpontzeko zer egingo duten ez dakitela esan du Jesus Gonzalez Nafarroako errepide zerbitzuko arduradunak. Hala ere, eta negua gainean izan arren, lanek aurrera segituko dutela agindu du. / 6-7

Milaka lagun bildu zen Bilbon 'Etxean nahi ditugu' eskatzeko

Milaka eta milaka lagun bildu zen atzo Bilbon, 'Etxean nahi ditugu' lemarekin, Senideak elkarteak antolatutako manifestaldian. Manifestariek isilik egin zuten Jesusen Bihotza eta Bilboko Udaletxea bitarteko bidea, bost t'erdiak pasata hasi eta zazpi t'erdiak ondo jota amaitutako ekitaldian.

Senideak elkarteko kide batek hitzegin zuen amaiera ekitaldian eta «gertatzen denaz bost axola izatea» egotzi zion Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariari. «Herritar askok ez zaitugu ordezkari ikusten, zu ez zara gure lehendakaria, eta baldin bazara, frogaezaiguzu» esan zuen Senideakeko ordezkariak. Ardanzak «bake iraunkorra» ez duela nahi esan eta «presondegietan bidegabekeria eta estutasuna gordetzearen alde» dagoela gaineratu zuen.

Goardia Zibilak kontrolak jarri zituen Laudio, Arrigorriaga eta Zornotzan. Azken horretan bi lagun atxilotu zituztela ikusita, hamabost autobus geratu ziren bertan eta behera jaitsi zen jendea. Goizeko istripua gertatutako tokitik 200 metrora zegoen kontrola. / 4

Real Madrid etsai beldurgarria izango du gaur Realak

Realak Santiago Bernabeu zelaian jokatuko du gaur arratsaldeko 8etan, Real Madriden kontra. Agustin Gajate ez da bertan izango, Logroñoko deskalabroan lesionatu eta Donostiara itzuli bait da; Alabak hartuko du haren tokia.

Honakoa izan daiteke txuriurdinen hamaikakoa: Gonzalez, Imanol, Uria, Larrañaga, Gorriz, Alaba, Oceano, Imaz, Kodro, Carlos Xavier eta Luis Perez. Oceanok eta Luis Perezek arazo fisikoak izan arren, biak izan daitezke zelaian. Sailkapenaren erdikaldean baina negatibo batekin, Realak zer itxura eskainiko duen ezin daiteke igarri. Ligako azkenetako emaitza onek Kopan kontrapuntua izan zutelako. / 19

BESTERIK

GIZARTEA

Alderdi politikoek instituzioetan euskara oso gutxi erabiltzen dutela salatu du EHEk / 10

EKONOMIA

Baxurako euskal flotak 50 untzitik gora kenduko ditu aurten / 12

ESTATUAK

250.000 etorkin kanpora ditzakete Espainiatik / 14

NAZIOARTEA

Jugoslaviako Armada Federalak Dubrovnik hiriari berriro egin dio eraso / 16

Herri fatxak

TXILLARDEGI

FAMA denez, europar batzuk, Ahuñemendiko muga pasa orduko, hurrengo korrida Irunen bertan zer ordutan den galdetzen hasten omen dira... Guk irribarre gaizto batez entzun ohi ditugu horrelakoak: «gizajoa! oraindik ez daki Irun Espainia ez dela»... Baina Iparragirrek berak ere ez; Hendaian botatako «hara España» famatuak zalantza-izpirik gabe erakusten duenez.

'Xinplekeriak' esaten dugu ahapeka, eta kitto.

Baina guk geuk ere berdin-berdin jokatzen dugu.

Gure arteko gehiegik, adibidez, 'Vlaams Blok' delakoaren gorakada ikusita, hauxe diote: «Flandretarrak fatxak dira, Flandia herri fatxa da». Eta kitto. 1945ko maiatzean bere hegazkinean Kontxan iritsi zen León Degrelle nazia, ez zen flandretarra, waloniarra baizik. Alta, ez dut sekula entzun waloniarrak herri fatxa direnik. Ernest Mandel trotskista famatua, berriz, IV Internazionaleko buruzagi ezaguna, flandretarra da.

Gaitz berberak jota bide daude kroaziarrak. Tito bera, kroaziarra zen; eta gaur egun serbiar inperialismo zapaltzailearen buruzagia, Milosevic: batera serbiarra eta PC-ko buru izana. Baina gerla aurreko 'ustrachi'ak izan zirela-ta, kroaziar guztiak fatxa. Eta Kroazia Askatua eskatzen duten guztiak ere bai.

Nik argudio horiek seriotan hartuko banitu, espainiarrak herri fatxa direla ondorioztatuko nuke. Francisco Franco, eta lagundu zuten militarrak, ez baitziren flandretarrak, eta ez kroaziarrak ere; espainolak baizik. Are gehiago: herri gutxik aurkez dezake Espainiak bezalako militar fatxa zerrenda horniturik. Zer izan da Espainiako kondaira 'pronunciamiento' ilara luzea baizik? Primo de Rivera, Serrano, Prim, Narvaez, Espartero... 'liberalago' batzu besteak baino, omen; baina denok kasernetatik 'manu militari' agintzen egonak.

Baina espainiarrak oso demokratak dira. Jakina!

Urteburu

PIARRES XARRITTON

EGUNKARIA honen lehen urteburuaren bezperan lotzen natzaio ene aldian bete ohi dutan sail apur honen betatzeari. Aldeko lagunek urteburu horren gaia, luze ta zabal —zuzen den bezala— jorratuko baitukete, nik nere xokotik puntu bakar bat nahi dut altxatu.

Aspaldiko ene arrenkura hauxe izan da alabaina, gure Herri saindu honetan politikak eta politikariek zokoratzen ari zigutela euskara. Eta politikaz edo politikariez mintzo naizelarik, ez naiz ari gure aberriaren arerio edo etsaiez, baina maiz gure politikari abertzale sutsuenez. Ez da gaitza gaurkoa —eta Xalbador zenak bertso ederrak ontu zizkigun horretaz *Enbata* abertzale erdalduna sortu zitzaigun denboretan— ez eta ere eskuineko edo ezkerreko ideiologiaren arazoa, denak erori baitzaizkigu trampa horretan eraginkortasunaren edo 'efikazia'-ren izenean; hor dut eskutan, Baionako 'ezker abertzale' mugimendu berrienaren aldizkari berri-berriaren adibidea, izena euskaraz duena, eta funtsa erdaraz.

Hegoaldean berdin, badut uste, azken hamabost urte honetan bereziki, bainan lehenago ere, *Euzko Deya*-ren egunetan, 'funtsezko' gaiak oro erdaraz emaiten zirela.

EGUNKARIA agertuz geroz, iduritzen zait, gai funtsezkoak, Herriaren arazoak, eztabaida politikoak, egunero euskaraz erabiltzen hasi garela eta honi da bidea, bide bakarra, gure mintzairarentzat. Agian EGUNKARIArekin eta honi esker, euskaldun guziek, zahar eta berriek, alde hortatik eginen dugu bide, 'hainitz urtez'!

HEMEROTEKA

Herald Tribune — International Herald Tribune. Published with The New York Times and The Washington Post

Gilotina negozioa

Datorren urtean 20.000 lanpostu kenduko dituela iragarriko du laster IBMk. Aurten beste 20.000 lanpostu ezabatzearen segida da hori. Konputagailu negozioan jarraitu beharrean, gilotina negozioari ekin dio orain IBMk.

(...)

Gaur egun inork ez du ametitzen langileak kaleratzen dituenik. Konpainia berregituratzen ari direla esan ohi dute. Edozela ere, ez da horren okerra. IBMk 40.000 lagun gal ditzake, baina begira zenbat aparkaleku irabaziko dituen horri esker.

ART BUCHWALD

DEIA

Alternatiba ezkutua baina gailena

Uste dut azkenean «Olaberri proposamena» deituko zaion proposamena, filtratua izan zena —edo kendua, ontzat ematen bada guztiek zati berdina kendu zieteneko bertsioa eta nolabaiteko gaiztakeriarekin, ideiaren sortzaileri eta diputatu nagusiari— Ajuria Eneako bilera ospetsuan, azkenean balioko du bidezko akordioaren oinarri gisa eta guztien nahiak beteko ditu, aurretik iritzia sortzen dituztenak asetzen baditu. Gregorio Ordoñezen esanak aitzakiatzat hartuta esan daiteke, ridikuloa egin dezakegula, ETA pozik ez uztearen itxura egiten ahaleginagatik, eta hori baldintzatzen uzteko beste modu bat da. Ekimen hori EE bezain ahulduta dagoen alderdi bateko gizon batek gauzatzea, ondo ikusi behar dute guztiek, Auñamendik ezik, noski.

JOSE FELIX AZURMENDI







GALLEGO & REY / DIARIO 16

EL MUNDO

Konstituzioaren 13. urtea

Lehenik, sistema politikoa aldatu behar da eta hori premiazko helburu batekin: herritarrek beren eginkizun protagonista berreskuratzen lortzea bizitza politikoan, gaur egun monopolizatua alderdi handien joko erabat itxian. Horrek, lehenik eta batez ere, hauteskunde sistemaren erreforma egitea eskatzen du eta, baita, noski, instituzio aspergarri eta zentzugabe bihurtu den Senatuarena ere.

Erabat beharrezkoa da, gainera, Konstituzioaren erreforma egitea, Estatuaren egituraketari dagokionean. «Autonomien Estatua» deituriko aren eskema gainditu egin du nazionalitate eta erregioen dinamika konplexuak, eta argi geratu da Espainiako Estatuak ezin izango duela bere barne batasuna behin-betirako ezarri, argi eta garbi federala ez den ikuspegi batetik planteatzea erabakitzen ez duen arte.

EDITORIALA

EL DIARIO VASCO

Nazionalismoa eta Konstituzioa

Ez da, bada, ospakizunen garaia. 1978ko erregimen konstituzionaleko bi berrikuntza handi zalantzan jarrita daude hemen Euskal Herrian. Estatuarekiko loturaren arazoari oraindik esperimentala den formula eman zaio: eredu autonomikoa bere zehaztasunik ezari dagozkion tirabirekin doa aurrera, baina beti ere, zuzen bideratuko den itxaropen etengabearekin. Sistema demokratikoaren arauak eta pertsonen oinarrizko eskubide batzuk, ordea, oraindik ere ez ditu onartzen Euskal Herriko gutxiengo sektore batek.

Gizakien memoriari, beti hain ahula, agian ez zaio gogoratuko duela hamabost urte ez zegoela hauteskunderik, Europatik kanpo geundela, alderdiak eta sindikatuak debekatuta zeudela, ez zirela errespetatzen pertsonaren eskubideak eta askatasunak, ez zegoela berezko marko instituzionalik, eta euskara egoera benetan txarrean zegoela. Agian batzuk pentsatuko dute denboraldi horretan ez dela ezer aldatu. Hori pentsatzeko eskubidea dute. Gauza bat bakarrik daukate horren aurka: errealitatea.

R.JIMENEZ ASENSIO

ZUZENDARIARI

Euskararen alde

Ni hamar urteko mutil bat naiz. Nire izena Luis da eta euskararen alde hitz egitera noakizue. Zure lagun batek euskara badaki eta erderaz hitzegiten badizu zuk ez egin kasurik. Zuk euskara baldin badakizu eta kalean erderaz hitzegiten baduzu, euskarak ez du balio ezertxo ere. Nik ere aitortzen dut batzutan erderaz egiten dudala, baina bakarrik euskaraz ez dakitenekin. Mutil batek euskaraz ez badaki, zuk euskaraz hitzegin behar diozu berak euskara ikas dezan. Arratian gehienek euskaraz dakite, baina erderaz hitzegiten dute. Ni nire amari euskaraz irakasten ari naiz. Usansolon gehienek erderaz hitzegiten dute. Orain dela urte asko euskaraz hitzegitea debekatuta zegoen Euskalerri osoan, baina jendea euskaraz mintzatzen zen. Orain, ordea, Euskara ikastetxeetan irakasten da eta jendeak erderaz berba egiten du. Erdaldunek euskara ikasi behar dute. Erderaz hitzegiten badugu ez da egongo Nafarroa Oinez bezalako festarik. Gustatuko litzaidake denok euskara ikastea, eta gero euskaraz hitzegitea. Nik, beti nire aitarekin, amarekin, amonarekin eta osabekin euskararik ez dakitenez, erderaz hitzegiten dut.

Baina kalean, lantegietan eta toki guztietan Euskaraz egingo balitz nire sendiak ikasiko luke.

LUIS RODRIGUEZ GOMEZ
Usansolo
Bizkaia

Proposamen zirriborroak

HBk hasi berria duelarik bere Urrats Berri hausnarketaldia eta bizi dugun inpasse antzu hau dela kausa, interesgarritzat jotzen ditudan zenbait punturen zirriborroak plazaratzeari beharrezko deritzot, konplexu eta aurriritzirik gabeko eztabaidarako aberasgarriak izango direlakoan, eta abertzale zein ezkertiar nola demokratei soilik zuzendua:

— *Autodeterminazioa*ren aldeko plataforma baterakoi eta demokratikoak Euskal Herriko geografia osoan, maila nazional, probintzial zein lokaletan sortzea.

— Horrelako mugimendu batek jendearen parte hartzea bilatuko luke, masa borruka bihurtuz praxi politikoaren ardatz, Euskal Herrian hain ezagunak diren mugimendu sozialen antzera, baina alderdi politikoen ekarpenak gehituz.

— Inoiz maila testimonialean geratu gabe eta beste borruka mota radikalagoak inolaz ere baztertu gabe, eguneroko borruka zibikoa izango luke ihardunbidetzat kontraesanak areagotu eta ilusioak piztearen ikuspuntutik begiratuta.

— Autodeterminazioa abertzaleon eskubidea izateaz gain, edozein demokratak ere onar dezakeen eskabidea dela erakustaraztea, hau da, edozein gatazka mota konpontzeko gakoa askatasunen zabaltzean eta ez murriztean jarri behar delakoaren filosofia sustatu. Honek berekin ekarriko luke preso, deportatu eta errefuxiatuen arazo latzaren konponketa automatikoa.

— Plataforma hau ahalik eta lasterren *autodeterminazioa* lortzearren, hartara bilduko liratekeen alderdi politiko eta beste edozein motako erakunde zein pertsonez egongo litzateke osatua, nork bere autonomia mantenduz baina denok *autodeterminazio*aren aldeko mugimendu eta bilgune eraginkor hau indartzeko asmo tinkoak bultzatua, honen kontrako edozein maniobra uxatuz.

— Mugimendu sozialetik zein alderdi politikotik kutsu eta osagarririk izan dezakeen erakunde honek hauteskundeetara aurkezteko posibilitatea aztertuko luke, protagonismo kolektiboa nagusituz politiko profesional zein 'gure' botere faktikoen interesen gainetik (alderdien aparatoak, ETA, Jaurlaritza, Estatutua, Konstituzioa..).

— Plataforma honen funtsezko oinarrietako bat Estatuari Autodeterminazioa onartu arte amore ez ematearren erabaki tinkoa eta aldaezina ikustaraztea izango litzateke.

A.L.
Beasain
Gipuzkoa

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

EUSKALDUNON Egunkaria
Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherа / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Alli eta Ardantza Lehendakarien arteko harremanak

ABERTZALE den inorentzat Hegoaldeko Euskal herri hontan dagoen zatiketa instituzionala onartezina da.

Aipatutako hortan gaudenok badakizkigu eta ezin ditugu ukatu, eta gutxiago ahaztu edo aintzat ez hartu, Hego Euskal Herriak erakundatze orokorren bat izan dezan, dauden arrazoinak, zailtasunak, oztopoak eta baita ere erabiltzen diren aitzakiak.

Nafarroan indar politikoek dituzten jarrerak eta jokabideak dira lehenengo arrazoin eta aitzakia; biak batera. Arrazoina, Nafarroako jendearen nahiak eta gogoak kontuan hartu gabe ezin daitekeelako sor eta taxu eman erakundeen egoera berri bati; eta ez da bakarrik gehiengo edo gutxiengoaren gora behera, ez. Gaur egun UPN delakoaren barruan aurkitzen diren milaka hain ezberdin guzti horien aurka, horien kontra zer edo zer eraikitzen saiatzea, Herri Batasunako jendetza ezberdina alde batera utzita sortu zuten erreforma hainako astakeria litzateke. Arrazoina, baina baita ere aitzakia. Beste Euskal Herriko toki batzuetan ez delako indar korrelazioaren neurririk erabili, eta Nafarroan bertan, Euskal Elkarte Autonomoan bezala, jendearen borondatea ez delako aintzat hartu hainbeste eta hainbeste aldiz, esate baterako OTA-Neri dagokionez.

Guzti horiek horrela direlarik ere, Alli eta Ardantzaren arteko harremanak eta elkartzeak esanahirik badu, baina bere neurri batetaraino onartu beharra dago.

Hasteko zera aipatu behar, ez dutela harreman hortarako erakunde iraunkorrik eta eztaere harremanetarako tresna eta bitartekorik sortu. Horrela harreman horiek une unekoak bihurtzen dira; Nafarroako Diputazioan edo Ajurianean nor dagoen eta beren alderdiak nola dabiltzen zerikusia eta eragina duten harremanak.

Gainera bai PNV eta baita UPN ere keinu eta itxurazko lorpen batzuen premia gorrian aurkitzen dira. Jeltzaleak PSOEk murgildu eta zapaldu ditu demarik garrantzitsuenetan; ezin izan dute beren hitza eutsi Lurraldearekin egindako akordioan, nahiz eta erabaki hori Gipuzkoako Aldundiaren eskuetan egon eta erakunde hortan PNVk gehiengoa eduki. Eta hitza eusteko gai izan ez zirenak besteei leporatu nahi horrelako jokabidea. Hirukoitza apurtu ondoren Bilboko Kaiaren obrei hastapena emateko bideak ireki dituztela dirudi, baina Labe Garaiak mantentzeko ez dira kapazitaturik azaltzen... eta apur horien truke, Korkueraren legeak eta aurrean jartzen dizkieten apo guztiak irensten ari dira. PNVri eta UPNri bada oso ederki etorri zaie beren itxuraketa politikorako bilera hori.

Baina hartu ote dute erabakirik? Ezetz dirudi. Autobiari buruzko elkarrizketa prentsaurrerako gaia da; industriaren galpen edo beherakadari dagokionez ezer berririk ez da azaldu; beste ekonomia edo kultur alorretan ez dago emaitzik.

> ARDANZA ETA ALLI EUSKAL LURRETAN DAUDEN BI LEHENDAKARIAK BILTZEA NOLA IZANEN DA BADA ASKI LEHENDAKARIA BAT BESTERIK EZ LUKEENEAN IZAN BEHAR.

Guzti horren aurrean halere ondorioren bat edo beste ere atera liteke. Alde batetik helburu bezala, normalizazio itxura eman nahi izan dutela, biei hori komeni zaielako; PNVri aitzaki bezala erabiltzeko; UPNko Alli jaunaren zatiari berriz egoera erabat ezarririk eta tinko eta sendo oinarriturik dagoela adierazteko.

Azpimarratu egin behar ordea baita ere Alli jaunaren ausardia, hain zuzen ere Euskaltzaindiko edo Ajurianeako bilerak eginez gero, guztiz gainditua utzi duelako zortzi urtez Urralburu jaunak egindakoa. Ez bakarrik orain arte egindakoa, baizik baita ere EA, IU eta PSOEren egitarau edo programan zegoena baino askoz ere gehiago, alde hortatik bada Nafarroan eta beste ingururen batean farragarri gelditzen ari denik. Nafarroan politika birak ematen hasi da, baina ez ditu oraindik azkeneko eta ezta azken aurreko itzuliak ere egin.

Herri Batasunak erronka bati erantzun behar izan zion UPNko gobernua osatu zenean Nafarroan. Erronka horrek alde asko zeukan eta horietatik bat, garrantzirik txikiena ez duena hain zuzen ere zera da, nafarzaletasuna sumatzen eta zaintzen edo defendatzen dutenen artean euskararekiko eta euskaldungoarekiko gorrotoa edo aurkakotasuna kentzea. Beste alde batetik gainera herri honek dituen arazo guztiz sakonen aurrean, ez dute bapateko edo txantxetako aterapide eta jokuek balio.

Esaten dute, esan, EAEko hirukoitza Mariangelesek (: Sestaoko Labe Garai berriena) hautsi zuela eta Ajurianeako hitzarmena Herri Batasunaz edo ETAz arduratzeko baino gehiago dela gobernutik kaleratuak nolabait loturik edo murgildurik mantentzeko. Esaten dute, esan baita ere, Europako Elkarte Ekonomikoan egin den sarrera mota axolagabe eta nolanahikoa PSOEren aurka bihurtzen ari dela; ez dira bakarrik arrantzale eta nekazariak, baizik baita ere industriarik gehiena kolokan jartzen ari dena gure inguruan eta ez dira errazak datozkigun garaiak. Datorren urrian berriro ere eskuinak hartu nahi ditu Estaduko giltzak eta horrek ere mugimendu bereziak eragiten ditu batez ere eskuineko alderdien inguruetan.

Hasieratik bukatu behar; Alli jaunaren keinua ez bada ere itsusia, abertzaleontzat ez dela nahikoa ezin ahaztu. Eta gutxiago orain arteko jokabideak hain gogorki salatu digunon aurrean. Izan ere bai Ardantza eta baita Alli ere Euskal lurretan dauden bi lehendakariak biltzea nola izanen da bada aski, lehendakaria bat besterik ez lukeenean izan behar?

PATXI ZABALETA
EUSKALTZAINA ETA HB-KO PARLAMENTARIA

Hiesak hamar urte Euskadin

DUELA hamar urte Giza Inmunoeskasiaren Birusak (GIB), Hiesaren Birusa izenez ezagunagoak, lehen biktimak sortu zituen EEBBetan. Baina, denbora gutxi geroago, Euskadira iritsi zen. Ez dugu inoiz nola gertatu zenik jakingo, ez eta infektatu zen lehen pertsona nor izan zenik. Baliteke, heroina erosteko Amsterdanera joandako heroinomanoren batek ekartzea birusa, han xiringak elkarbanatuz kutsatu ondoren.

Hiesaren Birusa 1982 eta 1985 bitartean hedatu zen toxikomanoen artean. Honela, 1985ean eroaleak zeintzu ziren jakin ahal izateko erreaktiboak izan genituenean, benabarnetiko adiktoen %60 ordurako infektaturik zegoela egiaztatu genuen.

1984ean hasi ziren lehen Hiesdun gaisoak azaltzen. Hiesa diagnostikatu zioten lehen pazientea geroxeago hil zen emakume heroinomano bizkaitarra izan zen. Ordutik hona 1.100dik gora pertsona izan dira Euskadin gaisotasun hau diagnostikatu zaienak.

Hiesa batez ere drogaren menpe zegoen jendeak harrapatzen zuela eta, mundu osoan bezalaxe, Euskadin infekzio hau 'beste batzuengan' eragiten zuen zerbait kontsideratu zen, kolektibo marginaletan gertatzen zen zerbait, ez gizarte osoan.

1991ko Azaroan gertatu da ziurrenik GIBa ezagutuz geroztik Hiesaren historian izandako gertaerarik garrantzitsuena: Magic Johnsonek Hiesaren Birusaren eroale dela ematen du aditzera. Bi faktoreri dagokie gertakari honek duen garrantzia.

Lehenik, GIBak era guztietako pertsonengan eragin dezakeela jakinaren gainean gauden arren subkonszientean Hiesa 'beste batzurengan' eragiten duen zerbait dela pentsatzen dugulako oraindik ere. Magic Johnsonen kasuak, —harreman heterosexualen bidez kutsatutako pertsona 'normalarenak'— biziki lagunduko du biztanlego guztiaren artean harreman heterosexualek duten arriskuari buruzko kontzientziazio maila haundiagoa lortzen.

Bigarren, kasu honek —saskibaloi jokalari eta gazteen idolo izaki— gazte jendearen artean izan dezakeen influentzia, egin litezken informazio eta heziketa kanpaina guztiena baino askoz ere haundiagoa izango delako.

Azkenik, azpimarratzekoa da Los Angeles Lakerseko jokalariaren jarrera baikorra, kutsatuta dagoela eta gaisotasunari aurre egingo diola jendaurrean azalduz. Honek, gaur egun gertatzen den marginazioa gutxitzen asko lagunduko bait du.

Hiesaren Mundu Egunak agerian jarri duen beste aspektu aipagarrietako bat izan da, GIBaren hedapen heterosexualak emakumezkoen artean erakutsi duen egoera larria. Estatistiken arabera, 1988an, Hiesa diagnostikatu zitzaien emakume guztien %6 harreman heterosexualen bidez kutsatu zen. 1989an portzentaia hau % 15eraino igo zen eta 1990ean %22raino. Hau da, 1990ean, Hiesa diagnostikatu zitzaien emakumeen artean 4tik 1ek hartu zuen infekzioa harreman heterosexualen bidez. Emakumeen artean Hiesaren gehikuntzak egoera dramatikoetara joko du hemendik 2000 urtera bitartean.

Hamarkada honetan gure gizarteak izango duen arazorik larrienetakoa izango da Giza Inmunoeskasiaren Birusaren trasmisio heterosexualari aurre egitea. Hiesak arazo marginala izateari utzi dio eta guztiongan eragiten du.

DANIEL ZULAIKA
HIESAREN PREBENTZIORAKO PLANGINTZAKO KOORDINATZAILEA EAE-N

BERRIAK ZIRI

ANATOLE SOBTXAK
San Petersburgoko alkatea
EL SOL

«Uste dut ez genuela jakin kolpeak ireki zizkigun eta bakarrak ziren posibilitateetaz baliatzen, baina indar demokratikoak prestatu gabe zeuden»



INAKI ANASAGASTI
EAJko bozeramalea
DIARIO 16

«EAJn ez dugu nahi Konstituzioaren erreformarik»

G.GODO I BLASCO
Preso politiko katalana
EGIN

«Independentismo katalanaren krisi sakona bakar bakarrik bere akatseen ondorio da»

MIKEL LASA
Real Madrideko futbolaria
DEIA

«Izugarri gustatuko litzaidake Realaren aurka jokatzea eta, jokatuko banu, hil arte defendatuko nituzke nire koloreak»

ZAKILIXUT

© Olariagak

Milaka lagun batu zituen Bilbon Senideak-ek deitu manifestazioak

Ardanzari «oinarrizko eskubideak zanpatzea» onartzea leporatu zioten

Milaka pertsonek zeharkatu zituzten atzo Bilboko kaleak, 'Etxean nahi ditugu' lemarekin Senideak elkarteak antolatutako manifestazioan. Ekitaldiaren amaieran elkarteko ordezkari batek «gertatzen denaz bost ajola izatea» egotzi zion Ardanza EAEko lehendakariari, eta presoen eskubideen alde borrokatzeko asmoa berretsi zuen.

Z. ZAMAKOLA / **BILBO**

Antolatzaileek agindu bezala, manifestazio osoa isilik igaro zen, eta 'Etxean nahi ditugu' eta 'Etxera' lemez kanpo, ez zen beste edukinik zeukan pankartarik egon.

Manifestaldia bost t'erdiak pasatuxe hasi zen Bilboko Bihotz Sakratuaren plazan eta 7.30ak ondo pasatuxe heldu zen Bizkaiko hiriburuko udaletxera. Ordu erdi beranduago, azkenak oraindik iristeke zeuden.

Manifestazioaren buruan 'Etxean nahi ditugu' lema jasotzen zuen pankarta handia zegoen, Ipar eta Hego Euskal Herriko herrialde guztietako preso, deportatu eta errefuxiatu politikoen senitartekoen eskuetan.

Pankarta horren ostean, Senideak elkarteko partaideak eta gehienbat senitartekoak biltzen zituen multzoa zegoen. Eskuetan, euren ikur bihurtu den kriseilu piztuak zeramatzaten.

Ondoren, 'Etxera' zioen beste pankarta bat zegoen, milaka eta milaka lagun biltzen zituen manifestazioaren multzo nagusiaren lekua emanez.

Ibilbide osoan, lekuan leku ipinitako megafoniaz musika entzun ahal zen etengabean eta manifestazioak iraun zuen bitartean.

Udaletxera heldu eta Senideakeko ordezkariak berba egin ondoren, abesbatza batek zenbait abesti kantatu zituen.

HITZ GOGORRAK ARDANZARENTZAT

Manifestazioa amaitzeko egindako hitzaldian, manifestariei beraiei euskal preso politikoen eta gizarte osoaren izenean eskerrak eman ondoren, Senideak elkarteko ordezkariak ziurtatu zuen «borrokan» segituko dutela, «behin betikoz preso politikoei eta gainontzeko espetxeratuei pertsonak diren neurrian dagozkien eskubideak errespeta diezazkieten».

Senideakeko ordezkariak hitz gogorrak izan zituen Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariarentzat, beraren esanetan «konfliktoa saihestu eta gertatzen denak bost ajola» zaiolako. Gainera, presoei eta senideei buruz aritzean, «beti txarrerako» dela egotzi zioten.

Ardanzak «bake iraunkorra» ez duela nahi eritzi zion presoen senitartekoen elkarteko ordezkariak, eta aitzitik, «presondegietan bidegabekeria eta estutasuna gordetzearen alde» dagoela gaineratu zuen. «Horrexegatik —baietsi zuen— hiritar askok ez zaitugu ordezkari ikusten, zu ez zara gure lehendakaria, eta baldin bazara, frogatu iezaiguzu».

«Gu hona aldarrikatzera etortzeko behartu gaituzten arrazoiekin ados gaudela esaten digu; egoera guzti honekin ados dagoela esaten digu; sakabanaketa neurri politikoa dela dio, eta, errentabilitate politikoaren alde edozer gauza egin behar dela dio, pertsonaren oinarrizko eskubideak zanpatzeraino, indarrean dagoen lege penitentziarioari jaramonik ez egiteraino, behar deneraino», egotzi zion hizlariak Jose Antonio Ardanzari.

Gaur egungo «gorrotoak» bakea ez dakarrela eritzita, «holako egoera jasangaitza, beldurrezko, ziurgabetasunezko, babesik gabeko eta injustiziaz jositakoaren aurrean nekatuta, nazkatuta» daudela adierazi zuen.

Senideak elkarteak beren familiakoen izenean eskertu zuen izandako «partaidetza handia». SIMAL

✓ Goardia Zibilak manifestaziorantz zihoazen autobusak geldiarazi zituen, sekulako karabana eraginez Bilbo-Behobia autopistan.

HIRU ATXILOTU KONTROLEAN

Bestalde, zenbait iturrien arabera, Goardia Zibilak bi lagun atxilotu zituen Zornotzan jarri zuen kontrolean. Kontrola goizean istripua egon zen lekutik 200 metro eskasetara zegoen ipinita, kiskalitako autoak zeuden beste aldean, eta bederatzi Nissan eta tanketa batek osatzen zuten.

Goardia Zibilak manifestaziorantz zihoazen autobusak geldiarazi zituen, eta horietako batean zeuden Abdon Macias Macias eta Javier Iguaran Arandia atxilotu zituen.

Presoen aldeko beste kanpaina batek lagunduko du gose greba

A.S / **BAIONA**

Gaur gauerdian, Espainia, Frantzia eta Euskal Herriko espetxeetan giltzaperatuak dauden 550 euskal preso politikoek astebeteko gose grebari hasiera emango diote. Lehen aldikotz denek batera egingo den ekintza honen sustatzeko, ekitaldi andana baten aurkezpena egiten zuten Gureak eta Ahaideak, senitarteen elkarteek, errefuxiatuen eta iparraldeko militanteen sustengu taldeek eta AJIRek atzo Baionan egindako prentsaurreko batean.

Horrela, gaur berean, arratseko zortzietan, elgarretaratze baten deia egina da Baiona txikiko Pontrique plazara. Bertan, presoen egoeraz azalpenak emanen dituen ekitaldi politiko baten ondoren, enkartelada bat egingo da hiriko karriken gaindi. Datorren asteartean, giza eskubideen nazioarteko eguna izango dela eta, Rene Cassinen etxe inguruan ibilaldi bat egingo da, baiones hau giza eskubideen agiri unibertsalaren asmatzailea izan bait zen. Ostegunean, aldiz, Baionako unibertsitate eta ikasteetxetan presoei buruzko argibideak zabalduak izango dira, ikasle abertzaleen eskutik. Presoen gose grebaren azken egunean, abenduaren 14ean, Baionan egingo den manifestaldi batekin bururatuko da sentsibilizazio kanpaina hau.

Atzoko prentsaurrekoaren egileek oroitarazi zutenez, astebeko gose greba bateratu honek, hamaika aste hauetan espainiar Estatuko gartzeletan espetxeratuak diren militante politikoek daramaten aldizkako gose grebari jarraipena eginen dio. Senideen ordezkariek eta presoen sustengu elkarteek aditzera eman zutenez, «presoek, gurekin borrokatzen dira gaur, euskal populua bere gaintasunean onartua izateko gisako politika ibilbide bat zutik ezarria izan dadin. Ibilbide honen barne, amnistia osoa berez doa».

Presoen helburuekin bat datozela esan dute Arrutia eta Etxabek

DONOSTIA

Isidro Etxabe eta Juan Antonio Urrutia presoek eskuidazki bat eman zioten Iñaki Esnaola beren abokatuari osteguneko bisitan eta Egin egunkariak argitaratu zuen atzo. Idatzi horretan joan den astelehenean zenbait komunikabideetara filtratutako grabazioak egiazkoak direla esaten da, baina beraiek eta senideek ez zekitela elkarrizketa horiek grabatu egin zituztenik, «guztiz pribatuak» zirelako.

Gose greban daudela beste euskal preso politiko guztiekin batera diote Etxabe eta Urrutiak, eta «dituzten helburuekin erabat ados». Bestalde, datozen egunotan euskal presoek idatzi bat kaleratuko dutela eman dute jakitera. Esnaola abokatuari eman zioten euskarazko idatzi horretan atzo 'Senideak' elkarteak antolatuta Bilbon egin zen manifestazioan parte hartzeko deialdia ere egiten zen.

Bi ordu baino gehiagoz izan zen Iñaki Esnaola ostegunean Etxabe eta Urrutia presoekin bilduta. Elkarrizketa horiek argitara eman zirenetik bi preso hauek bisitatu dituen lehenengo pertsona izan da.

Bestalde, Antoni Asuncion, Gartzeletako zuzendari nagusiak orain aste batzuk Langraitzeko gartzelan zortzi presoekin egon zela azaldu zuen, horien artean Etxabe eta Urrutia. Hirugarren gradua onartzearen truke beren aldeko neurriak egongo zirela esan zieten, beti ere Esnaolari esandakoaren arabera, baina ukatu egin zuten. Gradu aldaketa eskaintzen bazitzaien onartuko zutela esan zuten, baina horretarako inolako eskakizunik ez zutela egingo.

IBILALDIAK HEGOALDEKO GARTZELETARA

'Presoak Euskadira' lemaz lau ibilaldi egingo dira gaur Hego Euskal Herriko lau gartzeletara. Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatutako ibilaldi hauek euskal preso politikoen alde egiten ari den kanpainaren barruan sartzen dira.

Gaur goizean abiatuko dira ibilaldi hauek Hegoaldeko hiriburuetatik Martuteneko gartzelara, Langraitzera eta Basaurira joateko. Bilbon Arenaletik abiatuko da goizeko hamaiketan, Donostian ordu berean abiatuko da Bulebarretik, Gasteizen hamar t'erdietan autobus geltokitik. Iruñeko gartzelerako ibilaldia datorren larunbatean egingo da.

Bestalde, Gasteiz, Donostia eta Bilbon gose greba hasi duten hogeitamaika pertsonek manifestazio hauetan parte hartzeko deia egin dute, eta presoei elkartasuna agertzeko beste edozein ekintzetan. Itxirik segitzen dute oraindik hiru hiriburu hauetan gose greban hasi ziren pertsonak.

Iñaki Esnaola, Langraitzeko gartzelako sarreran herenengun. OLALDE

Gobernuak Konstituzioa ez duela aldatuko berretsi du Egiagaraik

«Are gutxiago autodeterminazio eskubidea onartzeko bada», zehaztu du

Juan Manuel Egiagarai, Administrazio Publikoetarako ministroak Espainiako Gobernuak Konstituzioa aldatzeko asmorik ez duela baieztatu zuen atzo Vasco Pressi eskainitako elkarrizketan. «Are gutxiago autodeterminazio eskubidea onartzeko bada», gehitu zuen.

MADRIL

Konstituzioa, paktu autonomikoa, Urrutia eta Etxabe presoei egindako grabazioak, negoziazioa, Ajuria Eneako Hitzarmena eta beste zenbait gai jorratzen dituen elkarrizketan Juan Manuel Egiagaraik autodeterminazio eskubidearen onarpena errefusatu du, gaia zuzenean erantzuteari ihes egin badio ere.

Vasco Press agentziako Cayetano Gonzalez kazetariak Ajuria Eneako Hitzarmenaren azken dokumentuan aipatzen den «Euskal Herria eta Estatu espainolaren arteko gatazkaz» galdetzen dioenean, Egiagarairen erantzuna iheskorra da. «Agiria orokorrean ikusi behar da, parrafo edo esakune baten azterketa egiteak interpretazio aldekoia egiteko baizik ez bait du balio», erantzun du espainiar ministroak.

Segidan, honako plantemendua egiten dio kazetariak: alderdi nazionalistek diote gatazka horren konponketak autodeterminazio eskubidearen onarpen eta erabilpena eskatzen dituela... Egiagaraik honela erantzun du: «Nazionalista eta ez nazionalisten artean diferentziak daudela ahaztea, eguna eta gaua ez bereiztea bezalakoa da». Erantzun honen aurrean, hurrengo galdera ildo beretik doa: Honekin esan nahi duzu Gobernu zentralak autodeterminazio eskubidea onartzeko esparru juridikoa aldatzeko asmorik ez duela? «Ez, ez dugu Konstituzioa aldatzeko asmorik, are gutxiago galderaren zentzuan», ihardetsi du Egiagaraik.



Egiagarai Espainiako Administrazio Publikoetarako ministroa da. EFE

> «Ezin da politikoki negoziatu terroristekin, baina Gobernu baten eginkizuna da terrorismoa desagertzeko lagun dezakeen guztia bultzatzea».

«Konstituzioak euskal herritarrek beren historian izan duten autogobernurik zabalena izateko bidea jarri du», gehitu du ministroak.

NEGOZIAZIO POLITIKORIK EZ ETAREKIN

Azken egunotan, argitara emandako Etxabe eta Urrutia presoen solasei buruz, «aurretik jakinak ziren gauzak erabat baieztatu dituzte, baina gero eta lotsa gutxiagoz adierazten dira», azpimarratu du Egiagaraik. «Hemen mugimendu bat badagoela, eta hori ona da, gizartearen eraginatik kanpo dagoen talde bat ez dela adierazten bait du», erantsi du. Ez du uste, ETAko zuzendaritzak «kasu egingo» dienik Urrutia eta Etxabe presoen «deiei».

Filtrazio hauekin, batzuren ustez, Espainiako Gobernua negoziaziorako prestatzen ari daitekeela gogoratu zaionean, Juan Manuel Egiagaraik «espekulazioak» direla esanez erantzun du. ETA eta Espainiako Gobernuaren artean Aljerren osatu zen Elkarrizketa Politikoetarako Mahaian parte hartu zuela inoiz gezurtatu ez duen PSOEko buruzagiak honela dio: «ETAn zerbait gertatzen den bakoitzean edo ETAri buruz hitzegiten den bakoitzean ebietazina da espekulazioak sortzea, batez ere batzuek horrela propaganda egitea behar dutelako eta beste batzuek inozoki hori agerian jartzen laguntzen dutelako. Bizitzan hainbeste aldiz errepikatzea suertatu zaidana esango dut berriz: ezin da politikoki negoziatu terroristekin, baina Gobernu baten beharrezko eginkizuna da terrorismoa desagertzeko lagun dezakeen guztia bultzatzea».

Arzalluz: «Madril oker dago hemen ez dela ezer gertatzen uste badu»

BILBO

Xabier Arzalluz EAJko buruak Madrileko Gobernuari Estatutua irakurtzean «kontuz» ibiltzeko esan zion, Europan izan diren aldaketen ondoren ere «argudio barik» zentralismoarekin segitzen dutela egotzi ondoren.

«Hemen ezer gertatzen ez dela uste badute —ziurtatu zuen Arzalluzek—, euskaldunak betirako diskutitzen egongo garela; gure Estatutua eurek interpretatuta, guk goitik lortu duguna behetik kentzen digutela ikusten geratuko garela uste badute, oker daude. Hortik badoaz, begiratzeko zer egiten duten, ez dugulako nahi egunen batean Touseko presak leher egitea politika arloan».

EAJko lehendakariak Sabino Arana Fundazioak antolatutako 'Euskadi, bidegurutzea' hitzaldi sortako azken hitzaldian egin zituen adierazpenok, ostegun arratsaldean Bilbon.

Arzalluzek azpimarratu zuen Europan «historian paregabeko» aldaketak gertatzen ari direla, eta orain arte ezarritako tabuak gainbeheran datozela gaineratu zuen.

«DENA ALDATU DA»

Hitzarmenaren batasunaz ezin digute hitzegin guk nahi ez badugu. Dena aldatu da» esan zuen buruzagi jeltzaleak. «Kroaziara kasko urdin espainiarrak bidaltzeko prest daudenek, ez dut ikusten zein desberdintasun argudia dezaketen arazo hori Katalunia edo Euskadiren kasuetatik bereizteko», argudiatu zuen.

Xabier Arzalluzek Felipe Gonzalezek kontraesana izan duela eritzi zion, Alemania birbatzea onartu arren, eskubide berori euskaldun eta kataluniarrei ukatzen dielako.

Izan ere, Arzalluzen ustez «norberaren askatasunaren hurrengo pausua kolektibo bateratuen askatasuna da, berezko nortasuna izan eta beren etorkizuna antolatu nahi duten kolektiboena».

Xabier Arzalluz.

Nazionalismoei nazioarteko desoreka sortzea leporatzen dieten adierazpenek ere kritikatu zituen Xabier Arzalluzek. «Historiak garbi uzten du handiak izan direla beti gerra egin dutenak» adierazi zuen. Nazionalismoei fanatismoa leporatu izanaz, «arrisku horretan ideologia guztiak eror daitezke» esan zuen Arzalluzek.

«Aitzitik, nazionalismoa askatasuna da» gaineratu zuen Arzalluzek. «Nik ez nuke nahi esaterako —segitu zuen— Nafarroak bere borondatearen kontra egotea gurekin; lotsa emango lidake. Baina horrek beste guztiarentzat ere balio du. Tabu guztiak hautsi dira, eta amerikar batek zioen bezala, abuztuaren 21etik aurrera dena da posible Europan».

Autobideko segurtasun kontratua aldatu egin nahi du Diputazioak

DONOSTIA

Irurtzun-Andoain autobideko lanetarako kontratatu zen Guadiamar segurtasun enpresako zuzendaritzarekin bilduko da datorren astean Gipuzkoako Diputazioa. Egungo kontratua berriro negoziatu eta egoera berri batera egokitu nahi du Diputazioak.

Guadiamar enpresak ehun milioi pezeta inguru (bost milioi libera inguru) jasotzen du hilean bere lanagatik. Berrogehi lagun inguru dago orain zerbitzu hori betetzen eta lanak aurrera egin ahala jende gehiago egongo da. Autobide guztia egiterako segurtasunean 10.000 milioi pezeta (500 milioi libera) gastatuko dela uste da.

Segurtasunerako kontratu hau lanak iraun bitartean egongo da indarrean puntu batean jasotzen denez, baina egoera normala izan balitz segurtasun hori ez litzateke beharrezkoa izango. Enpresariek orain hilabete inguru neurri horiek erretira zitzaten eskatu zioten Gipuzkoako Diputazioari, beraiek bazituztelako lanean zeuden bitartean zainketa neurri bereziak.

Hori dela eta, Diputazioko ordezkariek kontratuaren edukia aldatu nahi dute eta horretarako zenbait txosten landu dute dagoeneko zerbitzu juridikoetako arduradunek.

Lanak hasiak dauden ingurunetan hogeitamar makina inguru dago dagoeneko eta laurogei pertsona inguru.

Nafarroako Gobernuak bere aldetik, Segurisa enpresak nafar zatiko zainketa lanetarako zuen kontratua eten egin du. 1989ko irailean egin zuen kontratu berezi hau eta 4.000 milioi pezetako (200 milioi libera inguru) irabazia eman dio aipatutako enpresari. Gastuak uste baino askoz ere handiagoak izatea izan da Gobernuko Herrilanetarako Kontseilaritzak kontratua indargabetzeko arrazoietako bat.

EAJk Konstituzioari baiezkoa ez ematea gaitzetsi du PSEk

DONOSTIA

Jesus Egiguren PSE-PSOEko Gipuzkoako idazkari nagusiak ETAren mundua monolitikoa den ideiaren gainbeherakada alderdi demokratikoen batasunak eragin duela esan zuen. Gipuzkoako buruzagi sozialistak Elgoibarren egin zituen atzo adierazpen horiek, Casa del Pueblo, inaugauratzeko ekitaldian.

Egigurenek azken aste honetan ETAren gainean sortutako notiziak izan zuen mintzagai, eta azaldutako «dizidentziak» direla eta itxaropentsu zegoela baietsi zuen. Herri Batasunaz ere mintzatu zen Egiguren. Esan zuenez, HBn «aukera desberdinak daude», baina orain arte ETA laguntzea diotenen ahotsak baino ez duela entzun esan zuen jarraian. HBn indarkeriarekin amaitzearen alde daudenei «agertzea eta idaztea» eskatu zien.

Konstituzioari buruz -atzo Konstituzio eguna izan zen- askatasunak bermatzen dituela eta Lurralde Autonomoen autogobernuen berma ere bazela adierazi zuen. Konstituzioari esker EAEk inoiz ezagutu ez duen autogernua duela ziurtatu zuen eta Kultura, Hezkuntzan edo Ekonomian EAEk konpetentzi guztiak dituela azpimarratu zuen.

Alderdi Nazionalisten Konstituzioari 1978ko erreferendumean emandako ezetza edota abstenzioa «akatsa» izan zela esan zuen Gipuzkoako buruzagi sozialistak harrez geroztik indarkeriaren aldekoak jokabide hori «erabili dutelako». Autodeterminazioari buruz, «gure nazionalistak hainbeste miresten duten autodeterminazioa» Egigurenen iritziz.

Agintari dominikarrek sarrera eragotzi diote Etxarreni

SANTO DOMINGO

Dominikar Errepublikako agintariek ez zioten utzi Eusebio Etxarren euskal herritarrari herrialde horretan sartzen. Ostegunean iritsi zen Etxarren hegazkinez, baina bertako migrazio agintariek Espainiara itzuli zuten.

Atzo iturri ofizialetatik ezagutzera eman zenez, Puerto Platako La Union aireportura iritsi zen hegazkin berean itzuli zen. Etxarrenek zenbait urte egin ditu Dominikar Errepublikako Bani izeneko hirian, baina joan den irailaren 12an Espainiara deportatu zuten. Migrazio zuzendaritzak azaldu zuenez, bertan egoteko baimena agortu egin zitzaion.

'La Verdad del Sur' egunkaria zuzendu zuen bertan Etxarrenek, eta bere artikulu gehienetan Joaquin Balaguer-en Partido Reformista Social Cristiano alderdia kritikatzen zuen.

Irurtzun-Andoain autobidea

Azpirotz: nahi eta ezin

Autobideko plataforma eusteko eraiki zituzten harresietako oinarria hondatzen ari da

Irurtzun-Andoain autobideak behar duen plataforma Azpirotz gainean zer-nola finkatuko duten airean dago oraindik. Zati horretan lanak hasi zirenetik, 1989ko azaroan, zailtasunak bat bestearen atzetik etorri dira. Mendatearen malda handiak, lurraren kohesiorik ezak eta hezetasunak lurjausi ugari eragin izan ditu eta oraingoz ezin izan dute ezer finkatu. Eta ez dirudi epe laburrean lortuko dutenik, autobidearen plataformari eusteko eraiki dituzten harresiak oinarritik hondatzen ari dira eta. Azpirozko alkateak dioenez, «egin zuten proiektua paper gainean eta orain atera zaie dena aldrebes». Nafarroako Gobernuaren arabera, berriz, ez dago kezkatzeko arrazoirik, «materialak bakarrik egin bait du huts».



JOXE

ANA UNANUE / **IRUÑEA**

Azpirotz gainetik autobidea eraiki nahian dabiltzan teknikoek buruhauste ugari dituzte. Plataforma eutsi beharko luketeen harresiak eraikitzeko sei hilabete eman zituzten, baina irailaz geroztik lanek ez dute aurrera egin Azpirozko gain horretan.

Bi kilometroko zatian eraikitako harresi 'ekologikoen' oinarria hausten ari da eta egunetik egunera hondatzen doa, errepidetik ikus daitekeenez. Harresiak hormigoizko kaxekin eraiki zituzten, bat bestearen gainean jarriz, kaxen barrena lurrez bete ahal izateko. Asmoa bertan hazia botatzea zen, belarrak hormigoia estal zezan —hortik datorkio harresiari 'ekologiko' izena—.

Sistema hori Suitzatik ekarritakoa da eta, teknikoek diotenez, sei metroko altura arte segurua da. Azpirozko maldan, ordea, harresiak hogei metrotik gora ditu eta oinarrian jarritako hormigoizko kaxak hautsi egin dira. Teknikoek ez daukate argi zerk egin duen huts. Batzuen iritziz, harresien alturagatik presioa gehiegizkoa gertatu da oinarriarentzat. Beste batzuek diotenez, berriz, lurraren kohesio ezak mugi erazi ditu kaxak. Elsamex, lanak zuzentzeaz arduratzen den enpresak nahiago du gertatutakoaren berririk ez ematea.

Jesus Gonzalez Nafarroako Gobernuko Errepide zerbitzuko zuzendariak EGUNKARIAri azaldu dionez, egia da harresiak hondatzen ari direla, «baina ez dago kezkatzeko arrazoirik, materialek egin bait dute huts». Gonzalezen arabera, hormigoizko kaxak ez zeuden behar bezala eginak eta horregatik hautsi dira, baina ez dago egitura arazorik Azpirotzen.

> Azpiroztik pasatzea posible ez zela uste zuen tekniko batek lanak utzi ditu, alkateak jakin erazi duenez.

> Egunotan proba geologikoak egiten dabiltza, lurraren konposaketak eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko.

NOLA KONPONDU JAKIN GABE

Gertatutakoa konpontzeko zer egingo duten ez dakitela aitortu du Errepide arduradunak. Nafarroako Gobernua aukera ezberdinak aztertzen ari da, ez bait daki zer den hobe: harresi guztiak kendu ala konpontzen saiatu.

Nafarroako Gobernuaren plangintzaren arabera, Azpirozko zatia 1992ko abenduan amaituko da. Lanak atzeratuta badabiltza ere, epea beteko dutela dio Gonzalezek. Azpiroztarrek, berriz, ez dute hain argi ikusten hori, lanak hasi zirenetik inguruak ezarri dituen zailtasunak ongi ezagutzen dituzte eta.

Mustilloko tuneletik (Gorriti eta Azpirotz artean) Palletakogainera doan zatian, lurraren egitura litologikoak, aldapa handiak —% 50ekoa gutxienekoa eta % 80koa zenbait puntutan—, eta hezetasunak zaildu egiten du lurrean ezer finkatzea. Horren lekuko ditugu azken urtean gertatutako lurjausiak.

Jose Miguel Etxetxikia Azpirozko alkateak esan digunez, Azpirotz zeharkatzeko modurik ez zegoela uste zuen tekniko batek lanak utzi ditu. Tunel bat egitearen alde omen zegoen hura. Gobernuko Jesus Gonzalezek, berriz, gezurtatu egin du inork lanak utzi dituenik eta Azpirotzen tunel bat egitea «barregarria» dela dio.

LANAK ETA NEGUA

Aldi berean, neguan lanak etengo dituenik ukatu egin du. Zenbait komunikabidetan plazaratutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak hiru hilabetetako oporrak eman nahi zizkien autobideko langileei, eguraldiak lanerako inposatzen dituen baldintza kaskarrak direla eta. Gonzalezek azaldu duenez, «lanak polikiago egingo dira eguraldiak horretara behartzen bagaitu, baina ez dago gelditzeko asmoarik».

Harresiaren hondamenaren ondorioz, lanak impasse egoeran daude Azpirotz gainean. Makinak leku batetik bestera dabiltza, norabide zehatzik gabe. Egunotan froga geologikoak egiten ibili dira, lurraren konposaketa hobeto ezagutu ahal izateko. Azpirozko alkatearen iritziz, horrek adierazten du lanak hasi aurretik ez zituztela behar adina froga egin. Bere esanetan, «egin zuten proiektu bat paper gainean eta orain atera zaie dena aldrebes.

Irurtzun-Andoain autobidea eraiki nahian dabiltzanek ez dute bide erraza izan. Lurraldea koordinakundearen inguruan bildutako oposizioari eta ETA erakunde armatuaren mehatxuei egin behar izan diete aurre. Orain arazoak bestelakoak dira, ordea. Azpirotzen, nahiz eta herritarrek ez zuten begi onez ikusten buru gainean autobidea izatea, ez da oposizio aktiborik izan. Azpirotzen ingurua bakarrik jarri da kontra.

HARRESIEN parean pilatutako lurrak beheko hormigoizko kaxak hobeki ikustea eragozten badu ere, batzuk hondatzen hasi direla nabari daiteke. Alkateak dioenez, Azpirotz gaineko kilometro t'erdian eraikitako harresiak guztiz hautsita daude oinarritik, baina lanak zaintzen dituzten goardek ez zioten gehiago hurbiltzeko baimenik eman gure argazkilariari.

I. MARTIARENA

Irurtzun-Andoain autobidea

Jose Migel Etxetxikia, Azpirozko alkatea. JOXE

Etxetxikia: «Jendeak beldurra zeukan hasieratik, baina...»

Azpiroztarrek ez zuten begi onez ikusten autobidea, baina haren aurka azaltzeko gogorik ere ez zuten, alkateak dioenez. Administrazioaren jarrerak kezkatzen zituen eta protestarik egin gabe aguantatu dituzte lurjausiak, ur mozketak eta teilatutik etxe barrena sartutako harriak.

A.U. / **AZPIROTZ**

Makinak oraindik luzaroan ikusi beharko dituztelako susmoa dute azpiroztarrek. Jose Migel Etxetxikia alkateak dioenez, «jendeak hasieratik esaten zuen ez zela posible egitea eta oraindik ere uste dute ez dela posible». Berak autobidea nola edo hala egingo dutela uste du ordea: «Egingo dute, hori seguro. Kostatzen dela kosta, egingo dute».

Azpirozko herria ez da autobidearen kontra azaldu publikoki, baina apoiorik ere ez du eman. Alkatearen iritzizi, «hemen problema politikoa izandu da. Nahi zuten herri honek beste batzuek bezala autobideari apoioa ematea. Baina guretzat hori oso gogorra zen».

Izan ere, Azpirotzek autobidearen desabantaila guztiak ezagutu ditu, baina probetxu gutxi aterako dio bukatzen badute, herriak ez bait dauka sarrerarik. Behetik, sei kilometrotara, errepide generala pasatzen da eta gainetik, berrehun metrotara, autobidea izango du orain. «Guk horri ezin genion inolaz ere baietz esan», azpimarratu du alkateak.

Lanak hasi bezain pronto izan ziren lehen lurjausiak. Alkateak gogora ekarri duenez, hiru lurjausi handi izan ziren hasieran. Horietako batek borda bat suntsitu zuen eta beste batek ur toma bat lurperatu zuen. Lurjausien ondorioz, bi segurtasun sistema probatu zituzten. Lehenengo sare metalikoak jarri zituzten, baina harriek zulatu egiten zituzten. Gero zangak egin zituzten, hiru maila ezberdinetan, harriren bat erortzen bazen bertan geldi zedin. Leherketak hasi direnetik zangak ez dute ezertarako balio ordea, harriak airez ateratzen bait dira eztandaren ondorioz.

Leherketak hasi berriak dira eta orain arte bi besterik ez dituzte egin. Aurrenekoan ez zen ezer gertatu, baina azaroaren 21ean aurretik abisatu gabe egin zuten leherketa eta harriek zenbait etxetako teilatuak zulatu zituen eta ardi bati harri batek lepoa moztu zion. «Artzaina ere bertan harrapa zezakeen», dio Etxetxikiak.

> Azpirotz, Gorriti, Arruiz, Mugiro eta Lekunberriko ordezkariak Lopez Borderias kontseilariarekin bilduko dira etzi.

Uraren arazoak areagotu egin ziren urrian. Euriteen ondorioz, filtrazioak izan ziren eta azpiroztarrak ur garbirik gabe egon dira bi hilabetez, azaroaren amaieran herriko iturri garbi bakarra bonbeatu zuten arte.

Etxetxikiak dioenez, «jendeak beldurra zuen hasieratik, baina...Badakizu, hemen jende gutxi gara eta indarra ere gutxi». Kontra azalduz gero, Administrazioak baztertuko zituela uste zuten herritarrek eta, alkatearen arabera, horrelaxe gertatu da, «herriari agindu zizkioten hobekuntzak ez dituzte egin eta». Tartean espropiazioak ere baziren. Segurtasun neurriak direla eta, hasieran esandako espropiazioak bikoiztu egin dira.

Guy Héraud: «Demokraziarik ez dago autodeterminaziorik gabe»

Gaurko estatuen oinarri «zentzugabekoak» gaitzetsi ditu Miarritzen

Europako etnien defentsan bizi osoan ibili den Zuzenbide irakasleak estatuen oinarriak justizia eta razionaltasunaren aurka eraikiak izan zirela ironia handiarekin salatu zuen Miarritzen. Populuen duintasun eta askatasunak Europako federazio bat eskatzen duela frogatzen aritu zen bi orduz, Arroka eta Gizona Gizon elkarteek gonbidaturik.

L. ETXEZAHARRETA / **MIARRITZE**

Guy Héraud, alsaziarra eta Nazioarteko Zuzenbidean aditua. L.E.

Udaletxeko gela batean, Jakes Abeberri alkateordeak Guy Héraud aurkeztu zuen, gogoraraziz honek herrien askapenerako mugimendura begira izan duen jarrera profetikoa. «Hélène Carrère d'Encaussek berak ez du Soviet Batasuneko herrien dinamika abertzalea ulertu» zioen, eta azpimarratu zuen «bakarretarik izan dela ulertu duena gaur egun nabaritzen den kontraesan nazionala».

Guy Héraud alsaziarra eta Nazioarteko Zuzenbidean espezialista ezaguna da Ipar Euskal Herrian. Bertara dator aspaldidanik eta Enbata mugimendu abertzalearen hasierako pentsakera federalistaren oinarrizaleetarik izan zen. Ostegun arratseko hitzaldiaren gaia zuen 'Populuen Europa, amets ala gertakari'. Solasaren ardatza Europako 'Estatu-Nazioen' kritika garratza izan da, hauen bidegabekeriak ironia sarkor batekin gaitzetsiz. Egoera absurdo baten aurrean, populuen errealitate naturala agertu du, eta horretarako demokraziaren bide ezinbestezkoa autodeterminazioaren urratsa dela erakutsi.

«Estatuak indarra eta zortearen produktuak» direla frogatzen aritu zen adierazpen asko erabiliz. Indarrez eraiki estatuak, gudaldi batzuen zortezko bukaera batzuek definitu dituztela argitu du. Indarraz baliatzea injustizia iturri dela eta zote hori irrazionaltasunarena dauka Heraudek. Aldiz zioen «populuen borroka Justizia eta razionaltasunarena da».

Injustiziak ekartzen duen «alienazio etnikoa» ikertu zuen, eta honen bost alderdi nagusi agertu: alienazio politiko, demografiko, ekonomiko -soziala, hizkuntzarena eta moral edo psikologikoa. Lehenak ekarri instituzioen ukatzea gutxiengo egoeran jarri ondoren, bigarrenaren 'submertsio etnikoa' jende arrotza ekar araziz zehaztu zituen. Eskubide pertsonalak onartzea eta kolektiboak ukatzea, demokrazia faltsu baten itxura ematea dela gogorki salatu zuen. Alienazio morala edo psikologikoa aipatzean, menperatuaren jarrera azaldu zuen: dominatzailearen baloreak beretuz, bere nortasuna ukatuz, bere burua hiltzen duen norbait da. Autodeterminazioaren gaia aipatu zuen: «Demokrazia, hori gabe demokrazia faltsu bat baizik ez da». Herri bat bizi dadin bost oinarrizko puntu obratu behar dira Guy Hérauden ustez: izan dadin egitura baten bidez, definitua izan dadin lurralde batean, burujabetasuna ukan dezan, bere burua antola dezan berak eta kudeantza ukan dezan.

Aldibaterako kontratazioa

50 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTURAKO. (ERREF.: B91/C17).

EGINKIZUNAK:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 1991eko kanpainaren gestioa aurrera eramaten laguntzea.

ESKAKIZUNAK:

- Gutxienez 18 urte izatea.
- Eskola graduatua, L.H. I edo baliakideren bat.
- Gipuzkoa barruan lekuz aldatzeko prest egotea.
- Prestakuntzako ikastaroa gainditzea.

LANTOKIA:

Ogasun eta Finantza Departamentuak Gipuzkoako Herrialde Historiko barruan horretarako egokitutako edozein bulegotan.

OINARRIAK ETA INSTANTZIAK:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazio eta Erregistroko Negoziatuan jaso daitezke (Gipuzkoa Plaza, z/g., Donostia).

Eskaerak aurkezteko epea 1991ko Abenduaren 19an bukatuko da.

Donostia, 1991ko Abenduak 7.

IDAZKARI TEKNIKOAK,
Jorge Balerdi

Gipuzkoako Foru Aldundia

Lehendakaritza eta Araugintza Departamentua

Euskal Herriko kotxe istripurik larriena

17 hildako eta 49 zauritu Erletxen

Lainoa izan zitekeen Zornotzatik gertu 24 kotxeren artean gertatutako istripuaren arrazoia

Hamazazpi lagun hil eta 49 zauritu ziren atzo goizean Donostiarako bidean A-8 Bilbo-Behobia autopistan hainbat autok elkar jo zutenean. Lainoagatik gerta zitekeen istripuan 24 auto gertatu ziren kaltetuta, horietatik 18 erabat kiskalita.



Kotxeek elkarren kontra jo eta autopistaren bi aldeetan geratu ziren.

ANDER GILLENEA

BILBO

Hamazazpi pertsona hil eta 49 zauritu ziren atzo goizeko hamaikak hogeitabost gutxiago aldera Donostiarako bidean, Euskal Herrian izan den kotxe istripurik larrienean. Ezbeharra Bilbo-Behobia autopistako 102. kilometroan, Zornotzako Erletxe bihurgunearen parean gertatu zen. 24 kotxe izan ziren kalteturik eta horietatik 18 erabat kiskalita geratu ziren.

Istripua goizeko ordu horietako behelainoak edo ke hodei handi batek eragindako bisibilitate eskasak eragin zezakeen, Ertzaintzaren iturriek aditzera eman zutenez. Iturri berberen arabera, errepide ondoan enpresa batek erretako produktuen kea izan zitekeen ezbeharraren arrazoia.

Bizkaiko Zornotza eta Galdakao artean gertatu zen istripua. Dirudienez, bi autok elkar jo eta autopistako bi karrilak hartu zituzten. Horien atzetik zetozen autoek ezin gelditu eta haien kontra jo zuten bata bestearen atzetik eta autoek zutabe handi bat osatu zuten. Zenbait autotako erregaiaren gordailuak lehertu egin ziren sute handi bat eraginez. Ondorioz, 18 auto erabat kiskalita geratu ziren.

Auto horietan zihoazen pertsona gehienek ezin izan zuten kotxetik irten beste auto batzuren artean sartuta zeudelako, burdin artean. Istripua ikusi zuten lekukoen arabera, kotxeen barnean harrapatuta geratu ziren lagunek laguntza eske oihukatu zuten eta beste batzuk, gorputza sutan zutela atera ziren autoetatik.

Vasco Presseko iturrien arabera, bere lanera zihoan Borja Artiach Euskal Telebistako kamara laguntzaile gaztea suak kiskalita hil zen bere autotik ezin izan bait zuen irten.

IDENTIFIKATZEKO ARAZO HANDIAK

Istripuan 16 lagun hil ziren eta kopuru honi Jose Herrero del Rioren heriotza gehitu behar zaio. Herrero del Rio Galdakaoko ospitalerako bidean hil zen. Ertzaintzaren iturriek hildako zenbaitzu nortzuk izan daitezkeen jakin bazekitela adierazi arren, lehen orduetan ez zuten izenik eman nahi izan zehatz frogatu arte.

Hala ere, 19.15etan zortzi hildakoren izenak ezagutzera eman zituen Polizia autonomoak. Zenduak, Jose Herrero del Rio eta Borja Artiachekin batera, honokoak ziren: Pedro Lizarralde Gonzalez, Isabel Pildain Lazpita, Marcelino Granado Sanchez, Jesus Lopez Areta, Maria Angeles Basaguren Velaz, eta Maria Angeles Lopez Basaguren.

Iturri berberen arabera, hildakoen identifikazioa poliki joango da. «Hildakoak erabat kiskalita daude baita autoak ere, horregatik ezinezkoa da nortzuk diren esatea. Autoetako bastidore zenbakiak hartu eta jabeak nortzuk diren bilatu beharko dugu. Jabeen izena jakin ondoren, autoan nortzuk joan zitezkeen aztertuko dugu. Hortzen fitxa edo osasun txostenaren arabera jakin ahal izango dugu nortzuk diren hildakoak».

Arratsaldean Bilboko Institutu Anatomiko Forensera eraman zituzten gorpuak Durangoko Instrukzio Epaitegiaren aginduz gaur bertan identifikazio lanetan segitzeko.

Zauritutakoak, bestalde, 49 izan ziren eta horietatik zenbaitzuk egoera larrian daude. Pertsona horiek anbulantzia zein auto partikularretan eraman zituzten Galdakao, Gurutzeta eta Basurtoko ospitaleetara.



I. MARTIARENA

Istripua Erletxeondoan gertatu zen, Zornotzatik gertu.

ANDER GILLENEA

ISTRIPUKO BIKTIMAK

Hildakoak —konfirmaturik—
Jose Herrero Del Rio
Borja Artiach Basterra
Pedro Lizarralde Gonzalez
Isabel Pildain Lazpita
Marcelino Granado Sanchez
Jesus Lopez Areta
Maria Angeles Basaguren Velaz
Maria Angeles Lopez Basaguren

Zaurituak
Galdakaoko ospitalean
Ingresaturik
Iratxe Zelaia Lopez
Esteban Irastorza Alustiza
Isabel Calvo Garcia
Alfonso Pereda Bordes

Altan
Ramon Vizcaino Ezkerra
Alberto Zelaia Ajuria
Dolores Simon Alfonso
Alberto Lopez Basaguren
Alejandro Ruiz Parra
Nerea Zubiria Ganboa

Gurutzetako ospitalean
Ingresaturik
Aurora Cortes Lopez
Leire Martinez Cortes
Rosa Aparicio Posada
Jose Antonio Gonzalez Velasco
Jon Mikel Mayor Martin
Carmen Latorre Castillo
Iñigo Lopez Simon
Ana M. Redondo Larrazabal
Unai Irastorza Redondo
Maria Jesus Uranga Maritxalar

Altan
Juan Lopez Uranga
Lorenzo Lopez San Miguel
Dolores Pereda Olabarrieta
Angel Pastor Del Hoyo
Juan Jose Zunzunegi Sarasola
Urko Ballester Serrano
Ekaitz Ballester Serrano
Idurre Ballester Serrano
Aurora Serrano Concejo
Ana Monasterio Torre
Felix Moreno Tejada
Maria Jose Flores Diez
Jose Flores Mayor
Nieves Diaz Broceña

Basurtoko ospitalean
Ingresaturik
Jose Ramon Nogueruela Lastra
Juan Aldama Gonzalez
Edurne Laka Artetxe
Jone Gonzalez Calvo

Altan
Koro Abasolo Galdiz
Isabel Acebes Diez
Begoña Alonso Elgezabal
Nagore Aldama Acebes
Jose Antonio Heran Rivas
Ana Francisco Moran
Egoitz Gonzalez Calvo
Jose Lanbarri Lopez
Antonio Olazabal Otegi
Enedina Velasco Leve
Jose Gonzalez Leizegi

49 zauritu; horietatik 18 ingresaturik

BILBO

Donostiarako bidean Zornotzan izandako 24 autoren arteko istripuan 17 lagun hil ziren eta 49 zauritu. Hauetatik zenbaitzu larri zaurituak suertatu ziren. Zauritutakoak anbulantzia zein auto partikularretan eraman zituzten Bizkaiko hiru ospitaletara: Basurtu, Galdakao eta Gurutzeta. Zauritutako gehienak erredurak eta kolpeak zituzten eta 18 lagun hiru ospitaleetan ingresatuta zeuden.

Gurutzetako ospitalean 24 zaurituz arduratu ziren. Hauetatik hamarrek ingresatuta jarraitzen dute; beste 14ri alta eman zieten. Basurtuko ospital zibilean, bestalde, 14 laguni eskaini zieten laguntza; hauetatik 4k ingresatuta jarraitzen dute.

Galdakaoko ospitalera, azkenik, 10 zauritu eraman zituzten, hauetatik 4 ingresatuta gelditu ziren eta beste 6 laguni alta eman zieten erredura edo zauriak ez bait ziren larriak.

Istripuan izandako hildakoen eta kasu batzuetan zauritutakoen erreskate lanek zenbait ordu iraun zuten, hauen gorpuak burdinen artean harrapatatu geratu zirelako.

Kaltetutako auto batean bidaiatzen zuen emakume baten arabera, «ez zaigu ezer gertatu aurrean zeuden bi autoen aurka jo ondoren atzean zetozenek gurea jo eta errepidetik atera gaituztelako». Emakumeak ez zuen zauri garrantzitsurik izan.

Zauririk gabe ateratzea lortu duen familia bateko emakumearen hitzetan, «autotik irtetea lortu dugunean, su artean zegoen mutil bat ikusi ahal izan dugu, eskua luzatuz laguntza eskatzen ziguna. Nire eskua luzatu diot baina ezin izan diot heldu...».

Arratsaldeko lehen orduetan pertsona ugari abiatu zen istripua gertatu zen ingurura biktimen identitatea ezagutzeko asmoz. Hau ikusita Ertzaintzak ez hurbiltzeko eskatu zien lagun hauei, jendea pilatzeak oztopatu zitzakeelako erreskate lanak. Gainera, identifikazio lanak ez ziren autopistan bertan egiteko.

Luis Maria Larrea Bilboko apezpikuak doluminak adierazi zizkien hildakoen senitartekoei. «Lanean eta errepideetan izan beharreko segurtasunak biziaren balorearen aspektu bi dira, denok kontutan hartu beharrekoak» azaldu zuen gotzainak.

ISTRIPUA ORDUZ ORDU

10.35ak: Bi kotxek elkarren kontra jo zuten A-8 autopistan Erletxe inguruan

10.40ak: SOS Deian lehen abisua jaso zuten. Segituan DYA zein Gurutze Gorriaren anbulantziak atera ziren bertarantz.

11.30ak: Hildakoen kopurua 9koa zela esan zuten. Kaltetutako auto kopurua ezezaguna zen.

13.00ak: Hildakoen kopurua 12ra igo zen.

13.20ak: Azken zaurituak ospitaleetara eraman zituzten.

14.00ak: 12tik 16ra pasatu zen hildakoen kopurua. Autoak: 24 kalteturik, horietatik 18 erabat kiskalita.

15.00ak: Hildakoen kopurua 17ra igon zen eta SOS Deiako iturrien arabera agian 18koa izan zitekeen, auto batean zalantzak bait zeuden hildakoak 2 edo 3 pertsona ote ziren.

Guztira istripuan 17 pertsona hildako, 49 zauritu horietatik 18 ingresaturik daude Galdakao, Gurutzeta, Basurtoko ospitalean, zauritutako bat Valderillako ospitalera eraman zuten.

Istripuan 16 lagun hil dira eta beste bat Galdakaoko ospitalean.

I. MARTIARENA

SEI suhiltzaile kamioi hurbildu ziren Erletxe aldera atzo goizeko istripuaren berri izan bezain laster. Hamabi anbulantziak ere bertara jo zuten SOS Deiak hartutako abisuaren ondoren. Helburua argi zegoen Ander Gilleneak egindako argazkian ikus daitekeenez: ahalik eta lagunik gehienak salbatzea eta A-8 autopistan hedaturik zegoen sua itzaltzea. Lana ez zen erraza izan, gorputzak burdinen artean zeudelako, haietako asko erre erre eginda. Balantzea: 17 hildako eta 49 zauritu.



ANDER GILLENEA

Hogei kilometroko kotxe iladak

BILBO

Donostiarako bidean Bilbo Behobia autopistaren 102. kilometroan gertatutako istripuaren ondorioz, 20 kilometroko auto iladak sortu ziren. Istripu larria gertatu zen karrilean, auto iladak Bilboraino heldu ziren, Malmasineko tuneleraino hain zuzen.

Hogeitalau autoen arteko istripuan Donostiarantz zihoazen zenbait auto beste karrilera pasatu ziren, ondorioz, Bilbo Behobia autopistako bi norabideak moztu zituzten.

Istripuaren lekura hurbildu ziren ertzainek autopistaren ondotik igarotzen den 634. errepide nazionalera desbideratu zuten trafikoa. Hala ere, auto ilada eta ataskoak goiz osoan izan ziren, trafikoa desbideratzeko zeuden zailtasunak zirela medio.

Jende asko hurbildu zen atzo istripuaren tokira, senitarteko edo lagunen bat istripuan kalteturik gertatu zen jakiteko. Opor jai egun hauek hasiera txarra izan zuten atzokoan, egun honetan jende ugari atera bait zen egunpasa edo atzo zabaldu zuten Durangoko Liburu eta Disko azoka bisitatzera.



Istripua goizeko behe lainoak eragin zezakeen, lehen datuen arabera.

ANDER GILLENEA

Hondamendiek 600 hildako eragin dituzte Bizkaian azken mendean

BILBO

Herenegun Galdakaoko Unión Española de Explosivos (UEE) lantegian izandako eztanda eta atzo Zornotzan kotxe askoren artean izandako istripuarekin, hogei dira azken ehun urteetan Bizkaian gertatu diren hondamendiak. Hauetan guztira 600 pertsona hil dira eta 500 inguru zauritu.

Leherketak, suteak, hondamendi naturalak, tren eta auto istripuak izan dira Bizkaian ezbehar hauek sortu dituztenak.

1894. urtean Lezama-Bilbo trenbidean izandako istripuaren ondorioz 13 lagun hil ziren. Urte batzuk beranduago, 1912. urtean, Bilboko zine areto batean izan zen suteak 46 haurren heriotza ekarri zuen. Aipagarria da baita ere, 1978an Ortuellako Marcelino Ugalde ikastetxean gas poltsa baten leherketak 51 haur hil zitueneko kasua.

Hondamendi naturalei dagokienez, gogoratu 1912. urtean izan zen itsas ekaitzak Bermeo, Lekeitio eta Ondarroako 146 arrantzale hil zituela. Lubiziak sei heriotz ekarri zituen Bizkaira 1964 eta 1979an, etxebizitzak estali bait zituen. 1983ko abuztuko uholdeetan, berriz, 50 hildako izan ziren Euskal Herrian.

Herenegun Galdakaoko UEE lantegian istripuz hil ziren lau lagunekin, 25 pertsona dira guztira enpresa honetan izan diren leherketen ondorioz hildakoak. Azpimarragarria da 1967an Lutxanako lantegi bat lurreratzean izan zen hondamendia, 16 pertsona hil eta 14 larriki zauriturik gertatuz.

Orain dela sei urte Oiz mendian hegazkin batek lurra jo zuen eta 148 lagun hil ziren. Tren istripuek ere sei hildako eragin dituzte azken hamar urteetan.

Dena den, atzo Zornotzan gertatutakoa, Euskal Herriko errepideetan izan den hondamendirik handiena da.

Ihardunaldietan 2 eta 6 urte bitarteko haurren hezkuntza aztertuko da A. BAYO

Sei urte arteko umeen hezkuntza aztertzen hasi ziren Gasteizen

I.K.G. / **GASTEIZ**

Haurren Hezkuntzari buruzko I Nazioarteko Biltzarrari hasiera eman zion atzo Fernando Buesa Hezkuntza sailburua eta Gizarte Arazoetarako lehendakariordeak.

Mundu osoko ehundaka adituk bihar arte Europa Gizarte Etxean egingo dituzten ihardunaldiok sei urte arteko umeen hezkuntza edo «hezkuntza goiztiarraren abantailak» aztertuko dituzte, Juan Sanchez Espainiako Haur Eskolen Elkarteko (FEDEI) lehendakariak adierazi zuenez.

Bi dira haur hezkuntzan egun dauden joerak, Juan Sanchezek aipatu bezala. «Ildo tradizionalak dioenez, haurra helduz doan heinean ikasi egiten du, baina hezkuntza goiztiarraren arabera, haurra ikasketa prozesuan sartu behar da ahalik lasterren, beti ere behartu barik», deklaratu zuen Sanchezek. FEDEIko lehendakariaren aburuz, «hezkuntza goiztiarra nagusituko da, gizarteak honelaxe eskatzen duelako». Era honetan, haurra «askoz hobeto eskolaratuko da» Sanchezen ustetan. Bi urte baino gehiagoko haurrak «haur eskola batean etxean baino hobeto» daudela frogaturik dago esan zuen eta gaur egun «haur hezkuntzak familiarekin duen loturarik gabe zereginik ez» dagoela erantsi zuen.

Biltzar honetan goiz nahiz arratsaldeko ihardunaldiak izango dira, eta aparteko ekintza moduan, haur talde batek bibolin eta piano kontzertua eskainiko du bihar eguerdian.

Euskara

Alderdi politikoek euskararekiko duten jarrera «axolakabea» da EHEren iritziz

Instituzioetan euskara oso gutxi erabiltzen dela salatu du taldeak

Hego Euskal Herriko instituzioek, euskararen normalizazioarako beraiek onartu eta bultzatutako legeetan ez dutela sinesten adierazi du Euskal Herrian Euskaraz —EHE— taldeak. Instituzio hauek egiten duten euskararen erabilera neurtu du EHEk.

DONOSTIA

Alderdi politikoek euskara oso gutxi erabiltzen dutela salatu du EHEk, «alderdi politikoak izanik herriaren ordezkariak, axolagabekeria erakusten dute gure hizkuntza nazionalarekiko» zehaztu du EHEk. Era berean, instituzioak eta agintariak beraiek ezarritako legeak betetzeko ez direla gai eritzi du, euskararen normalkuntzarako legeak hutsean geratu bait dira EHEren iritziz. Honen errua Espainiako Konstituzioari leporatu dio.

Urria eta azaroa bitartean erakundeek egin duten euskararen erabilera neurtu du EHEk. Epe honetan EHEko kideek oso gertutik jarraitu dituzte alderdi politiko guztiak eta herrien tipologia ere kontutan izan dute. Horrela, erabat euskaldunak, euskaldunak, ia euskaldunak, erdaldunak eta erabat erdaldunak diren herriak berezitu dituzte.

EHEkoek egindako neurketaren arabera, erabat euskaldunak diren herrietan EAJ eta EE alderdiek % 100 egiten dute euskaraz, HBk % 94 eta EAk % 1'5. Ia euskaldunak diren herrietan euskara gehien erabiltzen duen alderdia EE da, % 93rekin. HB dator ondoren, % 75ekin. EHEkoen hitzetan, herri erdaldunetan euskara antzerako proportzioan erabiltzen dute EA, EE eta HBk, % 22 ingurukoa hain zuzen. EAJ alderdiak, ordea, euskararen erabilera urria egiten du, % 0'4 besterik ez bait du erabiltzen.

Hego Euskal Herriko hiriburuak aintzakotzat harturik, HB da euskara gehien erabiltzen duen alderdia. Gasteizen % 30, Bilbon % 25, Iruñean % 10 eta Donostian, aldiz, % 0'72 besterik ez Hego Euskal Herriko hiribururik euskaldunena izan arren. Gainontzeko alderdiek euskara oso gutxi erabiltzen dutela salatu du EHEk. Bestalde, udalek plazaratzen dituzten agirietan euskara soilik gehien erabiltzen duena Gasteizkoa dela eritzi du EHEk, eta Bilboko Udalak % 100 gazteleraz egiten duela kritikatu du.

Bilboko Udalak agiri guztiak gaztelera hutsez plazaratzen ditu.

HILDAKOAK

BIZKAIA

BILBO
Amalia Rojel Basarte, 76 urte.
Adolfo Gomez Cerezo, 73 urte.
Maria Cruz Ribera Frias, 71 urte.
Jose Castaños Marsella, 77 urte.
Juan Luis Alvarez Sanchez.

BARAKALDO
Mariano Rivas Saez, 71 urte.
Miguel Tarrio Prada, 42 urte.
Luis Ispizua Matute, 67 urte.

BERRIZ
Marcelino Eriz Aiestaran.

LEIOA
Jose Latasa Barrueta, 65 urte.

LEKEITIO
Matilde Bengoetxea Bilbao, 94 urte.

PORTUGALETE
Luis Ares de la Manuela, 81 urte.

TRAPAGARAN
Prudencia Olaso Mendilibar, 87 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA
Pilar Aduriz Aldasoro, 90 urte.
Maria del Carmen Martinez de Yuso Alaiza, 93 urte.
Isabel Mendizabal Lasa, 82 urte.
Gregoria Larreategi Larrañaga, 83 urte.

BILLABONA
Margarita Arregi Aldaburu, 92 urte.

DEBA
Jose Maria Ulazia Urkiri, 85 urte.

IRUN
Mamerto Sorzabal Begua, 78 urte.

LEGAZPI
Filomena Silva Zambrano, 89 urte.

OÑATI
Leandro Elorza Barrena, 91 urte.

SEGURA
Gillermo Areizaga Intxausti, 49 urte.

ARABA

GASTEIZ
Manuel Melgar Perez, 86 urte.
Florencio Ruiz de Mendiroketa Fernandez de la Peña, 67 urte.

NABARIDAS
Benigna Martinez Varela, 84 urte.

NAFARROA

IRUÑEA
Segundo Garcia Peña, 89 urte.
Ramon Urionaguena Urionaguena, 64 urte.

CAPARROSO
Marino Orduña Iribarren, 43 urte.

ELIZONDO
Narciso Etxeberria Agerre, 58 urte.
Victoria Goienetxe Jauregi, 80 urte.

ERRONKARI
Isabel Sarries Alkat, 86 urte.

LERIN
Juan Lopez Lorente, 78 urte.

MIRANDA DE ARGA
Juan Antonio Etxarri Martija, 60 urte.
Jose Ismael Prieto Garcia, 43 urte.

OTSAGABIA
Eugenia Garcia Landa.

SALDIAS
Jose Ramon Erasun Micheo, 74 urte.

UHARTE
Antonio Palma Morillo, 88 urte.

LAPURDI

HAZPARNE
Marie Bidart, 77 urte.

HENDAIA
Angelita Kanpandegi-Argot, 84 urte
Jeannette Etxarri, 79 urte

MIARRITZE
Marie Madeleine Samson-Karakotxe, 90 urte.

ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 45 59 57 4etatik 7etara: (943) 37 15 45



JUBILATU eta edadeko pertsonak kalera irten ziren atzo Donostian beraientzako egoitzak eskatzeko. Gipuzkoako Diputazioaren aurrean kontzentratu ziren 'Laugarren Adinaren aldeko Koordinadorak' deituta. CARLOS VILLAGRANen argazkian ikus daitekenez jende ugari bildu zen. Donostiako Geriatrikoak segitzea eskatzen dute edadeko pertsonek, beren iritziz, egoitza gutxi dituztelako denborapasa eta aisiarako. Arazoa larriagotu egin da Egia auzoan dagoen zaharren etxean berritze lanak hasi dituztenetik. Pertsona edadetuak gero eta gehiago dira Gipuzkoan, baina, egoitzak ez dira nahikoak guztiak hartzeko.

BORJA ARTIACH BASTERRA

ETBko Bideo-operatzailea

Atzo hil zen, auto-istripuz, Galdakaon, 28 urte zituela

Bihotzean tristura,
begian negarra,
tristea duk horrela
agurtu beharra.

Ez diagu ahantzi
hire irriparra
berak emango ziguk
jarraitzeko indarra.

Euskal Telebistaren Zuzendaritzak eta bere lankide guztiok gogotan izango dugu.

1.991ko abenduaren 7an.

Mintzaldi zikloa aurkeztu da Iruñean Foru aldaketari buruz

IRUÑEA

Geronimo Ustariz Institutuak eta Eusko Ikaskuntzak mintzaldi ziklo bat antolatu dute heldu den asterako, 'Foru aldaketaren 150. urtemuga' izenekoa. Datorren astelehenean hasi eta ostiralera arte iraungo du eta arratsaldeko 7.30etan izango dira egunero hitzaldiak.

Emilio Majuelo, Geronimo Ustariz Institutuko zuzendariak, Iosu Txueka erredakzio batzordekoak eta Tomas Urzainki Nafarroako Eusko Ikaskuntzaren lehendakariordeak aurkeztu zuten ziklo honen egitaraua. Iruñeko Hizkuntz Eskolako aretoan emango diren mintzaldiak Udala eta Vianako Printzea Erakundearen laguntzarekin prestatu dira.

Zikloari hasiera emango dion mintzaldia Joseba De La Torre Unibertsitate Publikoko irakasleak aurkeztuko duen gaia izango da, hain zuzen, 'Aldaketa gizarte-ekonomikoa Nafarroan, aintzina eta erregimen berriaren bitartean (1808-1868)'. Garai horretan komunitateko egoera orokorra azalduko du, bai gizarte ekonomia, bai legedia aztertuz.

Ramon del Rio, Barcelonako Unibertsitate Autonomoan dagoen historialari nafarrak eskainiko du bigarren mintzaldia, hilak 10, '1841. urteko Legearen aurretiko Ondasun eta Fiskalitate nafarra' gaiari buruz. Asteazkenean, berriz, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den Josetxo Ortiz de Orruño izango da mintzaldia emango duena. Berak azalduko du '1839. urteko Legearen eragina Euskal Lurraldeetan'.

'Aginte, burujabetasuna eta Lege Hitzartua' gaiari buruz mintzatuko da Ignacio Lakasta Zaragozako Unibertsitateko irakaslea ostegun arratsaldean. Eta mintzaldi ziklo honi bukaera emango diona Demetrio Loperena izango da, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Berak aztertuko duen gaia 'Lege Hitzartua Nafarroako lehen Autonomi Estatutuan' izango da.

Tomas Urzainkik aipatu zuen ihardunaldi hauekin bukatzen direla aurten egin diren ekintzak Foru aldaketaren urtemuga ospatzeko. Lege honek izugarrizko garrantzia izan zuela azpimarratu zuen, Nafarroako egitura juridikoa ordutik aurrera moldatu bait zen.

Ihardunaldi hauek aurkezteaz gain, Iosu Txuekak, Geronimo Ustariz Institutuak atera berri duen aldizkariari buruz hitzegin zuen. 'Nekazal jabegoa gaur egungo Nafarroan' ikuspuntu desberdinetatik ikusita da aldizkaria aztertzen den gaia.

LANKIDE Aurrezki Kutxak 1992. urteko egutegia kaleratu du. Euskal Herriko txoko guztietako gazteriaren ereduari eusten dio Lankide Aurrezki Kutxak aurtengo egutegian, eta bestela, **CARLOS VILLAGRAN**ek egutegiari ateratako argazkia ikuskatu. Gazteak nortzuk diren ez dakigu, baina, egutegia polita dela, hortan ez dago dudarik.

Egunkaria-k urtebete

EGUNKARIA kalera atera zen atzo lehen urteurrena ospatzeko asmoz

150.000 ale berezi banatu zituen Euskal Herriko hiri eta herrietan

150.000 ale berezi banatu zituen atzo EGUNKARIAk Euskal Herriko zoko moko guztietan bere lehen urteurrena ospatzeko. Hiriburu zein herrietako kaleetan hirurogeitalau orrialdeko EGUNKARIA berezia izan zen guztion eskura, orain arte egindakoaren eta geroari begira geure proiektuen berri emateko.

DONOSTIA

'Abenduaren 6a, Egun Handia Euskal Herriarentzat' zioen EGUNKARIA sortu zen egunaren lehen urteurrena gogoratzeko iragarkia eta halaxe izan zen. Goizean goiz herrietako batzordeak lanean hasi ziren. Ehundaka euskaltzale eta laguntzaileek mahaiak ezarri zituzten herri eta hiriburuetako erdigune eta auzoetan urteurreneko alea jendearen eskura jartzeko.

EGUNKARIAren ale berezi honetan lehen urteari buruzko balantzea egitearekin batera, SIADECO Sozio-Ekonomi Ikerketa Elkarteak irakurleen artean egindako inkesta ere argitaratu da. Ikerketa lan honen emaitzen daturik aipagarrienak gure irakurlegoaren osaketa eta ezaugarriak dira, batetik; eta beraiek geuk eskaintzen diegun produktuaz duten iritzia, bestetik.

Honen arabera, EGUNKARIAk 44.000 irakurle ditu. Irakurle kopurua berez garrantzitsua bada ere, bada beste faktore bat, inportantzia hau areagotu egiten duena: haietako % 37,1ek EGUNKARIA besterik ez du erosten. Eta % 20,2k gurea baizik ez du irakurtzen egunoro. Datuok nahiko adierazgarriak dira, batez ere euskarazko egunkari batek lehen egunkaria egundo izan ez eta beti ere erdal medioen atzean ibili beharko duela esan duenik badenean.

Irakurlearen soslaia hauxe izango litzateke: gaztea, ikasia, euskaldun zaharra eta alfabetatua.

Atzo kaleratutako alean azaltzen zen beste atal batean irakurleek EGUNKARIAri buruzko duten iritzia ageri da. Inpresioa, orokorrean, oso ona da: % 71,8k ondo erizten dio euskarazko egunkariari; % 8,2k oso ondo eta % 14,5ek, berriz, erdipurdi. Medioa nazionala eta zabala dela esaten dutenak gehiengoa dira: % 20,9k EGUNKARIA erabat nazionala dela uste du; eta % 39,8k «neurri handi batean» nazionala dela dio.

EGUNKARIAren aleak herri guztietan izan ziren eskura. VILLAGRAN

Aurreko egunotan kuestazioak egin dira. UNIBERRIAK

lartzun 11

TXEMA MONTERO:

- ***"Sistema komunisten erorketatik zerbait ikasi behar baldin badugu, abangoardismoaren eta frontismoaren porrota da".***
- ***"Negoziaketarako bidean ere instituzioetatik gehiago bultza daitekeela uste dut".***
- ***"PNVko azken mugimenduak ulertzeko kontutan eduki behar da Ardanzaren suzesioa dagoela jokoan".***

DURANGOKO AZOKAN SALGAI

Baxurako euskal flotak 50 untzitik gorako murrizketa izango du aurten

Azken urteotako harrapaketen beherakadak eragin handia izan du

Baxura sektorearen dimentsioa gehiegizkoa da harrapaketa eta arrantzale kopuruarekin alderatuz. Bi faktore hauek untzi kopurua murritaraztea ekarri dute. 1991n zehar baxurako 50 untzitik gora desagertu dira euskal portuetatik.

BILBO

Baxurako arrantzan harrapaketa nagusiak diren bixigu, legatz, txitxarro, berdel eta hegaluzearen jaitsiera izugarriek batetik, eta lan merkatuan gero eta arrantzale gazte gutxiago aurkitzeak eragin dute batez ere, mota honetako untzi kopurua murriztu behar izatera.

Jose Ignacio Espelen, Eusko Jaurlaritzako Arrantza sailburuordearen iritziz, baxurako arrantzuntziak desagertaraziz, flotaren berrantolaketa poliki ematen ari da «egoera orekatu batera iritsi arte». Arrantza arduradunaren esanetan, «legatzuntzi txikiak pixkanaka desagertuz doaz, 50 tona inguruko 'txiki-handi' untziei tokia utziz». Azken arrantzuntzi hauek arrain mota ezberdinen harrapaketetan parte hartu ahal izan dezakete eta beraz, urte osoan lanean aritu daitezke.

Espelek azpimarratzen duenez, Euskal Herriko baxurako untzien helburu nagusia hegaluzea izanik, arrantzuntziak arrain mota honen bankoak dauden tokietara bideratu beharko dira. Gasteizko Gobernuko Arrantza sailburuak azaltzen duenez, «nere ustetan kaladeroak ez dira finkoak izango. Horregatik arrantzuntzi moldakor eta potentzia handikoak beharko ditugu batetik bestera ibili ahal izateko».



Bermeon 25 untzi eta Hondarribian 20 desagertu dira aurten baxurako flotaren birmoldaketaren ondorioz. MONTXO OTXOA

BERMEO ETA HONDARRIBIKO KASUAK

Baxura arrantzako euskal portu nagusiak diren Bermeo eta Hondarribian bereziki igarri da untzi kopuruaren murrizketa. Bermeoko kasuan 25 untzi desagertu dira aurten, eta Hondarribian 20 izan dira kendu direnak.

70. hamarkadan Bermeoko portuan baxurako arrantzuntzien kopurua 160 ingurukoa zen bitartean, gaur egun 100 untzi daude. Kontutan izan behar da orain dela zortzi urte, esaterako, 200 bixigu tonatik gora sartzen zirela Bermeon eta iaz 9 tonara ozta ozta heltzen zirela arrain mota honen harrapaketak. Legatzari dagokionez antzerakoa da egoera.

Kezkagarria izan da baita ere antxoa harrapaketek izan duten beherakada. 1984ean 15 tona arrantzatu ziren Bizkaian. Kopuru hau hiru tonara jaitsi zen 1989an eta aurten bi tona antxoa besterik ez dituzte harrapatu arrantzale bizkaitarrek.

Hondarribian gertatu den prozesua antzekoa da. Berdel eta hegaluzearen arrantzan oinarritzen diren baxurako untzien kopurua jaitsi behar izan dute gipuzkoarrek, atunaren arrantzan erabilitako bolantek % 40 murriztu bait dituzte arrain mota honen harrapaketak. 1989. urtean 5.700 tona sartu ziren Gipuzkoako portuetan hamar hilabeteetan. Aurten urrira bitartean arrantzatutakoa 3.800 tonara besterik ez da iritsi.

Nahiz eta untzi kopurua jaitsi, Esteban Olaizola Hondarribiko kofradiako arduradunaren esanetan «langabezia ez da areagotu» Gipuzkoako portu honetan.

Galdakaoko eztanda ikertzeko bi batzorde sortu dira UEEn

BILBO

Unión Española de Explosivoseko (UEE) zuzendaritzak eta enpresa batzordeak komisio bana eratu dute Galdakaoko lantegian lau langileren heriotza eragin zuen eztandaren arrazoiak ikertzeko. UEEko nagusiek enpresako sindikatuekin atzo izan zuten bileraren ostean erabaki zuten ikerketa batzorde hauek osatzea.

Enpresako iturrien arabera, badira zenbait hipotesi istripua eragin zezakeenari buruz. Fernando Romero enpresako eledunak atzo aipatutako hipotesiaren arabera, lau hildakoek eztanda egin zuen makina konpontzen ari zitezkeen. Galdakaoko UEEren lantegiko produkzioa etenda egongo da ikerketa egiten denbtartean.

Eztanda egin zuen makina alemaniarra zenez, enpresako zuzendariek Alemaniako zenbait teknikoren zain zeuden atzo, istripua argitzeko helburuz makinaren azterketa egiteko.

✓ Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak ere ikerketa hauetan parte hartuko duela esan zuen atzo Paulino Luesma sailburuak.

Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak ere ikerketa hauetan parte hartuko duela adierazi zuen atzo Paulino Luesma sailburuak eta bi batzordeekin bilduko da datorren astelehenean Lakuan.

HB-RENTZAT LAN TERRORISMOA

EEko lan istripua herenegun arratsaldeko bostak aldera gertatu zen, nitrozelulosa zentrifugadora batek eztanda egin zuenean. Leherketaren ondorioz Manuel Martín Hernández, Herminio González Martínez, Félix Cortezón Pardo eta Franciscio Iturbe Lekue langileek bizitza galdu zuten.



Galdakaoko UEEren lantegia eztandaren ondoren.

Herri Batasunak «lan terrorismotzat» jo zuen Galdakaoko UEEko istripua atzo kaleratutako agiri baten bidez. HBrentzat, honelako gertakarietan benetako errudunak «segurtasun eta osasun alorretako inbertsioak aurrezten dituzten industriariak» dira.

Atzo bezalako istripuak ez dira, HBrentzat, «ezin ekidin daitezkeen ezbeharrak». Alderdi abertzaleak erakunde publikoei ere leporatu zien erantzunkizun eta ardura ezbehar horretan, «enpresa iharduera kontrolatzeko beharra ez betetzen ez dutelako».

Jaurlaritzak 2.400 milioi jasoko ditu jokoaren zergarekin

GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak 2.400 bat milioi pezeta biltzea espero du jokoaren gaineko zerga berri baten bidez, diputazioek egun kobratzen dutenei erantsiko zaiona.

Administrazioko Haziendak ez du oraindik erabaki zerga berria izango den edo diputazioek kobratzen duten tasa fiskalen gehigarri bat.

Eusko Legebiltzarrak onartu beharko duen zerga berria oraindik zehaztu gabe badago ere, Eusko Jaurlaritzak datorren urterako egindako aurrekontuetan 2.400 milioi pezetako dirutza hori jasotzen da.

Hazienda Sailaren asmoa zerga berri honek jolas edo turismo alorreko jokoei ez eragitea da, hala nola pilotaleku edo hipodromoak. Zerga berria joko makina eta bingoetan bakarrik aplikatuko litzateke.

Euskal diputazioek 12.443 milioi pezeta bilduko dute datorren urtean —1.710 milioi Araban, 6.371 milioi Bizkaian eta 4.362 Gipuzkoan— txanponjaleak bezalako joko makinen jabeei kobratzen dizkieten tasa fiskalen bidez.

EAEn dauden 23.000 joko makinen jabeek zergarekin gehitu egingo dute ordaindu beharrekoa.

Kopuru honetan merkatuan dauden hiru makina motak sartuta daude: A motakoak —diru saririk ematen ez duten jolas makinak—; B motakoak —10.000 pezeta arteko sariak ematen dituzten txanponjaleak— eta C motakoak —kasino eta itsasontzietakoak—.

Europako merkatal flotako sindikatuek grebara deitu dezakete

MADRIL

Merkatal flotako Europako sindikatuak sektore honetan grebara deituko dute, baldin eta hiru hilabeteko epean Europako Komunitateak itsasontzien liberalizazioaren aurrean langileak babesteko erantzunik ematen ez badu.

Sindikatuek uko egiten diote itsasontziak bigarren erregistro batean sartzeari. Europako lurralde askotan nagusitzen ari den formula honen bidez, untzijabe edo itsas konpainietako nagusiek langileekiko malgutasun handiagoa izango dute, atzerriko marinelak hartu ditzaketelarik. Gainera, formula honek fiskalitate txikiagoa ahalbideratzen du itsas merkataritzan eta itsasontziak komenientziazko banderapean erregistratzea ekidin daiteke.

Petronorren erabakigunea Madrilera eramatea kezkagarritzat jo du ELAk

Euskal birfindegiaren etorkizuna aztertu zuten sindikatuak eta Repsol konpainiak

ELA sindikatuko ordezkariak Petronorren akziodun nagusia den Repsol konpainiako zuzendaritzarekin bildu ziren, euskal birfindegiaren etorkizuna aztertzeko. Petronor birfindegi izatetik produkzio unitate soila izatera pasako ote den beldur da sindikatua.

V.P. / **BILBO**

Sindikatuaren iritziz, 800 langilez osatutako plantila daukan euskal birfindegian zenbait aldaketa prestatzen ari dira, eta horien arabera, Euskal Herrian puntako konpainia izatetik Madrilen erabakien menpe egongo litzatekeen produkzio unitatea izatera pasa daiteke, enpresa deuseztaraziz. Petronorrek aurten 14.000 milioi pezetako (778 milioi libera) irabaziak espero ditu.

ELA eta Petronorren % 89ren jabe den Repsoleko Giza Errekurtso zuzendari nagusia den Jesus Fernandez de la Vega joan zen astean bildu ziren. Bertan, sindikatuko ordezkariek Repsol taldeak sortu nahi duen Merkatal Gestio Unitateari (MGU) buruzko iritzia agertu zuten, datorren hitzarmen kolektibo eta enpresaren inbertsioei buruzko kezkaz gain.



Petronorrek 800 langile ditu eta puntako konpainia da Euskal Herrian.

«BESTE ACENOR BAT NAHI EZ»

MGU eratzeak «erabaki zentrua Bilbotik Madrilera pasatzea» ekarriko luke ELAren esanetan. Zentzu honetan, sindikatuak MGU-Petronor berezia sortzea proposatzen du, Bilbon kokatuko zena eta Repsol taldearekin koordinazioan egongo litzatekeena.

ELA erabaki zentruak Euskal Herritik kanpo eramatearen aurka azaldu zen. Horretarako, behar izanez gero bertako erakundeei laguntza eskatzeko prest agertu zen. «Gure kezka agertzeko garaiz gaude, ez dugu beste Acenor bat nahi» adierazi zuten sindikatuko iturriek.

Negoziazio kolektiboari dagokionez, sindikatuak bere kezkak agertu zituen bileran. Negoziazioa Repsol taldearen barruan eginez gero, Petronorrek orain arte izan duen hitzarmen propioa edukitzeko aukera arriskuan egongo litzatekeela adierazi zioten Fernandez de la Vegari ELAko ordezkariek. Sindikatuarentzat, Petronorrek bere autonomia galtzen ari dela frogatzen du baita ere inbertsioen atzerapenak.

Donibane Ziburuko portua 1993 baino lehen berrituko da

M.ESTEBAN / **ZIBURU**

Joan zen asteartean Ziburun, Donibane Lohizune eta Ziburuko portuko ordezkaritzak eraikuntza lanak ikertu zituen datorren urterako. Lanak garrantzitsuak izango dira kaiak birmoldatzeko, arrain saltoki berri bat egiteko, maioristen zentrua berrantolatzeko eta arrantza tresneriaren tokiak eraikitzeko. Xede horiek, arrantzale ordezkari eta Baionako Merkatal eta Industrien eskuetan daude.

«Badakigu datozen bost urteak gogorrak izango direla Donibane eta Ziburuko arrantzaleentzat, batez ere Europako legeengatik» adierazi dio EGUNKARIAri Didier Mundutegik, portuko ordezkaria Merkatal Ganbararentzat.

ARRAINA DESKARGATZEKO TOKIAK

«Hala ere uste dugu inbertsioa egiteko momentua dela orain —gehitu du Mundutegik—, alde batetik ekonomia egoera zaila izan arren arrantzaleek tresna berri on bat ukanen bait dute konpetentzia hobetzeko eta, bestalde, Europako dirulaguntza lortzeko momentua orain da»

Baionako Merkatal Ganbarak Donibane Ziburuko portua kudeatzen du departamentuko Kontseilu Nagusiaren ordez. Arrantzale kofradiak, maioristak eta Merkatal Ganbarak xedea onartu zuten asteartean.

Xedearen arabera, itsasuntzi gelditzeko tokiak birmoldatuak izango dira, pontoiekin. Berrehun eta gehiago metroko pontoiak izango dira 80 itsasuntzientzat. Orain, pontoirik ez dago eta berrantolaketa honen bidez Ziburuko kaia libratuko da arraina deskargatzeko. Arrain saltoki berri bat ere izango da eta barnean, maioristek arraina erosiko dute informatika erabiliz. Bestalde, portuaren eremutik kanpo, maioristen zentru bat eraikiko da eta untzien tresneriaren tokiak izango dira Ziburun.

Orokorki 31,2 milioi libera (561 milioi pezeta) inbertituko da eta azpimarra daiteke inbertsioaren kasik % 25 Europako Komunitatetik etorriko dela. Eraikuntza lanak datorren udan hasiko dira pontoi eta saltokiarentzat. Maioristen zentrua eta tresneriaren tokia beranduago bultzatuko dituzte.



Donibane Lohizuneko portua. MIXEL

Nafarroako langileen «etorkizun beltza» iragarri du LABek

IRUÑEA

«Gure herrialdetik eta herrialdearentzako erabaki ahalmena izateko behar ditugun konpetentziak exigitzeko nafar agintarien borondate faltagatik», etorkizun beltza iragarri die LABek Nafarroako langileei.

Adierazpenok, sindikatuko ordezkariek Angel Luis Rodriguez, Iruñeko Gobernuko Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan sailburuarekin izandako bileraren ondoren azaldu zuen LABek.

LABen iritziz, UPNkoek PSN-PSOEk pasa den legealdian eraman zuen lan politika «ezin txarragoarekin» segiko dute, «hainbeste nafar langile kalean utzi dituen patronala baldintzarik gabe apoiatuz». Nafarroako LABentzat aurrikusten diren krisi espediente guztien aurrean sailburuak berak datorren urterako langabe kopuruak gora egingo duela iragartzea «oso esanguratsua da».

SAILAK ZEHAZTASUNIK EZ

Era berean, berrindustrializazioa bultzatzeko neurriak erabakitzerako orduan Lan Sailaren «zehaztasun falta» salatu zuen sindikatuak.

Ildo horretatik, Nafarroan krisian diren sektoreen gainbehera —kontserbak, siderometalurgia, papergintza— geratzeko eta langilegoaren % 33ri eragiten dion lan egoera eskasarekin bukatzeko biderik ez du ikusten LABek.

Bileratik ateratako ondorio positibo gisa, LABek sailburuaren «elkarrizketarako jarrera irekia» azpimarratu zuen. Jarreraren erakusgarri, «LABek Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeko daukan legitimitatea» onartzen duela Rodriguezek azaldu zuten sindikatuko iturriek. Partaidetza «enpresari, UGT eta CCOOen aldetik kontrako jarrerarik ez balego» gauzatu daitekeela gaineratu zuten LABetik.

KARMELO IKASTOLAK

ADMINISTRARIA BEHAR DU:

Baldintzak:

1.- Euskaldun Alfabetatua Izatea.

2.- Lanpostuarekiko Titulazioa edo Gaitasuna

INTERESATUOK BIDAL EZAZUE CURRICULUMA ZUZENBIDE HONETARA:

M.Menendez Pelayo, 12, 14
48006 BILBO (BIZKAIA)

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Lehiaketaren helburua: Tolosako ipar adarrean gas sarea instalatzeko obra osagarrien egiterapena (1. fasea).

Lizitazio mota: 56.171.693 pta.

Bukatzeko epea: Lau hilabete.

Behin behineko bermea: 561.716 pta. **Behin betiko fidantza:** 2.808.580 pta.

Proposamenak aurkezteko epea: Udal Bulegoetan aurkeztuko dira goizeko 10etatik 1era, urtarrilaren 8a arte (berau barne).

Informazioa: Gehiago lortzeko, Udaletxeko Obrak eta Zerbitzuetako Sailean edo telefono honetan: (943) 65.44.66.

Baldintza Pleguak eta proiektua ezagutzeko "Copitec" dendara zuzendu (Emeterio Arrese kalean) edo eta telefono honetara dei egin: (943) 65.40.28

Tolosa, 1991ko abenduaren 5ean. ALKATEA

Berrehun mila etorkinetik gora Espainiatik kanporatuak izan daitezke

Abenduaren 10ean amaituko zaie beren egoera legeztatzeko jarritako epea

Datorren asteartean amaituko da Espainian bizi diren atzerritarrek beren egoera legeztatzeko Gobernuak jarritako epea. Maiatzetik hona, 120.000 etorkin inguruk lortu dute beren egoera legeztatzea baina beste askok —250.000 erakunde batzuen arabera— Espainiatik kanporatuak izateko mehatxua dute gainean.

IKER ARANBURU / **DONOSTIA**

Etorkinak gauza berria dira Espainiaren historia modernoan, mendeetan zehar espainiarrak izan direlako beste herrialdeetara joaten zirenak. Baina azken bizpahiru hamarkadetan prozesuak alderantzizko joera hartu du. Gaur egun, milaka atzerritarrek igarotzen dituzte Espainiako mugak beraien herrialdeetan lortu ezin ditzaketen bizi baldintzen bila edo erregimen politiko autoritarioetatik ihesi.

Baina Espainia ez da paradisua eta Europako beste herrialde guztietan bezala etorkizun beltza dute kanpotik etorritakoek. Langabezia, krisi ekonomikoa, etxebizitzen falta eta arrazismoari egin behar diete aurre. Horri, Europako Komunitateak mugak ixteko hartu erabakia gehitzen zaio. Europako herrialdeetan «gizartearentzat onargarriak diren baina etorkin gehiago» daudela argudiatzen dute.

HEGOALDEKO MUGEN ZAINDARI

Espainiari hegoaldeko zaindaria izatea egokitu zaio, bera bait da etorkinen sorterri den Magrebeko herrialdeekin muga zuzena duen herrialde bakarra. Hori dela medio, eta nahiz eta Espainian atzerritarren kopurua txikia den —biztanleriaren % 2, Frantzian % 6tik gorakoa den heinean— Gobernuak daudenak legeztatzeko eta gainerakoak botatzeko plangintza prestatu zuen.

Hiru baldintza nagusi bete behar dituzte atzerritarrek Espainiatik kanporatuak izan ez daitezen: maiatzaren 15aren aurretik Espainian zeudela frogatzen duen agiria, pasaportea lege barruan izatea eta lan kontratua edo enpresa bat sortzeko proiektu fidagarria edukitzea.

Azken baldintza hau betetzea da zailena etorkinentzat, asko kalean saldutako bitxi, ordulari, gerriko eta antzeko produktuak saltzetik bizi direlako (paisha, Joxe Mari eta Iñaki izenez ezagunagoak) eta beste batzuk arautu gabeko lanetan dihardutelako. Zailtasun hauek direla eta, etorkinen elkarteak (AEME) legeztatze epea luzatzea eskatu dio etengabe Gobernuari. Horrela ez izatekotan, AEMEk Espainian bizi diren atzerritar guztiak mobilizatuko dituela iragarri du.

Hala ere, ez da hor bukatzen etorkinen arazoa, hemendik urtera edo urte t'erdira lan kontratua amaitzen zaienean orain kanporatutakoen arrisku bera daukate eta. Horren irtenbidea, Gobernuak egoitza baimenak luzatzeko konpromezua hartzea da eta batez ere, Atzerritarren Legea aldatzea. Lege honek oztopo handiak jartzen dizkie Espainian bizi nahi duten atzerritarrei, lan baimenak langabezi merkatuaren beharren arabera ematea finkatzen duelako.

Espainian bizi diren etorkinen erdia Magrebeko herrialdeetatik dator. LUIS FERNANDEZ

Marokko	44.392
Argentina	5.014
Dominikar Errepublika	4.717
Senegal	4.138
Txina	3.653
Peru	3.472
Polonia	2.615
Filipinak	2.596
Beste herrialdeak	25.743

LAN KONTRATU FALTSUAK

«Erregularizazio prozesua» izenez ezagutzen dena hasi zenetik, ez dira falta izan atzerritarren larrialdien kontura aberasten saiatu direnak lan kontratu edo pasaporte faltsuak diru truke eskaintzen. Ustelkeriak Marokkok Madrilen eta Barcelonan dituen kontsulatuak busti ditu ere bai. Etorkinak 100.000 pezeta ordaintzera iritsi dira zenbait kasutan, pasaportea lege barruan jartzeko; 15.000 pezeta lan kontratu faltsuen truke eta beste hainbat maiatzaren 15aren aurretik Espainian zeudela frogatu nahi duten eskutitz edo mediku agiri faltsuak izatearren.

> Hiru baldintza nagusi bete behar dituzte atzerritarrek Espainiatik kanporatuak izan ez daitezen: maiatzaren 15a aurretik Espainian zeudela frogatzen duen agiria, pasaportea lege barruan izatea eta lan kontratua edo enpresa bat sortzeko proiektu fidagarria edukitzea.

Maiatzaren aurretik Espainian zeudenek beren aukera izan badute ere, ez da berdin gertatzen ordutik hona etortzen saiatu direnekin. Iaz 80.000 etorkin ilegal —marokkiarrak batez ere— atzeman zituen Poliziak Gibraltarreko itsasartea igarotzen ari zirela edo jadanik lurreratu zirela. Aurten kopurua handitu daiteke, udan zehar batez ere egunero hogeitamarren bat atxilotu dituztelako Tarifa inguruan batipat.

MARROKKIARRAK BATEZ ERE

Espainian bizi diren legez kanpoko atzerritar gehienak marokkiarrak dira eta herrialde hauetakoak dira muga zeharkatzen gehien saiatzen direnak. Marokkiarrak krisi ekonomiko eta Hassan IIaren erregimen politikotik ihes datoz. Krisi ekonomikoaren arrazoitariko bat hazkunde demografikoa izan da. Egoera are okerrago izan daiteke hemendik urte gutxira, Magreb eta Mediterraneo hegoaldeko beste herrialdeetan bezala —Arjelia, Tunisia, Egipto, Turkia—, Marokkon 15 urtetik beherakoa da biztanleriaren % 40. Gazte hauek lan merkatura iristen direnean ez da lan nahikoa izango eta askok Europara emigratzeko erabakia hartuko dute.

Auzibideak bidera daitezke TBn arrazakeriak esan zituztenen aurka

A.S. / **BAIONA**

Philippe Marchand, Frantziako Barne ministroak Henri Nallet justizia ministroari eskatu dio auzibideak bidera ditzan joan zen astearte gauean Antenne 2 frantses telebista katean plazaratua izan zen emanaldi baten ondoren. «Mardi soir» izeneko saio honetara mutur eskuineko talde batzuen ordezkariak gomitatuak izan ziren eta hauei aurre egiteko hor zeuden ere PSko diputatu bat eta giza eskubideen ligako leehendakaria.

Emanaldi honetan mintzatu egin ziren bi pertsonen hitzak ditu auzibidegai hartu frantziar barne ministroak, nahiz eta saio guztian sekulako arrazakeria adierazpenak egon ziren. Claude Cornilleau PFNE (Frantzia eta Europako Alderdi Nazionalista) nazismoaren asmoetatik hurbil azaltzen den talde baten buruzagiak, besteak beste, erran zuenez: «inmigratuen munduan murgiltzen den gaiztagintzak erasotzen gaitu egunero». Bestalde, erreportaia batean agertzen zen skinhead batek zioenez: «Nik nahi dut Europa xuri bat, komunista, judio eta araberik gabe. Gas ganbarak ? Izan ziren eta nahiko ongi da; hauekin bide eraginkor bat atzemana izan zen».

Mutur eskuineko kide horien hitzek eskuin gogorreko norbaiten harridura sortzea lortu zuten ere.

Izan ere, Yvon Briant CNI (Independienteen Zentru Nazionala) alderdiko agintariak emanaldiaren arduradunari aditzera eman zuenez zuzenean: «demokraziaren arauak zangopilatzen dituztenei, demokraziak eskentzen dituen adiarazbideak ematen dizkiezue».

GALIZIAren autodeterminazioa eskatzen zuten milaka lagun bildu ziren atzo Compostelan BNGren deialdiari jarraituz. Bloqueko zinegotzi, alkate eta parlamentariez gain, Galiziaren independentzia eskatzen zuten alderdi txikietako kideak ere izan ziren manifestazioan. 1978ko Konstituzioaren hamahirugarren urteurrena betetzen zen egun berean, BNGk aldaketa egitea eskatu zuen, bere baitan nazioen autodeterminazio eskubidea sar dadila eskatuz.

Langabezia segurantzako ituna onartu dute sindikatu gehienek

CGT eta CGC sindikatuek ez diote beren onespena emanen

CFDT eta FO langile sindikatuek ontzat hartu zuten ostegunean langabezia segurantzarako hitzarmena enpresarial elkarteekin izenpetzea. CFTC sindikatuak ere bere oniritzia jakitera eman behar luke datozen egunetan baina CGTkoek aldiz, iaz bezala, ezetz borobila eman diote komenio honi.

A.S. / **BAIONA**

Hala ere, sindikatu gehienak alde jarri direnez gero, hitzarmen hori obratua izango da 1992. urte bukaeraraino eta epe horretan 8.000 eta 10.000 milioi liberaren bitarteko (144.000 eta 180.000 milioi pezeta) diru kopurua sartuko du UNEDIC langabezia segurantzako kutxan.

Diru multzo horretara heltzeko, enpresari eta baita langileen kotizazioak zertxobait igoko dira. Bestalde, berrogeitamar urtetik gorako langileak kanporatzen dituzten enpresek UNEDIC kutxari konpentsazio bat eman beharko diote. Aurretik ere neurri hau bete izan daDelalande deritzan araudi bati esker. Honen arabera, berrogeitamabost urtetik gorako langileak kanporatzen dituen enpresa batek, hiru hilabeteko soldaten diru kopurua eman behar dio langabezia segurantzako kutxari. Datorren urtean gauzatuko den komenioak, beraz, neurri horren betetzea zabalduko du, batez ere adinaren muga jaitsiz.

Hain zuen ere, langabezian gertatzen diren pertsona adinekoen egoera hurbilagotik jarraituko du segurantza kutxak. Bakoitzaren kasua lau hilabetero ikertua izango da eta lan berri baten bilatzera bultzatuko dira. Izan ere, erantzunik ez ematean edota formazio proposamenak ukatzean, langabeziako saria jasotzen duenak dirulaguntza hori gal dezake.

Larderiazko neurri horiek ziren, besteak beste, ezinonetsizkoak CGT langile sindikatuarentzat eta puntu berezi honetan berarekin bat egin du CGC goi kargudunen elkarteak, bi horiek bait dira 1992. urteko langabezia segurantza hitzarmena onartuko ez dutenak.

Zortzi mila miloi libera izango dituzte langabetuek Segurantza Kutxan.

Hiru milioi langabetuetara hurbiltzen

990 urtean langabeziako prestazioak 109.800 milioi liberako diru kopuru batetara iritsi ziren (1.977.400 milioi pezeta) Frantzian. Gogoraratzen ahal litzatekeenez, joan zen martxoan plazaratuak izan ziren zenbakien arabera, 2.204.000 pertsona zeuden langabetuen zerrendetan agertzen (1.245.00 emakumezko eta 959.000 gizonezko).

Alabaina, azken hilabete guztiotan egoera larriagotu egin da, azken azterketen arabera, 264.000 pertsonak beren izena eman bait zuten urte hasieratik gero. Honela, Frantzia hiru milio langatuen kopurutik hurbiltzen ari da eta industriadun herri handienen artean langabezia maila goreneko hirugarren lekutik bigarrenera pasa daiteke.

CCOOk greba orokorra egingo du Abril txostena aplikatzen bada

MADRIL

CCOOk greba orokorra antolatu dezake Espainian Gizarte Segurantzaren erreforma planteatzen duen 'Abril txostena' indarrean jartzen bada, atzo Antonio Gutierrez sindikatuko idazkari nagusiak prentsaurrekoan iragarri zuenez. «Jubilatu eta pentsionisten prestakuntzak kaltetu eta osasun publikoa pribatizatzen duen edozein erreforma, nahikoa izango da greba orokorrerako deialdia egiteko» esan zuen Gutierrezek.

CCOO sindikatuko buruak hitz gogorrak izan zituen CEOE patronalarentzat, «azken bost urteotako negoziazio kolektiboa Cuevas jaunaren nahien gainetik geratzen denez, bere burua zalantzan jartzen duelako».

GESTIO TXOSTENAREN ONARPENA

CCOOren V kongresuan parte hartzen ari diren ordezkariek baietza eman zioten Antonio Gutierrezen gestio txostenari. Gutierrezek botoen % 89 inguru eskuratu zuen eta 27 ordezkarik besterik ez zuten errefusatu sindikatuak azken urteotan egindako politikaren txosten ofiziala. Izquierda Sindical ez onartutako korronteko kideak —Izquierda Alternativaren partaide den LCR ohiaren aldekoak— eta PCPEkoak abstenitu egin ziren. Abstentzioaren arrazoia zera izan da «Gutierrezek ez duela Kantauri aldeari elkartasuna adierazteko greba orokorrerako deialdirik egin» azaldu zuen Joaquin Nieto korronte honetako buru eta Ingurugiro arduradun hautatu berriak. Ezezko boto gehienak, zuzendaritzan ordezkotasun handiagoa eskatzen zuten emakumeenak izan ziren.

Gutierrez berari jaurtitako kritika guztiak eta egindako proposamenak bere gain hartzen zituela adierazi zuen. Idazkari nagusia kongresu honetan oposizio lana egiten ari diren Izquierda Sindicaleko kideei zuzendu zitzaien batez ere bere hitzaldian. «CCOOn gustora egotea» eskatu zien Gutierrezek eta bere izenarekin bat egiten zuela ziurtatu ere, «herri honetan CCOO delako ezker sindikala». Espainiako bigarren sindikatuko buruak ukatu egin zuen Morenorekin dituen ezadostasunak «langileek ulertzen ez dituzten aristokraten arteko borrokak direnik» Kataluniako idazkari nagusiak leporatu zion moduan.

Antonio Gutierrezen txostenak kongresukideen onespena jaso zuen. EFE

Kargutik bota dute Huescako espetxeko zuzendaria

HUESCA

Bi gaizkile arriskutsuri ihes egiten utzi zien Huescako espetxeko zuzendaria kargutik kendu zuen atzo Gartzeletako Idazkaritza Nagusiak. Azken erakunde honen arabera, «hasiera hasieratik Jose Otalek ez zuen onez eraman bi gaizkileen motin saioa eta ondorioz ihes egin zuten gartzelatik Jesus Castillo eta Carlos Manuel Estevezek». Beste gauza batzuren artean, gaizkileei bere kotxea uztea leporatu dio Gartzeletako Idazkaritzak Jose Otali. Ordutik hona desagerturik dira gaizkileak, Goardia Zibilak beren arrastoa Katalunian galdu bait zuen.

Arraza txuria hobea dela uste du ikasle eta irakasleen % 40k

DONOSTIA

Iritzi arrazistak oso hedatuta daude Espainiako ikasle eta irakasle ez unibertsitarietan. Tomas Calvo Antropologia katedratikoak idatzitako 'El racismo que viene' ('Datorren arrazismoa') liburuak jakitera ematen duen inkesta batek dioenez, ikasle ez unibertsitarien % 46 eta irakasleen % 33 arraza txuria gainontzekoak baino hobea dela uste du.

Octavio Granado senadore sozialistak aurkeztu zituen Senatuan inkesta honen datuak, hezkuntza konpetentziak dituzten elkarte autonomikoek arrazismoaren aurkako kanpaina has dezaten antolatutako debatean. Mila bostehun ikasle eta irakasleen artean egindako inkestak erakusten duenez, galdeketatuen % 40k uste du ez dela komenigarria «beste arraza edo erlijioko pertsona batekin ezkontzea edota beraiekin harreman sakona izatea». Goi Ganbaran bildutako senadore apurrek aho batez onartu zuten ikastetxeetan arrazismoaren aurkako kanpaina. «Programa honen helburua jarrera arrazistak baztertzea da» dio mozioak, «arrazismoa, elkartasunik eza eta beste etniako jende edo gaixoen diskriminazioa amaitu dadin».

Jose Antonio Torrontegi EAJko ordezkariak arrazakeria baztertzeko programa gizarte osora zabaltzea proposatu zuen. Senadoreek honetan ere, aho batez eman zioten baietza jelkidearen eskaerari. «Guk inork baino gehiago pairatu dugu besteen bazterketa» esan zuen Torrontegik eta Eusko Jaurlaritzak «haur ijitoen integraziorako aurrera daraman politika» azpimarratu zuen. Horren erakusgarri, Gasteizko Gobernuak hezkuntza erregimen orokorrean integraturik dituen 250 haur ijito daudela aipatu zuen.

BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

OLENTZERO 91

Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo Sailak jakinerazten du Olentzeroa kantatu eta antzezteko asmoa duten bilbotar taldeek dirulaguntza eskatu ahal izateko ondorengo baldintzak bete behar dituztela.

Interesaturik daudenek eskari-orria bete beharko dute Udaletxeko Euskara Sekzioan (1. solairua) eta Erregistro Orokorretik sartuko, abenduaren 9tik 13ra, eta bertan ondorengo datuak zehaztu beharko dituzte: ordua, ibilbidea, taldeko kideen kopurua eta bestelako bereiztasunak, baleude. Aipatutako eskari-orrian espreski adieraziko da Euskara Sekziorako dela.

Denek jakin dezaten adierazten da.

Bilbo, 1991ko abenduaren 5ean

KULTURA ETA TURISMO SAILEKO ORDEZKARIA

Armada Federalak berriro egin dio eraso Dubrovnik hiriari

Herenegun behin-betiko suetena sinatu zuten bertoko agintariek militarrekin

Gutxienez lagun bat hil zen eta beste zazpi zauritu Armada Federalak Dubrovnik hiri kroaziarrari eginiko erasoetan. 23 egunez borrokarik izan ez den 'Ertaroko Ragusa-n' Jugoslaviako Armada Federalak orain arteko bonbardaketarik gogorrena egin duela adierazi zuen atzo Kroazia Irratiak. Kroaziako beste hiri batzuetan ere borrokak izan ziren herenegun gauerdian hasi ziren enfrentamenduetan.

ZAGREB

Dubrovnik Irratiaren arabera, dominikanoen monastegi bateko sabaia serioski kaltetu dute atzoko bonbardaketek, eliza ortodoxo serbiar bat ere bai, zaharren egoitz bat eta Erdi Aroko harresien barneko beste eraikuntza batzuk ere bai. Hiri guztian zehar ke beltz handia altxatzen zen atzo.

Herenegun agintari militar serbiarrek eta Dubrovnikeko agintariek eginiko negoziketetan, joan den azaroaren 13an ezarri zen behin-behineko suetena betirako ezartzeko akordiora iritsi ziren, baina akordioa sinatu eta ordu batzuetara hautsi zuten akordioa militar jugoslaviarrek.

Osijek hirian ere, Eslavonia eskualde kroaziarreko hiriburuan, enfrentamenduek segitzen dute, eta herenegun 14 lagunek galdu zuten bizia eta beste 70 zauritu ziren. Bertoko alkateak, Zlatko Kramaric-ek atzo gezurtatu zituen Eslavoniako buruzagi serbiarrek esandakoak. Hauek ziotenez, Osijekeko alkatea prest zegoen hiriaren errendizioa eskaintzeko Armada Federalari. Bernard Cushner-ek, Arazo Humanitarioetako ministro frantziarrak atzo adierazi zuen «onartezina dela gutxiengoak babestea gizakien biziekin akabatuz». Cushner Osijeken zegoen atzo bertoko egoeraz informatzeko. Eslavoniako hiriburuan 160.000 lagun bizi dira eta horietatik % 20 serbiarrak dira, Armada Federalak eta gerrilari serbiarrek «agintari kroaziar faxistengandik babesten dituztenak».

Osijek eta Dubrovniken ez ezik, Sisak, Gospic, Zadar, eta Ston eskualde inguruan ere enfrentamenduak izan ziren, eta Sisaken, Aire Armada Federalak bertoko industri gune nagusia bonbardatu zuen.



Azaroaren 20an bezala, kea zerion atzo Dubrovniki.

Holokaustoa

Datu ofizialek 10.000 hildakoez hitzegiten badute ere Kroaziarekiko Elkartasun Komiteak bikoiztu egin du kopuru hori. Atzo bertan eman zituen ezagutzera erakunde horrek Vienan. Komite horren arabera 20.000tik gora dira hildakoak eta horietako gehienak zibilak dira. Armada serbiarrak «helburu zibilak ditu bere plangintza militarretan eta horien aurka egiten du tiro» adierazi zuten Komite horretako ordezkariek Austriako hiriburuan.

Kroaziako lurraldearen % 60 gerraren ondorioak ari da jasaten eta 10.000 kroaziar inguru Serbiara eraman dituzte behartuta. Errefuxiatuen kopuru ofiziala 550.000koa da, Komiteko iturrien arabera, Kroaziako industriaren % 60 birrindu du serbiarren esku dagoen Armada Federalak. Errefuxiatuei dagokienez, Kroaziarekiko Elkartasun Komiteko ordezkariek iturri ofizialek baino informazio gehiago eta zehatzagoa ematen dute. Horien kontuen arabera, milioi erditik gora ihes egin du bere etxetik, Kroaziako biztanlegoaren % 11,5, hain zuzen. Errefuxiatuetako 400.000 inguru kroaziarrak dira. 350.000 inguru lagunek, gehienak haurrak, hoteletan eta eraikuntza publikoetan aurkitu dute babesa beren etxeak birrindurik geratu ondoren.



Muamar Gadafi.

EEBBen ustez Gadafik denbora galdu nahi du bi libiarrak atxilotuta

WASHINGTON

Libiako agintariek ustez Pan Am konpainiako hegazkina lehertarazi zuten bi libiarrak «denbora nahita galtzeko» atxilotu dituztela azaldu du Estatu Batuetako Gobernuak. Margaret Tutwiler EEBBetako Estatu Departamentuko bozeramaleak esan zuenez, bi funtzionari libiarrak Libiako epaitegi batean epaitzea «erokeria» da. Libiako Gobernuak bi funtzionarien atxiloketaren berri eman zuenean, bertako legeek estradizioa debekatu egiten dutela eta bertan epaituko dituztela esan zuten.

Washingtonek bi funtzionarien estradizioa lortzeko ez du erabat baztertu Libiari eraso militarra egiteko posibilitatea. Muamar Gadafi lehendakari libiarrak, bere aldetik, «IRA eta beste askapenerako mugimendu nazionalekin» zituen harremanak hautsi dituela adierazi zuen 'Al Ahram' egunkari egiptoarrean. Estatu Batuek 1986. urtean Libiako hiriburua bonbardatu zuteneko atentatuen arduraduna Gadafi zela esanez. Pan Am konpainiako hegazkina 1988. urtean Eskozian lehertu zenean lehen susmoak Libiara zuzendu zituzten Estatu Batua eta Erresuma Batuko informazio zerbitzuek.

Errusia, Bielorrusia eta Ukrainiako lehendakariak gaur bilduko dira

MOSKU

Boris Ieltsin, Stanislav Xuxkevitx eta Leoniod Kravtxuk, Errusia, Bielorrusia eta Ukrainiako lehendakariak gaur bilduko dira hiru errepublikek aurrerantzean izango dituzten harreman ekonomikoak eta politikoak eztabaidatzeko. Dena den, hiru lehendakarien artean ezadostasun ugari dago eta zaila izango da akordiorik lortzea.

Ieltsinek hiru errepubliken artean ardatz eslaviarra osatu nahi du, SESBeko gainontzeko errepublikak alde batera utziz. Errusiako lehendakariak, ordea, garai bateko zentralismoa berpiztu nahi du eta Mosku ardatzaren buru izatea proposatu du. Bielorrusiako agintariek prest dau- de Errusiarekin harremanak sendotzeko.

Minskeko gailurrean hiru lehendakariek errepubliken arteko etorkizuneko harremanen oinarriak finkatuko dituzte, baina dituzten desadostasunak hain dira handiak ezen akordiorik gabe amai bait daiteke.

Ukrainiak, berriz, ez du Moskuren kontrolpean jarraitu nahi eta harremanak izatekotan errepublika guztiak berdinak izan behar dutela uste du. Izan ere, Kravtxuk-ek garbi utzi du bere errepublikak aldebiko akordioak baino ez dituela sinatuko, beste estatu subirano guztiak egiten duten moduan.

Italiako Gobernuak, bestalde, Ukrainiaren independentzia onartuko duela azaldu zuen Gianni De Michelis Atzerri ministro italiarrak. Michelisek adierazi zuenez, Soviet Batasuna ez da existitzen. Era berean Atzerri ministroaren ustez, Europak agintari ukrainiarrekin gutxiengoen eskubideetaz, mugetaz eta arma atomikoen kontrol neurrietaz hitzegin behar du.

Karabaj Garaian, Azerbaidjanen barruan dagoen armeniarrez betetako eskualde autonomoan independentzia erreferenduma abenduaren 10ean egitea erabaki du bertako Gobernuak. Armeniar eta azerien artean gerra zibila dago gaur egun eskualde horren kontrola lortzeko.

Ivan Dratxek, Rukh mugimendu nazionalistako buruzagia.

Palestinarren ustez Israelek bere egutegia inposatu nahi du

WASHINGTON

Washingtonen, bigarren faseko bilerak direla eta bildu diren ordezkaritza arabiarrak eta, batez ere, palestinarra ez daude prest Israelek elkarrizketak egiteko proposatu duen egutegia onartzeko. Ordezkaritza palestinarrak Estatu Batuetako Gobernuari bilerak hasteko eguna erabaki dezan eskatu dion bitartean, israeldarrak negoziaketak egiteko egunak hautatzeko eskubiderik ez dutela azaldu zuten. Israeldarrek abenduaren bederatzian bildu nahi zuten ordezkaritza jordaniar-palestinarrarekin. Egun horretan Intifadaren laugarren urtemuga betetzen da eta palestinarrak «egun deegokia» dela jakinarazi dute.

Ordezkaritza israeldarra bihar helduko da Estatu Batuetako hiriburura. Arabiarrek jadanik bi egun eman dituzte Washingtonen israeldarren zain. Arabiarrek esan zutenez, EEBB eta SESBek Israelek bilerak sabotea ez ditzan, ahal duten esfortzu guztiak egin beharrean daude. «Nazioarteko komunitateak bere betebeharrak ahazten baditu, israeldarrek nahi dutena egingo dute», esan zuen Hanan Ashrawi ordezkaritza palestinarreko bozeramaleak.

Margaret Tutwiler EEBBetako Estatu Departamentuko bozeramaleak esan zuenez, bileraren antolatzaileak ahalegin guztiak egiten ari dira arabiarrak eta israeldarrak mahai berean hitzegitera eser daitezen. «Alde biak bilera berri bat egiteko ados jarri daitezen lan egiten ari gara», esan zuen Tutwilerrek.

ISRAELEN BALDINTZA BERRIAK

Israeldarrak Washingtonera heldu aurretik zailtasun berriak jartzen hasi dira. Tel Aviv-eko Gobernuak, Eliakim Rubinstein Gobernuko idazkariaren bidez, Saeb Erakat ordezkaritza palestinarrean jarraitzen badu, ez direla hitzegitera azalduko mehatsu egin zuen. Erakatek CNN telebista kate estatubatuarrean esan zuenez, Palestinaren Askapenerako Erakundea izan zen bera ordezkaritza palestinarrean sartzeko erabakia hartu zuena. Era berean, israeldarrek gogor protestatu dute Gobernu estatubatuarraren aurrean, Hanaia eta Tiasir Aruri deportatu palestinarrei bisadoak eskaini dizkietelako.



GAUR betetzen da Pearl Harbor-eko bonbardaketaren 50. urtemuga. 1941. urteko abenduaren 7an Isoroku Yamamoto almirante ospetsuak inoiz Estatu Batuetako base batek izan duen eraso gogorrena burutu zuen. Yamamotok zuzendutako flotak *Arizona, Maryland, Oklahoma, Utah* eta *California* akorazatuak hondoratu zituen Hawaii irletako basean. Guztira 2.434 estatubatuar hil ziren eta Franklin Delano Roosveltek, garai hartan EEBBetako lehendakariak, Inperio japoniarri berehala gerra deklaratzea erabaki zuen. George Bush, gaur egungo lehendakariak abenduaren zazpia egun nazionala duela gutxi deklaratu du Pearl Harborren hildakoen omenez.

Maastricht: Europa batasun politikoaren aurrean

Alemaniak Europaren eraikuntzan egitura federala proposatuko du

Berlinek bere diruarekin batasun politikoa finantzatzeko asmoa du

Alemaniaren inguruan beti egon dira azken berrogeitahamar urteetan zalantzak eta beldurrak. Orain, ordea, alemaniarrek beren hegemonia ez dute zabaldu nahi, Europa eraiki nahi dute. Beraiek ere beldur dira etorkizunaz, batez ere modu ekonomikoan eta politikoan bateratutako Europa ez bada gauzatzen. Beldur dira, zeren, Europaren eraikuntza lur jota geratzen bada alemaniarrak Alemaniaren garapenaz baino ez dira kezkatuko.

BERLIN

Azken 200 urteetan gertatu den bezala nazionalismo alemaniarra edozein momentuan esna daiteke berriro, batez ere Europaren eraikuntzak ez badu alemaniarrengan inolako ilusiorik eragiten. Hau dela eta, Helmut Kohl kantzilerrak Europaren batasun ekonomikoa, eta batez ere, politikoa bultzatu nahi du. Kohlek Maastrichteko gailurra Europaren eraikuntzarako erabakiorra izan zitekeela uste bazuen ere, hamabi partaideak beste gailur bateko oinarrizko puntuak eztabaidatzera mugatuko direla konturatu da. Kohlek alde batera utzi beharko du Europako Estatu Batuen ametsa; Maastrichten atzerapausuak galerazteko neurriak lortzen baditu, kantzilerra gustora gera daiteke.

BERLINETIK EGINDAKO PROPOSAMENA

Alemaniak, Europa bateratua eraikitzeko sakrifizio ugari egiteko prest dagoela behin eta berriro azaldu du. Alemania Europaren barnean potentzia ekonomiko modura begiratua izan da. Europaren batasuna lortzeko diru alemaniarra behar beharrezkoa zen. Politikari zegokionean, ordea, alemaniarrak beti alde batera geratzen ziren. Eta Alemania nekatu da dirua jarri eta sakrifizio horren truke ezer ez lortzeaz. Alemaniarrak ez daude prest batasun ekonomikoa aurrera eramateko, batasun politikoa bazterrean uzten bada.



Helmut Kohl da estatu eta gobernuburu europarretarik «europeistena».

Berlinek garbi utzi du bera prest dagoela batasun ekonomikoak nazio aberatsei exigitzen dien esfortzuak egiteko. Espainia edo Irlandak EK-ko egiturazko fondoak zabaltzeko egin duten proposamena alemaniarrek onartu egingo lukete. Baina, argi dago esfortzu horren truke alemaniarren batasun politikoaren hitzarmena sinatuta ikusi nahi dutela.

BATASUN POLITIKOA NAHITAEZKOA

Alemaniak bere moneta eta bere banku zentrala erakunde komunitarioen esku uzteko prest dago. Egun Alemaniako moneta nazio honek eman dezakeen ondasun baliotsuena da eta bere ekonomia Europaren esku geratuko da osorik. Horren truke Alemaniarrek erregioen Europa osatu nahi dute, Europa Alemaniaren egitura bera kopiatuz eraiki. Europako Komisioa, botere exekutibo europarra, Brusseleko Legebiltzarrak hautatu beharko luke eta banku zentral eta independiente bakarra osatuko litzateke Europarako. Legelbiltzar europarrari botere gehiago eman eta NATO erabat baztertu gabe, Europako defentsa sistema indartu behar dela ere uste dute.

I.MARTIARENA

IGOAKO KONTZEJUA (NAFARROA)

ESKOLA IZANDAKO ERAIKINAREN SALMENTA

Kontzeju honek, enkante publikoan eta plegu itxiaren bidez, lehen solairuan etxebizitza duen ESKOLA salgai jarri du. Enkantearen irteera-prezioa BOST MILIOITAKOA DA.

Proposamenak, kartazal itxian, abenduaren 13ko 13.00 orduak baino lehen aurkeztu beharko dira Kontzeju honetan bertan; barnean, proposamenarekin batera, enkantearen irteera-prezioaren %2a ordaindu izanaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

Proposamenen irekiera abenduaren 14ko 12.00 orduetan egingo da. Baldintza plegua Kontzejuko Idazkaritzan dago interesatuen esku. Tfna.: (948) 50.30.42.

Igoa, 1991ko abenduaren 5ean. ALKATEA

RENAULT
Bizitzeko plazerra

RENAULT
BIZITZEKO
PLAZERRA

ALBERDI KOMERTZIALA. S. A.
Armentia GASTEIZ
Tfnoa.: 130 300 (945)

Nelson Mandela.

Mandelak Castro goraipatu zuen Washingtonen

WASHINGTON

Nelson Mandela Afrikako Kongresu Nazionaleko liderrak Fidel Castro estatuburu cubatarra goraipatu zuen Washingtonen. Mandelak esan zuenez, Hego Afrikako apartheid sistemaren kontra borrokatu zutenean Castrok laguntza osoa eskaini zien. «Printzipioak dituen gizon batek ez ditu inoiz bere lagunak ahazten», esan zuen Mandelak Castrori buruz hitzegiterakoan.

Castrok eskainitako laguntza gogoz eskertu zuen Mandelak kazetari estatubatuarren aurrean. «Cubara joan ginenean ate guztiak irekita aurkitu genituen eta Castrok borroka armatua antolatzeko medio guztiak eskaini zizkigun». Mandelak, Estatu Batuetan lider cubatarrak duen irudia kontutan hartuta, Castro defendatzeko arrazoiak zituela ziurtatu zuen. «Lagundu zigun gizon bat ezin dugu orain gaitzetsi. Nola kondenatu eta traizionatuko dugu mendebaldeko nazioak gure alde jarri ziren arte laguntza eskaini zigun lagun bakarra», esan zuen Mandelak. «Mesedez ez eskatu gure printzipio moralak zikinduko lituzkeen gauza bat egitea», zion Hego Afrikako liderrak. Mandelak Washingtonen dagoen ordezkaritza palestinarrarekin biltzeko asmoa duela ere jakitera eman zuen.

Lehendakaritzarako hauteskundeen aurrekanpainari ekin dio Bushek

Lehendakari iparramerikarra ziur dago berriro hautatua izango dela

George Bush lehendakari estatubatuarrak herenegun ekin zion Estatu Batuetako Lehendakaritzarako hauteskundeen aurrekanpainari, kanpainarako taldea osatu bait zuen. Bere Gobernuan ere zenbait aldaketa egin zituen, askoren ustez irudi aldaketa emateko berregituraketa izan dena. Dena den, berrautapenerako kanpainari ofizialki urtarrilean ekingo diola adierazi zuen Bushek.

WASHINGTON

1992ko azaroan izango dira hauteskundeak eta egungo lehendakari iparramerikarra ziur dago berriro hautatua izango dela «lehendakari ona naizelako». Hil honetako lehendabiziko prentsaurrekoan, Bushek iragarri zuen Samuel Skinner, orain arteko Garraio idazkaria izango dela bere kabineteko buruzagi berria, eta kargu horretan aste honetan bertan dimisioa aurkeztu zuen John Sununu polemikoa ordezkatuko du.

Hauteskunde kanpainarako, berriz, lehendakari iparramerikarrak bere adiskide min eta kabineteko Komertzio idazkaria, Robert Mosbacher, izendatu du buruzagi modura. Kanpainarako taldea Robert Teeter inkestagile aditua, Fred Malek enpresaria eta Charles Black kontseilari politikoarekin osatu du Bushek.

Talde horrek egingo du Bushen berrautapen kanpainaren estrategia eta Dan Quayle lehendakariordearekin harreman zuzena izango du. Ohizkoa denez, lehendakariaren Gabineteko buruzagiak kanpainako koordinazio lanak egingo ditu, eta horregatik adierazi dute adituek Bushek Skinner izendatu duela Sununuren ordez kabineteburu.

Skinner, gizon pragmatikotzat eta gai nazionalen jakituntzat jotzen dute denek eta Kongresuarekin negoziatzaile abilaren ospea du. Besteak beste, Bushek hainbeste traba izan dituen garraio eta transitoaren gaietan lege garrantzitsuak aurrera eramatea lortu du. Orain, lehendakari iparramerikarraren irudia hobetzen saiatuko da. Aspaldi honetan, Bushen popularitatea asko jaitsi da, EEBBek bizi duten krisi ekonomikoari behar den bezala erantzuten jakin ez duelako. Lehendakari iparramerikarrak Lehendakaritzarako hautagai aurkeztu aurretik, ordea, Alderdi Errepublikarreko hautagaien artean lehiatu beharko du. Horien artean dago David Duke, Ku Klux Klan taldeko buruzagi ohia eta duela aste batzuk Louissianako gobernadore izateko hauteskundeetan aurkeztu zena.



Bushek uste du berriro hautatua izango dela «lehendakari ona naizelako».

✓ Hauteskunde kanpainarako lehendakari iparramerikarrak bere adiskide min eta kabineteko Komertzio idazkaria, Robert Mosbacher, izendatu du buruzagi.

Marokkotik Saharara ez da jadanik etorkin gehiago joaten

AIUN

Saharako autodeterminazio erreferenduma dela eta Marokkotik alde egiten duten etorkin andana eten egin da ia erabat, Nazio Batuetako begiraleek diotenez. Orain arte Saharako autodeterminazio erreferendumean parte hartzeko eskubidea eskatzen duten 30.000 lagun joan dira Marokkoko hegoaldetik Saharara.

Marokkoko Gobernua eta Nazio Batuak aurrez aurre daude erreferendumean erabili behar diren botoemale zerrendak direla eta. Nazio Batuek espainiarrek 1974. urtean egindako zentsua erabili nahi dute, eta Marokkok, berriz, zentsu honetan beste 50.000 lagun sartu nahi ditu. Dris Basri Marokkoko Barne ministroak esan duenez, erreferendumean botoa emateko ezarri diren baldintzak ez dira bertako jendearen jatorria kontutan edukita ezarri.

Marokkoko Barne ministroak Nazio Batuak eta Marokkoren arteko harremanak ez aurrera eta ez atzera ez dutela egiten aitortu du. Hau dela eta, Hasan II erregeak esan zuen bezala, Saharako autodeterminazio erreferenduma ezin izango da 1992. urteko urtarrilean egin.

LABURREAN

EEBBetako kostazainek 8.000 haitiar harrapatu dituzte

Estatu Batuetako kostazainek 1991. urtean 8.173 haitiar harrapatu dituzte Haititik ihes egiten saiatzen zirenean. Iturri estatubatuarrek adierazi dutenez, Guantanamoko basean 4.500 haitiar daude Haitira noiz bidaliko zain. Clyde Atkins epaile estatubatuarrak haitiarrak aberriratzeko debekatu badu ere, presio ugari jasotzen ari da haitiarrak bidaltzeko agindua eman dezan. Washingtoneko Justizia Departamenduak Atkins epailearen debekuak haitiarrei Estatu Batuetara joatera bultzatzen dietela azaldu zuen ●

Aljeriak 510 milioi dolar jasoko ditu Brusseletik

Aljeriako Gobernuak 510 milioi dolar jasoko ditu Europako Komunitatetik kanpo merkataritzan duen defizita zuzendu ahal izateko. Laguntza horren lehen zatia, 315 milioi dolar, Aljeriak berehala jasoko du eta gainontzeko dirua sei hilabete barru eskuratu ahal izango dute Aljerreko agintariek. Aljeriari eskainitako dirulaguntza hau Europako Komunitatea eta Afrikako iparraldeko nazioen arteko kooperazio programaren barruan dago ●

Guatemalara 11.000 errefuxiatu itzuliko dira

Guatemalako Errefuxiatuen Babeserako Erakundeak adierazi duenez, 1992. urtean 11.000 errefuxiatu itzuliko dira Guatemalara. Errefuxiatu horiek Guatemalako gerra zibila zela eta Mexicora ihes egin zuten eta han egon dira orain arte. Errefuxiatuen aldeko erakundearen esanetan, errefuxiatuak nekazariak dira eta askok Gobernuak osatutako autobabeserako nekazal milizietan ez parte hartzeagatik Mexicora ihes egin zuten ●

Togo: Oposizioak grebarako deia egin du

Togoko oposizioko alderdiek greba orokorrerako deia egin zuten atzo eta egungo Gobernu kolpistaren aurkako mobilizazio herritarra egiteko eskatu zieten herritarrei. Greba deialdiak ez du harrera onik izan behin-behineko Gobernuan eta Joseph Koku Kofigoh-ek, militarrek Gobernutik bota zutenak ere langileei dei egin zien atzorako iragarrita zegoen manifestaldira ez joateko ●

ASTE HONETAKO
ARGIA

❖ KUATREROAK, ganaduzaleen amesgaizto berria
❖ DONOSTIALDEA hankaz gora
❖ SERGE BLANCO: "Rugbya profesionalizatzen bada, gaur egungo ilusioa galduko du"
❖ MAASTRICHTeko gailur komunitarioaren aurrean, Europako trena abiadura barik

BIHARKO PRENTSA GAURTIK

ESKUBALOIA

Bogdan Wentaren lana erabakiorra izango da gaurko partiduan. ANDER GILLENEA

Elgorriagak garaipena behar du gaur Arcos Valladoliden kontra

P.A. / **DONOSTIA**

Elgorriaga Bidasoak partidu zaila jokatuko du gaur arratsaldeko sei t'erdietan Artalekun, Arcos Valladolid taldearen kontra. Irundarrentzat partiduak garrantzi handia du, galduz gero Asobal koparako sailkapena lortzea jadanik ezinezkoa izango bait litzateke. Juantxo Villarrealek zuzentzen duen taldeak emaitza onak lortu ditu azken partiduetan —Arrateren kontra 18-28 irabazi zuen azken ihardunaldian— eta gaur ere bi puntuak eskuratzeko faboritoak dira.

Irundarrek ez dute azken hiru denboraldietan galdu Valladoliden kontra eta Artalekun jokatuko den neurketan ez dirudi Arcos taldea emaitza positiboa lortzeko gai izango denik. Denboraldi honetan behin neurtu dituzte indarrak bi talde hauek, Valladolideko Pisuerga kiroldegian eta orduan garaipena Elgorriagarentzat izan zen (25-27). Momentu hartan inork ez zion garrantzirik eman partidu horri, teorian behintzat Arcos Valladolid nahiko talde motela da eta. Hala ere, irundarrek gogor lan egin behar izan zuten partidua irabazteko.

Elgorriagaren arerioa izugarrizko moralarekin etorriko da Irunera, azken partiduan berdinketa lortu bait zuen Barcelona talde indartsuaren kontra. Neurketa Valladoliden jokatu zen, baina emaitza benetan adierazgarria da, Barcelonaren kontra puntua lortzea oso zaila da eta edozein kantxatan. Bogdan Wenta poloniarra izan da Elgorriagako protagonista nagusia azken partiduetan. Berari esker irundarrek ligako bolada onari eutsi diote eta Asobal kopa jokatzeko itxaropena dute oraindik. Hala ere, Wentak laguntza gehiago behar du partiduetan.

Guadalajara hondarrekoaren bisita finala bihurtu da Mepamsarentzat

DONOSTIA

Arratsaldeko sei t'erdietan Arrosadian hasiko den Guadalajara hondarrekoaren aurkako partidua finala bihurtu da Mepamsarentzat. Joan den igandean Alcalan, Lvovek berdinketa eta urrezko puntua balio zuen penaltia huts egin zuen zortzi segundu falta zirenean. Partidu osoan zehar markagailuan aurretik izan arren 26-25 galdu zuten Mepamsakoek eta orain txapelketagatik borrokatuko dutenen multzoan sartzeko arazo larriak dituzte.

«Oraindik ezin dut sinestu partidu hura galdu egin genuela. Defentsan barkaezinak diren okerrak izan genituen. Jubenilei ere egiten ez dizkieten golak egin zizkiguten» esan zuen Ekisoainek. Dirudienez partiduaren amaieran erretolika ederra entzun behar izan zuten jokalariek. «Bai, hala izan zen. Beraiek ere ez zekiten nola ihes egin zitzaien garaipena; nola edo hala, gauzak aldatu beharko dira Guadalajararen aurkako partidurako», azpimarratu zuen Arrosadiakoen entrenatzaileak.

Orain dela hiru aste Mepamsa Alcok bigarren faserako txartela eskutartean zuela bazirudien ere, gaur Zupo Ekisoainen gizonek onenekin egoteko aukera kolokan ikusten dute. Azkenengo hiru partiduak galdu dituzte Iruñekoek. Beraz, bihar jokatuko den Guadalajararen aurkako partidua irabaztea ezinbestekoa da Ligako txapelketa jokatuko dutenen multzoan egoteko. Zupo Ekisoain Mepamsako entrenatzaileak ez du ulertzen nola sartu diren egoera horretan. «Ulertezina da azkenengo partiduetan gertatu zaiguna. Gure akatsak —eta ez aurkakoen asmaketak— izan dira puntuak kendu digutenak eta hori kezkatzekoa da» adierazi zuen Ekisoainek.

Orain dela hogei egun Mepamsak sei partiduetan lau puntu baino ez zituen atera behar bigarren fasera pasatzeko, baina ez du bakar bat lortu. «Orain gelditzen zaizkigun hiru norgehiagoketatik lau puntu atera behar ditugu. Guadalajara taldea azkena da sailkapenean eta bi puntuak bereganatzeko ez dugu arazorik izan behar. Gero Atletico Madriden bisita izango dugu eta Helados Alacanten aurka kanpoan jokatuko dugu. Errealistak izan nahi badugu Alacantetik ekarri beharko ditugu faltatzen zaizkigun bi puntuak» azpimarratu zuen Ekisoainek.

FUTBOLA

Realak Logroñon egindako partidu kaskarra ahaztu nahi du Bernabeun

Iñaki Alaba hasierako hamaikakoan izango da, Gajate lesionatuaren ordez

Realak eta Real Madridek ligako hamahirugarren ihardunaldiko partidurik interesgarriena jokatuko dute gaur arratsaldeko zortzietan Santiago Bernabeu zelaian. Agustin Gajate Donostiara itzuli zen atzo, lesionatuta bait dago eta Alabak hartuko du bere tokia. Imanol ere jokatzeko moduan dago.

PELLO AIESTARAN / **DONOSTIA**

Realak partidu garrantzitsua jokatuko du gaur Real Madriden kontra. Donostiarrek izugarrizko kolpe morala jaso zuten Logroñesen kontrako partiduan, baina ligan azkenaldi honetako bolada onarekin segi nahi dute. Toshackek Realeko lehen plantilako jokalari guztiak eraman zituen atzo Madrilera, Agustin Gajate —lesionatuta— ezik. Galesak ez du taldean aldaketa handirik egingo, Logroñesen kontrako Kopako partiduan aldaketek ez bait zuten espero bezalako emaitzarik eman.

Iñaki Alaba hasieratik zelairatuko da, Agustin Gajateren ordez. Gajate Las Gaunaseko partiduan lesionatu zen eta Haroko kontzentrazioan izan den arren, azkenean etxera itzultzea erabaki du. Realeko defentsa beteranoak astebete egingo du geldirik eta gero erabakiko da egin beharreko tratamendua. Jokalariak berak adierazi duenez, lesio muskularra du —haragi etena— eta horrelakoetan hobe da gauzak lasai hartzea, behar bezala osatzeko. Imanol Alguacil ere Bernabeun izango da. Oriotarrak gainditu ditu hankako arazoak eta jokatzeko prest dago. Ziurrenik hasierako hamaikakoan izango da, oraindik ezer ziurtatzerik ez badago ere.

Zelaia: Santiago Bernabeu. Ordua: 20.00

REAL MADRID		REALA
ALINEAZIOAK		
BUYO	1	GONZALEZ
CHENDO	2	IMANOL
VILLAROYA	3	URIA
ROCHA	4	LARRAÑAGA
SANCHIS	5	GORRIZ
HIERRO	6	ALABA
BUTRAGUEÑO	7	OCEANO
MICHEL	8	IMAZ
LUIS ENRIQUE	9	KODRO
HAGI	10	C. XAVIER
MILLA	11	LUIS PEREZ
R. ANTIC	Ent.	J.B. TOSHACK

Epailea: Bello Blanco

Iñaki Alaba.

✓ Iñaki Alabak hasieratik jokatuko du Real Madriden kontra, Agustin Gajate lesionatuaren ordez.

ZULORA ITZULTZEKO ARRISKUA

Realeko entrenatzaileak ezer azaldu ez duen arren, hau izan daiteke galesak zelairatuko duen hamaikakoa: Gonzalez, Imanol, Uria, Larrañaga, Gorriz, Alaba, Oceano, Imaz, Kodro, Carlos eta L. Perez. Oceano portugaldarra eta L. Perez hernaniarrak arazoak dituzte, baina biak jokatzeko moduan egongo dira.

Real Madriden kontrako partiduak garrantzi handia du Realarentzat. Azken partiduetan lortutako emaitzen ondorioz Reala sailkapeneko erdikaldean kokatu da. Baina kontu handiz ibili beharko dute donostiarrek, Bernabeun galtzea oso kaltegarria izango bait litzateke. Reala negatibo batez agertzen da sailkapenean —Sportingen kontra berdindu ondoren— eta Madriletik esku hutsik itzuliz gero postuak galduko lituzke.

Datuak eta oroitzapenak

INAKI ELORTZA

Egun gutxitan, bi partidutan, hain bi Real desberdin ikusi ondoren auskalo zein ikusi behar dugun gaur. Gaur zortziko Ligako hoberenetik asteazkenean denboraldiko txarrena ikustera joan ginen. Arrazoiak? Entrenatzaileak zioenez, berea da 'mea kulparik' handiena.

Belarrondoko ederra txuriurdinentzat. Beste helburu baten inguruan ezin borrokatzeaz gainera diru mordoska bat jasotzeari utzi diote. Hala ere bitxia da mundu hau. Ezein kirolarik hanka sartzen duenean edo gaizki jokatzen duenean irtenbide zaila izaten du. Normalean jokoan dagoena aulkira pasatzea erabakitzen du teknikoak eskarmentu antzera. Baina... eta teknikoak huts egiten duenean zer? Orduan ezer ez. Honek, sarritan, nahi adina hankasartze egin ditzake, nahi adina probatura eta entseiu. Dena zilegi da. Donostian gainera, gehiago. Erruak bizkar gainean hartu eta kitto.

Hamar partidu jarraian galdu gabeko bolada eten arren, baikorrenak esango du Ligako azken zazpi partiduak oraindik ere porrotik gabe dituztela, Sportingen kontrako aho gusto ona hor dagoela. Pesimistenak aitzitik, etxetik kanpo oraindik ez dela garaipenik erdietsi, Real Madrid berebiziko markak haustear egoteaz gainera partidurik galdu gabeko talde bakarra dela, partiduero golak egiten dituela, ate nahiz atzekalde sendoena azaldu duen taldea dela, Liga lortzeko hautagai bakarra dela... zer ez dute entzun?

Bada oroitzapenez bizitzea gustatzen ez zaion jendea, eguneroko tasuna bizi behar dela dioena. Barkatuko didate horiek, baina niri izugarrizko zirrara datorkit iazko bi partidu historiko burura datozkidanean: Real Madridek 2 Realak 3 eta Real Madridek 0 Osasunak 4. Oraindik ere Sadarren pankarta nagusi batek, igande batean bai eta bestean ere bai, horixe gogoratzen digu. Imajinatzen duzue hori gaur... Tumatxa, hi.

SASKIBALOIA

JOE ARLAUCKAS

ACBko liderrak Araba Pabilioia bisitatuko du gaur. Arratsaldeko 6etan (TVE-2k eskainita), Estudiantes eta Taugresek goi mailako saskibaloia erakutsiko dute, talde biok aste honetan Europako lehieketetan irabazi ondoren. Partidu honetako nondik-norakoak nahiz Benettonen aurkakoak ere Joe Arlauckasen hitzen bitartez ezagutuko ditugu.

«Estudiantes ez da onena, baina onena bezala jokatzen ari da»

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

EGUNKARIA.— Ezer prestatzeko astirik ez, eta Benettonen aurkako erakustaldiaren ostean, Estudiantesi aurre egin beharko diozue.

JOE ARLAUCKAS.— Benettonen kontrako garaipena ahaztu samarturik daukagu dagoeneko eta hurrengo arerioan ari gara pentsatzen, Estudiantes alegia. Korac Kopako partidutik ateratako hausnarketa zera da, Europan nahiz ACB Txapelketan, asteazkenean egin genuen modura ihardun beharra daukagula. Estudiantesi buruz, gauza jakina da talde gisa ez dela Espainiako onena, baina onena bezala jokatzen ari denez, defentsa gogorraz eta Benettonen aurka egin genuen jokoaz baliatu behar dugu.

EGUNKARIA.— Noraino irits zaitezkete italiarren kontra erakutsi zenuten mentalizazio izugarri hori lagun?

ARLAUCKAS.— Mentalizazioa saski- baloian garrantzitsuena bada ere, arazoa da mentalizazio horri partidu bakoitzean eustea benetan zaila dela eta are gehiago baldin eta jokalariak nekaturik edo lesionaturik bagabiltza. Kontua da play-offetara gogor iristea, zeren eta Liga bitartean baten bat larri dabilen arren konpontzeko moduko arazoa da, baina play-offetan denok prest egotea ezinbestekoa da.

EGUNKARIA.— Pablo Lasok eta zuk lotura ezin hobea osatzen duzue, ACBko onenetakoa.

ARLAUCKAS.— Nik izan ditudan talde guztietan ederki asko moldatu naiz basearekin: bera da baloia eramaten duena eta nik baloia nahi dut beti. Baina Pablo Espainiako jokalari bikaienetakoa da. Agian ez du Llorentek edo Solozabalek jokoa kontrolatzeko duten gaitasuna, baina ziur naiz hemendik hiruzpalau urtetara —esperientzia hartu ondoren— baserik onena izango dela.



Joe Arlauckas. OLALDE

Ni beti moldatu izan naiz oso ondo joko antolatzailearekin, egon naizen talde guztietan; berak eramaten du baloia, eta nik baloia nahi dut beti.

EGUNKARIA.— Duela urtebete esan zenidanez, Taugres txapeldun izateko taldea zelakoan zeunden, lesioekin zorte pixkat edukitzekotan. Aurten ere, beste horrenbeste, ezta?

ARLAUCKAS.— Edozein talderi gerta dakizkiokeen arazoak izaten dira lesioak. Horra, bestela, Joventutek hasieran lesionaturik zituen Ferran, Villacampa edo Moralesen faltagatik pasa zituen larrialdiak. Barcelonari ere gertatu zaio...

EGUNKARIA.— Baina talde erdia lesionaturik izanda ere, Barcelonak irabazten segitzen du.

ARLAUCKAS.— Eta baita galdu ere, duela hilabete inguruko garaian esaterako. Noski, urtebete lesionaturik egonez gero, zaila da irabaztea, baina nik neuk egun orkatilan dauzkadan ondoeza arinak besterik ez badira lasai ibil gaitezke.

EGUNKARIA.— Benettoni nagusitzeko egin zenuten ahaleginaren ondorioak jasango dituzue Estudiantesen aurka?

ARLAUCKAS.— Zazpi egunetan Barcelona, Benetton eta Estudiantes arerio izango ditugu, baina erritmo hau normala da ACB Txapelketan. Hortaz, gogor jokatzen jarraitu beharra daukagu, batez ere aurten ordezko jokalarien laguntza garrantzitsuagoa delako.

EGUNKARIA.— Biak aurkari gogorrak izatea al da Benetton eta Estudiantesen aurkako partiduen arteko antzekotasun bakarra?

ARLAUCKAS.— Asteazkenean Kukoc, Del Negro eta Iacopini ziren erne zaintzeko gizonak. Baina Estudiantes talde bat denez, guk ere talde modura markatu beharko dugu. Benettonen aurka Kukoc gogor defendatzean zegoen koxka, baina Estudiantesek denetarik du eta Azofra, Winslow, Pinone, Orenga eta Herrerosek benetako taldea osatzen dute.

SOSLAIA

Lituaniarra

Joe Arlauckas 26 urte eta 2,05 metroko jokalaria da. Baina zenbaki esanguratsuenak, aurten daramatzan batezbestekoak dira: 21 puntu eta 9 errebote partiduko. Gasteizko zaletuek maite dute, ez diote alde egiten utziko eta agian Barcelonako Joko Olinpikoetan ikustea gustatuko litzaieke. Kontua da Arluckasen arbasoak lituaniarrak direla eta Arvidas Sabonisek eskaintza publikoa egin diola 1992an Lituaniako selekzioan joka dezan. Baina Arlauckasen ezetza borobila da. «Hiru hilabeteko oporrak ditut eta aprobetxatu egin nahi ditut. Beharbada, Joko Olinpikoen ostean Barcelonan egon behar nukeela pentsatuko dut, baina ez naiz joango».

Taugresek ACBko liderraren kontra jokatuko du Gasteizen

GASTEIZ

Taugres Baskoniak partidu zaila jokatuko du gaur Araba kiroldegian, Estudiantes liderraren kontra. Gasteiztarrek izugarrizko partidua egin zuten joan zen asteazkenean Tony Kukocen Benetton Treviso taldearen kontra, forma onean daudela erakutsiz. Gaur arerio indartsua izango dute aurrean, ACB ligan partidu bakarra galdu duen Estudiantes hain zuzen ere.

Miguel Angel Martinek zuzentzen duen taldeak bikain hasi zuen denboraldia, liga irabazteko faborito guztiak menperatuz. Baina azkenaldi honetan badirudi talde madrildarrak indar pixkat galdu duela. Aurreko ihardunaldian estu eta larri ibili ziren Unicaja Ronda menperatzeko, teorian bi taldeen artean alde handia dagoen arren. John Pinone estatubatuarrak ez du ondo jokatu azken partiduetan eta Estudiantesek asko nabaritu du hori. Herreros hegala da bere bataz bestekoak mantendu dituen bakarra, beste guztien errendimendua asko jaitsi bait da.

Taugres aldiz gero eta hobeto dago. Herb Brownek bost gizon garrantzitsu zituen denboraldiaren hasieran eta horiek ziren hain zuzen ere partiduaren pisua eramaten zutenak. Hala ere, ordezkoek gero eta garrantzi gehiago dute estatubatuarraren eskemetan eta Taugresek asko nabaritu du. Estudiantesen kontra gogor lan egin beharko dute arabarrek, partidua irabazi nahi badute.

Caja Bilbao eta Askatuak garaipena lortu beharrean

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Canarias eta Andorra taldeen kontra jokatuko dute gaur Caja Bilbao eta Askatuakek, lehen mailako ligako hamazortzigarren ihardunaldian. Bi euskal talde hauek garaipena beharrezkoa dutela esatea betiko leloa errepikatzea litzateke. Bi entrenatzaileek argi eta garbi dute liga amaitu orduko zenbat partidu irabazi behar dituzten igoerarako play offetan parte hartzeko aukera ematen duten lehen zortzi postuetan sartu ahal izateko. Askatuakek bederatzi partidu irabazi behar ditu. Caja Bilbaok hamar.

Gorabehera handiak izan dira aste honetan Caja Bilbao taldean, Joe Kopicki betetzen ari den lan txarraren ondorioz. Lehen mailako amerikar garestienak ez du gauza handirik egin orain arte jokatu diren partiduetan eta biziki nabaritu du Caja Bilbaok. Antonio Gomez Carrak zuzentzen duen taldeak bide gogorra egin beharko du ligako lehen fasea amaitu arte, geratzen diren hamahiru partiduetatik, hamar irabazi behar dituelako. Gaur Canariasi irabaziz gero, sekulako morala eskuratuko lukete bilbotarrek geratzen diren partiduei aurre egiteko.

Askatuakek, bere entrenatzailearen ustez dituen arazo psikologikoak gainditu beharko ditu gaur Andorraren kontra bertan jokatuko duen partiduan. Josean Aldalurren mutilek bederatzi garaipen behar dituzte, eta geratzen diren hamahiru partidutik zazpi etxean jokatuko ditu. Andorra bostgarren postuan sailkatuta dagoen arren, hasieran uste baino partidu gehiago galdu izan ditu.

Askatuakek ahuldutako taldearen aurka irabazteko parada ona du. VILLAGRAN

RUGBYA

Ezinean aritu ze Getxo.

Getxok porrot egin zuen laugarrenez jarraian atzo

KOLDO ALDUNTZIN / **DONOSTIA**

Xerox Getxok jarraian ligako laugarren partidua galdu zuen atzo, Arquitectura taldearen kontra Faduran (9-22). Sei-zazpi baja izan zituzten bizkaitarrek, eta bolada txarra eteteko aukerarik ez zuten izan, madrildarrak izan bait ziren joko erritmoa ezarri zutenak. Getxoko jokalariak kontrarioaren arrastoari jarraitu zion, azken unean nagusi agertu bazen ere, entseiua lortzeraino. Alferrik ordea, Arquitecturak eragozpenik gabe eta alde nabarmenaz irabazi bait zuen Ohorezko Mailako partidu hau.

BERA BERA GAUR LANDAREN Bera Berak partidu zaila izango du gaur arratsaldeko 4retan Hernaniko Landare zelaian Mercabarna BUC talde kataluniarraren kontra. Donostiarrak lehen mailako liderrak dira ligako lehen bederatzi ihardunaldiak jokatu ondoren, 14 punturekin. Mercabarna BUC bere aldetik sailkapeneko laugarren postuan agertzen dira, 10 punturekin. Kataluniarrek hiru partidu galdu dituzte aurtengo denboraldian Alcobendas, Cornella eta Irunen kontra hain zuzen ere.

Mercabarnakoak ohorezko mailan ibili ziren zenbait denboralditan, baina 1989-90 denboraldian maila galdu zuten eta oraingoz ez dute ohorezko mailara itzultzerik izan. Iaz bigarren sailkatu ziren beste talde kataluniar baten atzetik, Montjuic taldearen atzetik alegia.

Bera Bera lidergoan ezarri zen hasiera hasieratik eta hor darraite oraindik. Donostiarrek partidu bakarra galdu dute —Gaztediren kontra— eta bi puntuko aldea ateratzen dio bigarren sailkatuari, Ordiziari. Norgehiagoka honetarako hutsunerik aipagarriena Isasa erdilari beteranoarena izango da. Defentsan kontu handia izan beharko dute Donostiakoek, zulorik txikiena ere ez uzteko. Orain arte Bera Berak defentsa ona, orekatua erakutsi du eta Mercabarna BUC taldearen kontra berdin jarraitu beharko dute. Izan ere, Bera Bera da orain arte puntu gehien lortu duen taldea —221— eta gutxien jaso duena —68—. Entseiuetan ere nagusi dugu Bera Bera, 39rekin. Ruiz de Mendozak lortu ditu orain arte entseiu gehien, guztira 14.

PILOTA

Unanue eta Zezeaga garaile Ogetan partidua galduta izan bazuten ere

Bergara II eta Arretxe 8-2, 11-3 eta 16-10 aurreratu ziren markagailuan

Txapela kentzeko modukoa izan zen atzo lau pilotariek Ogetan egin zuten lana. Partidu osoan zehar Bergara II eta Arretxe aurretik joan ziren, baina azken tantuetan izugarrizko susperraldia izan zuten Unanue eta Zezeagak 22-18 irabazi zuten partidua gipuzkoarrek. Asko kostata ordea, ia dena galduta izan ondoren.

XABIN MAKAZAGA / **DONOSTIA**

Bergara II eta Arrete amorru bizian kantxaratu ziren atzo Ogetan, Eskuz Binakako Txapelketan bigarren garaipena eta puntua lortu nahian. Unanue eta Zezeaga aldiz nahiko pattal, urduri Uberako atzelaria eta jokoan sartzeko aukerarik gabe Añorgakoa. Nafarrak 8-2, 11-3 eta 18-14 aurreratuta ibili ziren, baina azkenean izugarrizko susperraldia izan zuten gipuzkoarrek eta 22-18 irabazi zuten.

Partidu amaieran Arretxek adierazi zuen moduan, «pilota» izan zen Unanue eta Zezeagak markagailuari buelta emateko gakoa. Material bizia aukeratu zuten nafarrek, Zezeagaren hutsa behartzeko ezkerrez, atzeko koadroetan.

Eta hasieran oso ondo bideratu zuten partidua. Zezeaga nahiko urduri kantxaratu zen, eta Arretxek oso ondo kontrolatu zituen Uberako atzelariaren pilotakadak. Luzaidekoa izan zen dominatzailea azken tantuetara arte, eta Ogetan bildutako pilotazaleek txaloz eskertu zuten Arretxeren ahalegina.

Hasiera kaskarraren ondotik, 8-2 eta 11-3 atzeratuta, gorakada handia egin zuten Unanuek eta Zezeagak. 11-10 hurbildu ziren markagailuan, baina berriz ere bolada nafarrentzakoa izan zen, eta sei tantu jarraian eginez 16-10 aurreratu ziren Bergara II eta Arretxe. Hortxe amaitu zen ordea ezustekorako bidea.

Txaloz eskertu zuten ikusleek Arretxeren ahalegina. VILLAGRAN

Material motela apartatu eta jokoa goitik behera kontrolatu zuten azkenean Unanue eta Zezeagak. Gipuzkoarren alde inork ezer ematen ez zuenean, tanto piloa egin zuten, margakailuari buelta eman eta partidua irabazteraino.

Karteldegia

Gaurko partiduak

BEOTIBAR. 22.45. Tolosa III - Mendia / Zabala - Iturzaeta. Eskuz Binakako Txapelketa: Retegi II - Maiz II / Eugi - Errandonea.

BERGARA. 16.30. Irazola - Berna / Muntion - Santi. Bengoetxea IV - Aldazabal II / Arteaga - Errasti. Herran - Garaita / Gabilondo - Alberdi III.

MUTRIKU. 16.30. Gorostidi - Bazeta / Alberdi - Agirre. Elorz - Galardi / Manzisidor - Larrazabal. Barandiaran / Astigarraga.

GALARRETA. 16.00. Larrañaga - Urretabizkaia II / Kalonge - P. Lekunberri. Erremonte Txapelketa: Arregi - Mujika I / Aseginolaza I - Mujika II. Noain - Zubeldia / Salaberria - Eizagirre.

EUSKAL. 16.00. Iriarte - Zandio / Egialde - Etxabe. Erremonte Txapelketa: Matxin II - Aizpuru / Altuna - A. Lekunberri. Aseginolaza II - Saldias / M. Lekunberri - Etxeberria. Lezea - Aranburu II / Ollo - Ulzurrun.

DEPORTIVO. 16.30. Pala Txapelketa: Isusi II - Langarika / Iriondo - Torre.

EZKURDI. 22.30. Zarandona - Enrike / Janariz - Argoitia. Artetxe - Usutorre / Nuñez - Mandiola. Moises - Bilbo / Goixerri - Madarieta.

Biharko partiduak

ASTELENA. 16.30. Ansotegi - Urra / Ariznabarreta - Salbidea. Ladutxe - Zezeaga / Salaberria - Maiz II. Loiarte - Unsain / Gabilondo - Buenetxea.

IZOTZ HOCKEYA

Txuri Urdin lehen postua ziurtatzera

DONOSTIA

Hamann Txuri Urdin taldeak Puigcerdà hartuko du gaur arratsaldean Anoetako Izotz Jauregian, arratsaldeko zortzi t'erdietan. Kataluniarrak sailkapeneko laugarren postuan agertzen dira, denek aurrean egotea espero zuten arren. Txuri Urdinentzat partidua zaila izango da, Pugicerdàk beharrezkoa bait du garaipena postuak aurreratzeko. Kataluniarrek bi partidu bakarrik irabazi dituzte, biak Gasteiz talde motelaren kontra, hain zuzen ere. Berdinketa bat lortu du, Jacaren kontra. Barcelona eta Hamann Txuri Ur- dinen aurkako neurketak galdu egin ditu.

Puigcerdàn jokatutako partiduan donostiarrek 2-3 menperatu zituzten kataluniarrak, Leszeck Jachna txekoslovakiarrak sartutako hiru golei esker. Sailkapeneko atzeko postuetan dauden arren, Puigcerdà taldea arerio gogorra izango da, jokalari bikainak bait ditu. Horien artean Frantisek Geunek atezaina eta Ota Jurbrink, biak txekoslovakiarrak eta hiru kanadiar —Espainiako nazionalitatea badute ere— dira aipagarrienak. Donostiarrentzat garrantzitsua izango litzateke irabaztea, lidergoan segi ahal izateko.

Iñaki Bolea, Hamann Txuri Urdineko entrenatzaileak gizon guztiak erabili ahal izango ditu partidu honetan, Gonzalo Egiluz ezik. Jokalari hau ez da oraindik izandako lesiotik osatu eta beraz, ez du gaurko partiduan jokatzeko aukerarik izango. Partidu honen ondoren, Txuri Urdinek atseden hartuko du, urtarrilaren 11 arte ez bait du jokatuko.

Ligako atsedena aprobetxatuz, Sub-20 jokalari onenak kontzentratuta egongo dira, abenduaren 27tik aurrera Erroman jokatuko den Munduko Txapelketan parte hartzeko. Hamann Txuri Urdin da selekzio honetan gizon gehien duena, guztira zazpi jokalari.

LABURREAN

DETROIT Pistonsek porrot egin zuen Cavaliersen aueka

NBAko azken ihardunaldian Detroit Pistons taldeak porrot egin zuen berriz ere Auburn Hill estadioan, oraingoan Cleveland Cavaliersen kontra (101-110). Azken hamaika urteetako liga hasiera kaskarrena egin du Pistonsek. Lau partidu jokatu ziren azken ihardunaldian, eta gainerantzeko emaitzak hauexek izan ziren: Houston Rockets 97-109 Atlanta Hawks, Milwaukee Bucks 101-109 New York Nets eta Golden State Warriors 117-107 Mavericks ●

LENDL Urre eta Diamantezko Raketan finalerdietara

Ivan Lendl txekoslovakiarra Urre eta Diamantezko Raketa deritzan txapelketako finalerdietara sailkatu da, final laurdenetan Guy Forget frantziarra kanporatu eta gero. Aurretiaz Jaime Yzagari irabazi zion Lendl-ek, eta eragozpenik ez zuen izan Forgetek Dimitri Poliakov sovietarra menderatzeko. Txekoslovakiarra etsai gogorregia izan da, ordea, Davis Kopan hain lan ona egin zuen frantziarrarentzat ●

LANGER lidergoan Sun Cityko golf txapelketa irekian

Bernhard Langer alemaniarra lidergoan jarri da Sun Cityn, bigarren ihardunaldian 65 kolpe egin eta etsai guztiengandik asko urrunduz. Aurreko liderra, Mark McNulty, lau kolpera du alemaniarrak. Bestetik, Craig Parry australiarrak lidergoa eskuratu du Sidneyko golf txapelketan, atzoko ihardunaldian 18 zuloak 67 kolpetan betetzean, sei parraren azpitik ●

LINEKER berriz ere entrenamenduetara itzuli da

Gary Lineker entrenamenduetara itzuli da. Tottenham Hotspur taldeko aurrelariak aurreneko saioa egin zuen atzo, iragan astean bere semeak leuzemia zuela jakin erazi ziotenetik. Bi hilabete besterik ez dituen haurraren gaitzak, minbizi larria, lur jota utzi zuen Lineker. Entrenamendu saioa normaltasun osoz egin zuen Inglaterrako selekzioko kapitainak, klubeko ordezkariek adierazi dutenez, baina ez da hurrengo partidurako deialdian sartuko ●

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Azokako giroa hasi da irakiten

Jende asko inguratu zen atzo eta nobedadeak izan ziren nagusi salmentetan

Durangon Euskal Liburu eta Disken Azokako benetako giroa atzo hasi zela esan daiteke. Azokaren aretoaren barruan ez ezik, atarian ere ikus zitezkeen zenbait stand, herriko kaleak girotuz. Jende aldetik ere, askoz giro epelagoa izan zen atzokoa.

IDURRE ESKISABEL / **DURANGO**

Herenegun ez bezala, atzo nabaria izan zen Durangon jaieguna zela. Aurreko egunean herrian bertan ez zen gehiegi nabaritzen azokako girorik, baina atzo ez zen horrelakorik gertatu. Goizean goizetik, eta azpimarragarria da ordutegi aldetik gainditu zirela aurreko egunean izandako arazoak, Euskal Herriko hainbat puntutatik lagun ugari hurbildu zen Euskal Liburu eta Disken Azokara.

Egia esan, eguraldiak ere laguntzen zuen hortarako, nahiz eta goiz partetik lainoa nahiko itxia izan zenbait tokitan. Hala ere, eguzkiak irabazi zuen jokoa atzo ere, zerua berehala oskarbituz.

Benetako azoka giroa beraz atzokoa. Adin guztietako jendea ikus zitekeen gainera, haurrak lehenengo egunean baino gutxiago baziren ere. Ekitaldi eta aurkezpen desberdinek ere esanahi azpimarragarria izan zuten atzoko egunez. Beharbada aipagarriena, euskal prentsaren inguruan Jon Sarasua moderatzaile zela egindako mahaingurua izan zen. Arloan jakitun diren hiru lagunek hartu zuten parte. Zehazki, Joxerra Garzia, Iñaki Zabaleta eta Nerea Azurmendik.

Aipatzekoa da Josu Landa eta Jesus Mari Zalakain ere solaskide izatekoak zirela, baina arrazoi desberdinak zirela medio, ezin izan zuten emandako hitza bete. Baina hutsuneak hutsune, entzuleak ere asko izan ziren, eta kontutan izateko hamaika iritzi entzun ahal izan ziren.

NAPARHEID euskal komikiko kideek beren standatxoa ere jarri zuten Uribarri kaleko azoka aurrean. Nahiz eta diru faltagatik ezin eduki beren lekua azoka barruan, asmatu zuten jendearen atentzioa irudimenez erakartzen. Nafarroan egiten den euskal komiki honek, badu arrakastarik barre-irudiaren mundua gustoko duen jendearen artean.

Aurkezpenetan lehenengoa berriz Elkar diskoetxeak egindakoa izan zen, argitara eman dituzten azken diskoen xehetasunak argitu naiz. Zazpi izan ziren guztitara aurkeztutako diskoak.

Honen atzetik, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustukoaren txanda izan zen, plazaratu berri dituzten hainbat libururen nondik norakoak emateko. Arratsalde partean, Troka argitaletxeak, Euskal Herrian Euskarazek, eta Ohiuka diskoetxeak, Txalaparta argitaletxeak, Bilboko Arte Ederretako Museoak izan zuten euren aukera.

> «Herenegun herrian bertan ez zen gehiegi nabaritzen azokako girorik, baina atzo ez zen horrelakorik gertatu».

SALMENTAK ERE UGARIAGOAK

Jende kopuruan, egitarauan eta antolakuntzan ez ezik, salmentetan nabaritu zen atzo azokaren indartzea. Herenegun haur literatura izan bazen ere nagusi, atzo gazte eta helduentzakoa gailendu zen. Erein argitaletxeko arduradunak aipatu zigunez, beste urteetan bezala ari dira saltzen aurtengoan, eta Anjel Lertxundik idatzitako bi liburu berriak izanik gehien saldu direnak.

Susak jarritako stand-aren inguruan ere jende mordoxka ikus zitekeen, Edorta Jimenezen 'Speed gauak', eta Xabier Montoiaren 'Non dago Stalin?' izanik salduenak. IZ diskoetxekoek ere, asko saltzen ari zirela aipatu ziguten, batez ere Txirri, Mirri eta Txiribitonen asken diskoa, Egan eta Joselu Anaiak bezalako plaza taldeenak, eta Jose Inazio Ansorenak moldatutako 'Ansorenatarren danbolina'.

BERTATIK BERTARA

Erletxeko istripu larriaren itzala azokaraino ere heldu zen

I. ESKISABEL / **DURANGO**

Galdakao eta Zornotza artean atzo gertatutako istripu tamalgarriak izan zuen eraginik Durangoko Azokan. Bilbotik azokara abiatutako hainbat lagunen familiartekoek, etengabe deitzen zuten azokako informazio stand-era, holako edo halako bertan ote zen galdetuz. Zoritxarrak ere, izan zuen beraz lekurik euskal liburu eta disko azokan.

Baina kontu hauek alde batera utzita, jende ezagun ugari izan zen atzokoan aurrekoa egunean bezala, liburu bat ikusi, disko bat erosi, edo egunpasa Durangon. Hala ere, aurpegi ezagunetako batzuk ez ziren mugatu ikusmiran ibilitzera edo erosketak egitera. Esaterako **Natxo de Felipe** Oskorri talde ezaguneko kantaria, eguerdi partean euskal prentsaren inguruan eratutako mahainguruan izan zen belarriak adi-adi.

EGUNKARIAren lehenengo urteurrena atzo betetzen zen arren, **Pello Zubiria** zuzendariak ere, ez zuen hutsegin mahainguru horretara.

Prentsa alde batera utzita, antzerki munduko zenbait lagun ere ikusi ahal izan ziren azokan. Agian bera ere rap kantatzen hasia delako, **Jose Ramon Soroiz** aktoreak, Esan Ozenkiren stand-ari arreta berezia eskaini zion. **Aizpea Goenaga**, besteak beste ETBn 'Hau da hau' saioko aktorea ere ikusi ahal izan genuen bertan.

EUSKAL LIBURUAK — **KIRIKIÑO**
Colon Larreategi, 11
424.11.74
48.001 BILBO

HIZKUNTZAK — **LAUAXETA**
Rodriguez Arias, 45
441.27.77
48.010 BILBO

PAPERDENDA — ESKOLA JOKOAK ETA JOSTAILUAK — **LIZARDI**
Lehendakari Agirre, 20
447.29.55
48.014 BILBO

LABAYRU IKASTEGIA
Jesu Christoren Lau Evangelioac Batera Alcarturik,(P. Antonio Añibarrorena)/ **Argilunak Begietan,**(Lourdes Unzueta Zamalloarena)/ **Zaar Barri,** (J. A. Oar - Artetarena)/**Eusko - Umeak Atzerrian** (Xabier Goitiarena)
Gramatika Deskriptiborako Materialak,(Jesus M. Agirrerena)/**Euskal Sintaxiaz/Euskal Alegigintza/ Ermitas de Bizkaia(3 ale),** (Gurutzi Arregirena)/ **Fogueraciones de Bizkaia del s.XVIII,** (Jaime Kerexetarena)/ **Los Vascos de la Magia al Animismo,** (Anastasio Arrindarena)
Egunokaz Durangoko Liburu eta Disko Azokan salgai

Egunero Durangoko Azokan

BIZKAIA irratia
EUSKERAZ BIZKAIKO IRRATI BAKARRA FM 102.6
LEKEITION 98.1
ONDARROAN 92.5
MARKINAN 96.7
ARAMAION 104.9

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Euskal prentsaren ajeak astindu ziren atzo eguerdiko mahainguruan

Disko eta liburu berrien aurkezpenak ere ugariak izan ziren egun osoz

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azokaren bigarren egunean, aurkezpen eta mahainguruak izan ziren ekitaldi garrantzitsuenak. Elkar, Unibertsitateek, Troka, EHE, Oihuka, Labayru eta Txalapartak beren lanak aurkeztu zituzten.

JOSE LUIS AIZPURU / **DURANGO**

'Euskal prentsa gaur' titulupean, Jon Sarasuak mahainguru interesgarri bat moderatu zuen Azokaren konferentzia gelan. Hasiera batean bost gonbidatu iragarri baziren ere, hiru besterik ez ziren agertu Durangora: Joserra Garzia, Iñaki Zabaleta eta Nerea Azurmendi.

'Hitzetik hortzera' saioko zuzendariak, euskal komunikabideetan euskararen erabilera traketsa salatu zuen behin eta berriz. Euskararen aldeko politika eza zenbait komunikabidetan lotsagarritzat jo zuen Joserra Garziak eta euskara txukunaren apostua egin zuen. ETB, hizkuntzaren zuzentasun gramatikal hutsera ere ez dela iristen azpimarratu zuen Garziak. Nerea Azurmendi kazetariak euskal komunidabideen dispertsio eta planifikazio eza aipatu zituen eta Iñaki Zabaleta irakasleak berriz, informazio orokorreko euskal aldizkarien porrota iragarri zuen eta prentsa lokalaren gorakada.

Interes handia piztu zuen prentsari buruzko mahainguruak. ANDER GILLENEA

Aurkezpenen alorrean Elkar, Oihuka eta Txalaparta argitaletxeak aipatuko ditugu labur bada ere. Oihuka disketxe iruñearrak, Hertzainak, Matraka, Sasoi Ilunak eta Baldin Bada taldeen lan berriak aurkeztu zituen atzo arratsaldez, Ritxi Aizpuru arduradunaren agindupean. Portugaleteko Sasoi Ilunak taldeko kideek beren lehen lana aurkeztu zuten eta beren itsaropena agertu zuten zuzeneko ekitaldietan jotzeko.

Jose Maria Esparza.

Iruñeko Txalaparta argitaletxeak prestatu berri duten euskarazko bilduma aurkeztu zuten arratsaldeko 6.40etan. Jose Maria Esparzak zuzentzen duen Txalapartako arduradunek bi itzulpen eta Patxi Zabaletaren 'Nafarroako azken mariskala' antzerki obra aurkeztu zuten; itzulpenak berriz Bobby Sands-en 'Egun bat nire bizitzan' eta Felix Guerra-F. Escobar-en 'Fusilak pizten dituen sua' izan dira. Lehenengo itzulpenaz Mitxel Sarasketa arduratu da eta bigarrengoaz Fernando Arburua Iparragirre.

Gaur zer

11.00. Esan Ozenki Records disketxearen azken diskoak.

11.20. Igela argitaletxearen azken liburuak.

11.40. Elkar argitaletxearen 'Xaguxar' saileko liburuak.

12.00. Mahaingurua: 'Nobela beltza euskal literaturan'.

17.00. AEK koordinakundearen azken liburuak.

17.20. Erein argitaletxearen azken liburuak.

17.40. Etor argitaletxearen azken argitalpenak.

18.00. Pamiela argitaletxearen azken argitalpenak.

18.20. Zurgai aldizkariaren ale berria: 'Euskal Poesia gaur'.

18.40. EUSKALDUNON EGUNKARIA: igarotako urteari buruzko azalpena.

19.00. Mahaingurua: 'Erotika eta euskal literatura'.

Oihuka-ren Nobedadeak
Durangoko Diska Azokarako



MATRAKA SASOI ILUNAK BALDIN BADA
...eta laister M.C.D.
OHIUKA Amaia, 2B 4D Tfna.: 22 93 85 IRUINEA

egin zaitez harpidedun
JAKIN
Tolosa hiribidea, 103-1.C - 2009 DONOSTIA - Tel.: 21 30 92

GAUPASAK
JUANJO OLASAGARRE
poesia liburua
Susa LITERATURA
☎ (943) 37 07 38

Bilbo Zaharra
Juan Mateo Zabala
Ulibarri
Gabriel Aresti
EGUNKARIArekin batera euskararen alde
elkarlan

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Zer kontatzen du narratibak?

Durangoko Azokan liburuak aipagai direla eta, lau idazle bildu ditugu mahai baten inguruan. Batez ere poesia baina ipuin batzuk ere idatzi izan dituen Joxerra Garzia ezarri dugu moderadore. Bere inguruan, historia ezberdinetako hiru narratzaile: Ramon Saizarbitoria, Mikel Hernandez Abaitua eta Joxemari Iturralde. Egin dugu Gipuzkoatik kanpoko narratzailerik biltzeko saiorik, baina alferra izan da gure ahalegina.

JUAN LUIS ZABALA / **DONOSTIA**

JOXERRA GARZIA.— Atxagaren 'Obabakoak' liburuak eta bere inguruko fenomenoak euskal narratiban bi aro bereizten dituela esan izan da. Zuen narratiba lanetan izan al da aldaketarik horren ondorioz?

MIKEL HERNANDEZ ABAITUA.— Nik, egia esan, ez dut oso garbi ikusten Anjel Lertxundik esandako hori horrela denik, 'Obabakoak' baino lehen eta gero bi aro diferente direnik. 'Obabakoak' liburuan azaltzen diren ipuin asko lehenagokoak dira eta aldez aurretik argitaratuta zeuden. 'Obabakoak' argitaratu baino lehen ere, hor zegoen Atxaga, eta oso idazle ona zen.

GARZIA.— Beraz, esan daiteke narratu beharraren aurrean, lehengo problemak dauzkaala, eta lehengo soluzio berberak.

HZ. ABAITUA.— Aldatu dena idazlearen estatusa da. Badirudi orain euskal idazlerik badagoela, ze gutxienez autore bat badaukagu, hemendik kanpora ezaguna dena. Baina Atxaga eta beste askoren gauzak lehenagotik ere bazeuden.

RAMON SAIZARBITORIA.— Dudarik gabe, inferioridade konplexuak gainditzen lagundu egin du. Badirudi jendearentzat —irakurle izan ala ez— orain baieztatu egin dela hemen idazleak daudela. Eta ez bakarrik hemengoentzat, kanpokoen aurrean ere bai, orain badirudi ikusi dela gurea ez dela pellokeria bat, ez dela subliteratura. Baina idazle gisa, nik uste dut, pertsonalki, hori baino gehiago suposatu izan duela literatura mota baten rebalorizazioa. Esperimentalismoetatik urruti, prosa poetiko batetik gertu, gauzak sentsibilitatez kontatuz, eta oro har munduan zehar dagoen joerarekin bat eginez.

GARZIA.— Ramonek aipatu dituenez aparte —samurtasuna, prosa poetikoa eta abar—, sintaxi mailan egindako aportazioa aipatu izan dute hainbat idazlek, Juan Mari Lekuona horien artean, sintaxi propio baten lanketa dagoela.

CARLOS VILLAGRAN

Mikel Hernandez Abaitua. 'Etorriko haiz nirekin?' nobela argitaratu du aurten, hemen eta gaurko egoerari estu lotua. Ipuingile oparoa ere bada.

▼

«Horretarako joera dagoela dirudi, baina nik uste dut literaturan ezin dela bide bakar bat dagoela esan, eta gainerakoak ukatu».

MIKEL HZ. ABAITUA

SAIZARBITORIA.— Orrialde batzuk inpaktanteak izan ziren niretzat, saria baino askoz lehenago. Euskaraz ere narratu daitekeela sinisten laguntzen duen prosa landua aurkitu nuen Atxagaren lanetan. Mesanotxean izan eta edozein orrialdetatik hasi eta irakurtzeko plazer hutsez irakurtzeko moduko prosa. Beste prosekiko inbidiarik sentitu beharrik ez dugula erakusten zuen. Eta ordura arte nik ez nuen hain garbi ikusi hori inoiz.

HZ. ABAITUA.— Sintaxiari buruz hitzegiten hasi garenez, nik aipatu nahiko nuke Atxagaren prosan, 'Obabakoak' agertu baino lehen, oso inpaktantea izan zela, garai hartan bertan, 'Etiopia' liburuko prosa (sarrerakoa barne). Atxagaren prosa hartan, Arestirengan hasitako zerbaiten jarraipena dago nire ustez: herri hizkeraren eta klasikoen arteko sintesi interesgarria. Atxagaren prosa honetan, mendebaldeko hizkuntzen sintaxia dago, inglesez *standard average European* deitzen dena, hau da, klasiko grekolatinoengandik etorritakoa: «...etorri zen nire etxera, non bait nengoen...», «...hain kezkatuta, non ez bait zen...» eta horrelako egiturak, nire ustez maizago erabili beharko liratekeenak. Erritmo eta kadentzia bat suposatzen du sintaxi honek. Herri hizkera eta hizkuntza kultoaren arteko sintesia egiten gehien saiatu den idazlea da Atxaga, eta baita ongien egin duena ere.

JOXEMARI ITURRALDE.— Nik uste dut, nolanahi ere, gaia aldatuz, ez dagoela bide jakin bat. Eta Atxagak mugarri bat jarri arren, eta bide bat markatu arren, nik beste bide batetik jo dezaket. Atxaga asko gustatzen zait, baina beharbada Claude Simon gehiago. Ez dago inondik ere kausa-efekto zuzenik literaturan.

GARZIA.— Ez, hori garbi dagoela uste dut. Eta 'Obabakoak' argitaratu ondoren azaldu diren narrazioen artean ez dago asko Atxagaren bidetik joan denik. Nolanahi ere, azken aldi honetan, gauzak kontatze hutsagatik kontatu beharrean, literaturak problematika eta teknika moduan planteatzen dituen arazoak soluzionatzeko idaztera pasatu dela uste dut. Eta gaur egun, aintzat hartzeko moduko idazle gehienak horretan ari direla.

HZ: ABAITUA.— Lehen beti esaten zen euskaraz idazten zela euskararengatik. Gaur, aldiz, literaturarengatik idazten da. Hik, Ramon, euskarari laguntzeagatik idazten huela esan izan duk. Baina niri baieztapen hori oso harrigarria iruditu izan zai-

BIA
Bizkai Idazle Alkartea

BIGARREN
GAZTEENTZAKO LITERATURA LEHIAKETA
Bizkaieraz

TXIKIAK:	11 urterarte Gai Librea.	2-3 orrialdekoa
GAZTETXUAK:	14 urterarte Gai Librea.	3-5 orrialdekoa
GAZTEAK:	18 urterarte Gaia: BIZKAIA.	5-10 orrialdekoa

SARIAK:

Txikiak	Gaztetxuak	Nagusiak
1. saria 20.000 pta	30.000 pta	60.000 pta
2. saria 15.000 pta	25.000 pta	50.000 pta
3. saria 10.000 pta	20.000 pta	40.000 pta
4. saria 5.000 pta	15.000 pta	30.000 pta

Lanak orijinalak izango dira. Idazlearen zehaztasunak kartazal baten barruan bialdu behar dira, kanpoko aldean ezizena eta adin-saila adierazita.
EPEA: Abenduaren 31 arte. NORA BIDALI: BIA-BIZKAI IDAZLE ALKARTEA Aita Pasiotarren Egoitza. Euba. 48290 AMOREBIETA
EUSKO JAURLARITZA eta BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO KULTURA SAILEN LAGUNTZAZ

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

dak beti, 'Egunero hasten delako' irakurri ondoren «Kontxo! Azkenean ere, literaturarengatik beragatik idazten duen idazle bat!» pentsatu bait nuen neure artean.

SAIZARBITORIA.— Literaturak funtzio asko ditu, eta horien artean funtzio soziala dago. Hasiera batean, geure burua eta geure herria normalizatzeko idazten genuen. Horretarako zenbait produktu sozialen beharra zegoen: antzerkia, literatura... Literaturzaleok literatura normal bat egin nahi genuen, produktu normal bat, ez euskarari laguntzeko, mundu guztian literatura egiten zela ikusirik, Euskal Herrian ere literatura egin behar zela pentsatzen genuelako baizik. Nik ez dut neure burua inoiz literatotzat jo. Eta gaur egun, nire produktu sozialek ez dute garai batean zuten interesik, Euskal Herrian bai bait dago jende gehiago produzkzio hori egiteko. Beraz, gaur egun ez dakit merezi duen horregatik bakarrik idaztea. Baina garai hartan bai, hiru trakets erdi analfabeto besterik ez bait zegoen. Orduan, kristoren askatasunarekin eta kristoren inozentziarekin idatz nezakeen.

GARZIA.— Baina 'Ene Jesus!' geroagokoa duk, ezta?

SAIZARBITORIA.— Bai. Nik uste dut hor beste gogo bat dagoela.

GARZIA.— Literaturaren inguruan oso ezkor ikusten haut, Ramon, azken aldi hauetan. Ez idaztea kostatu egiten zaialako bakarrik, helburuaren inguruan ere zalantzak ditualako baizik.

SAIZARBITORIA.— Philipe Soler, 'Tel Quel-ekoek' eta abarrek oso prestigio handia zuten, handiegia hain irakurle gutxi izateko. Eta nolabait ere buelta eman zaio horri orain. Batetik, erdi mailako klasearen igoeraren eraginez, subliteraturaren prestigioa handitu egin da —gaur egun ez da subliteraturatzat jotzen—, eta bestetik lehen subliteratura deitzen zen literatura horren kalitatea ere asko hobetu da —nouveau romanetik eta abarretatik hartutako teknikei esker neurri batean—. Gainera, kulturaren definizioa antropologizatu egin da, definizio zabalagoak onartzen dira orain: gastronomia eta futbola ere kulturatzat jotzen dira. Literaturzaleentzat egindakoa, ia-ia subliteratura bihurtzen ari dela esan daiteke gaur egun. Edozein kritikatan barre egiten zaie horrelako lanei. Horregatik, orain are zailagoa da norberaren produktuaren merkatua jartzea, batez ere, neure kasuan bezala, norbera bere produktuarekin oso ziur ez dagoenean. Frustrantea gertau bait daiteke. Gaur egun Euskal Liburu Azokan produktu *maldito* bat jarri eta niri irakurle gutxi izatea ez zaidala inporta esaten hastea...

HZ: ABAITUA.— Dena dela, hik oraingo hau aurrekoaren buelta dela aipatu duan bezala, oraingo honen buelta ere etorriko dela uste diat nik.

SAIZARBITORIA.— Nik nahiago hala balitz.

ITURRALDE.— Nik uste dut aurrerantzean literaturzaletasuna bizio baten modukoa izango dela, afizio partikular eta bitxia. Iritziak jasotzean, neurtu egin behar da norengandik datozen eta ikusi egin behar da iritzia eman duena noraino sartuta dagoen bere literaturzaletasunean.



CARLOS VILLAGRAN

● **Ramon Saizarbitoria. «Euskal nobela modernoaren sortzailea» izendatu dute kritikoek. Aspaldian ez du, hala ere, nobela berririk argitaratu.**



CARLOS VILLAGRAN

● **Joxemari Iturralde. Pott Bandako kide izan zen. 'Izua hemen' izeneko bere nobelaren berrargitaralpena aurki daiteke egunotan Durangon.**

▼

«Batetik, subliteraturaren prestigioa handitu egin da, eta bestetik subliteratura horren kalitatea ere asko hobetu da».

RAMON SAIZARBITORIA

Pausoz pauso, aurrera egiten bait da horretan. Hitzak esatea oso erraza da, baina ezin zaio kasu berdina egin jende guztiak esaten duenari ere. Guk badakigu Claude Simon gozatzea, edo Miles Davis gozatzea, ez da egun batean eseri eta irakurrri edo entzuteko kontua. Hori ibilbide bat da, urte askotakoa, bizitza osokoa beharbada.

SAIZARBITORIA.— Modernitatean espontaneitatea da nagusi. Lana ematen duena, eta norberak ulertzen duena. Lehen ulertzen ez zenari buruz jendea ez zen ausartzen iritzia ematen. Orain, berriz, ausartu egiten da hori ez zaiola gustatzen esaten. Hurrengo pausoa, ordea, hori kategoria mailara eramatea da: «Ez zait gustatzen. Beraz, txarra da». Eta egia da, bai, hori neurtu egin behar da.

GARZIA.— Mallorcako Galeuzcan aditu genion bati, ezin dela nobelatu gutxienez 20 edo 30 urteko urruntasuna ez duen gai bat. Zer pentsatzen duzue zuek?

ITURRALDE.— Zergatik ez ordea? Tontakeria bat iruditzen zait hori. Literatura artifizioa da, eta ona denak asmatuko du hori ondo egiten.

SAIZARBITORIA.— Beharbada historia objetiboa da ezin egin daitekeena, baina literatura bai.

GARZIA.— Hala ere, konstatazio bat da gutxi idatzi izan dela azken urteotako Euskal Herriari buruz.

ITURRALDE.— Badirudi ETAko militante baten bizimoduaz idatzi behar dela, eta nik uste dut hori ez dela beharrezkoa. Franz Kafkak bere garaiko gauzak idatzi zituen, baina tipo arrunt baten arazoen, lokamutsen eta abarren bidez. Nazismoaren atarian, ofizinista baten lokamutsak idazten aritu izatea leporatuko liokete beharbada gaur egun kritiko batzuk, garai hartan bizi izan balira. Baina hori ere bazen garai hura.

HZ: ABAITUA.— Alde horretatik, oso adierazgarria da Saizarbitoriaren kasua. 'Ehun metro' bezalako nobela batek ez du 'Ene Jesus!' bezalako beste bat ukatzen. Biak dira onak. Hala ere, azken aldi honetan, joera dago, norberak irakurri edo idatzitakoa jotzeko literatura on bakartzat. Anjel Lertxundi, esate baterako, literaturak begien bistan dagoena kontatzeko ez lukeela balio behar esaten ari da. Nik uste dut literaturan ezin dela bide bakar bat dagoela esan eta gainerakoak ukatu.

▼

«Nik uste dut aurrerantzean literaturzaletasuna bizio baten modukoa izango dela, afizio partikular eta bitxia».

JOXEMARI ITURRALDE

sendoa argitaldaria

LiBURU BALiAGARRiAK

BAiLARAK (6 ale)
Euskadi bere ibarretan barrena.

EUSKADi PUEBLO Y NACiON (7 ale)
Euskal Herriaren Historia Modernoa ezagutu ezazu.

GiZONAK (6 ale)
Azken 500 urteotako pertsonaia euskaldunen biografia ezagutu ezazu.

AUSPOAREN SAiLL NAGUSiA (10 ale)
OBRA BERRIA, Aita Zabalaren Zuzendaritzapean 30 urtetako ikerketaren ondorioa. TXIRRITA, PELLO ERROTA, OTAÑO, BASARRI, LASARTE ta karlistadatako bertsoak, baita ere bertsolaritzaren Histori Orokorra.

sendoa argitaldaria

OIARTZUN • UGALDETXO AUZOA Z/G
TEL: 493551-52-53 • FAXA: 493548

Sail Beltza

1. ZALDIAK AKATZEN DITUGU BA... Horace McCoy
2. GALBIDEA James M. Cain
3. IHESA Jim Thompson
4. IMABELLEREN AMODIOZ Chester Himes
5. KEZ EGINDAKO ERRETRATUA Bill S. Ballinger
6. EZ ADIORIK Raymond Chandler

igela

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Irailean eman ziren toberak Maiatzek argitaratu ditu

Amikuze- Iholdi-Ostibarreko Kultur Astean Donapaleuko plazan eman ziren toberak, irailaren 22an, liburu batean jarri ditu Maiatz elkarteak. Herri Antzerki horrek Ipar Euskal herriko ohitura zahar bati jarraiki zion, plaza gainera gizarte arazo bat jokatuz, auzi barregarri baten moldean. Izugarriko arrakasta ukan zuen ekitaldia irakurgai dago Maiatz eta Haize Berri Kultur Etxearen elkarlanari esker.

L.E. / **BAIONA**

Liburu apain eta atsegingarriren itxura pozgarria dauka Maiatz Ipar Euskal Herriko argitaletxeak Durangoko Azoka kari plazaratzen duen liburuak. Barruko mamiak toberak zer diren azaltzen du Antton Lukuren eskutik. Testua agertzen da ondoren, Mattin Irigoienen obra eder bat, 50 argazkirekin. Ikuskaria burutik buru jarraitzeko ahala ematen du honek, ekitaldi bakoitza hurbiletik ilustratzen bait da.

Toberak, auzi baten moduan egituratuak bait dira, eta kasu honetan Amikuzeko egoera ekonomiko larriari lotuak bait dira, honen argitasun beharrezkoak bertakoak ez direnentzat ematen dira 'argitzeko xedearekin'. Azkenik, Muskildin emana izan bait zen bigarren aldi batez urriaren 20an, bertako 'prologoa' ematen da. Azkenik jokolarien izen zerrenda luzeak argi erakusten du toberek ukan zuten partaidetza handia.

ESPRESABIDE HERRITAR BERRITUA

'Amikuzeko karrikako euskara' erabili du Mattin Irigoienek, frantsesa nahas-mahas sartuz, bereziki hautetsi 'frantximantetaz' irri egiteko. Hizkuntza honek 'tritzoka' kontatzen digu dena, lerro muturrak rima araziz. Euskara atsegin honek bere neurri zuzena ematen dio toberari, egoera konkretuaren eta tokiaren irudi zehatzak eskaintzen dituela.

Liburu horretan Ipar Euskal herriko espresabide herritarren egoera aipatzen da. Euskal gizarteak garai batean asmatu bideen gaurkotzea eztabaidagai dakar.

IKUSKARI OSOA ESKAINIZ

Antzerki zahar horren garaikidetasuna puntu interesanteenetarik da: ikuskari 'oso' bat agertzen du toberak. Alabaina hitza, dantza, musika, taula eta plaza jokoa, bertsoa, herriaren partaidetza, lotura soziala, gutxitan elkartzen dira toberetan bezainbat.

Gai hori sar hitzean Antton Lukuk zehazten du: «Aspaldidanik entzuten dugu dantzak, irautekotan, kreatzearen beharra baduela. Bakarrik obra eder eta apaindu horiek ez dute eraginik herriko dantzan orainokoan. Espezialitate guztietako kulturzaleak segi balitez elkarrekin biltzen toberakari, aurki genezake hor dantza berrien herritartzeko arragoa».

Mattin Irigoienek esperientzia luzea du antzerkian, eta bereziki Toberak kudeatzen. LUZIEN ETXEZAHARRETA

Mattin Irigoien toberen idazle arduraduna

LUZIEN ETXEZAHARRETA / **BAIONA**

Ainizako Irigoien anai aipatuetariko bat da Mattin. Ardi esnearen kontrola egiten du, laborarien etxeetan. Hogeitazazpi urte ditu eta antzerkilari esperientzia luzea du ia Garaziko Hiruak Bat antzerki taldean. Umorea naturalki darion Mattinek modestia handiz aipatzen du bere lana toberak kudeatzen, baina erraz konturatuko da nornahi mundu horretaz daukan ezagupen zehatzaz eta bertatik bizia eta umorearen pindarrak ateratzeko daukan gaitasun harrigarriaz.

EGUNKARIA.— Nola sortu zen toberak egiteko ideia hori?

MATTIN IRIGOIEN.— Bazen sozial mugimendu bat Amikuzen abiatua 'Kantonamenduaren Geroa' taldearen inguruan. Bestalde bada hemen kultur mugimendu bat, euskal kulturari atxikia dena eta hastapenetik bere oinarrietan daukana kultura eta konomia batera doazela. Kantonamenduaren Geroa inguruko gauzak frantsesez eginak ziren eta kultur mundua hor ez zen hainbat inplikatzen. Orduan, ideia izan da toberekin, denak, bai soziala bai euskal kultura bateratzen zirela. Gainera, tobera molde egokia da eskandalu batzuk agertzeko plazan, bide irringarrian.

EGUNKARIA.— Nola landu dituzue?

IRIGOIEN.— Kultur Asteari buruz, berehala interesa izan zen toberak egiteko. Landu genuen Antton Luku eta Sauveur Baxoren artean eta ardura nihaurek hartu nuen.

EGUNKARIA.— Irigoien familian dukezuen umore berezia erabili duzu...

IRIGOIEN.— Ez dut hainbeste karkulatu! Lehendabizi, planu bat egin dugu, problema guztien aipatzeko molde irringarrienean eta gero, tritzoka sakatu! Tritzoak ematen du irri egiteko gogoa. Gero sartu ditugu gag batzu...

EGUNKARIA.— Toberetan hitz gogor eta iraingarriak botatzen dira ohituraz. Mugarik jarri al duzue zuen...larrikerietan?

IRIGOIEN.— Ez zen batere helburua gaiztakeriaz jendea trufatzea. Da kritika sozial bat, egun guztiez notableek egiten edo ez egiten dituztenak salatzeko. Ez dugu gaiztakeria pertsonalik bilatu badaezpada. Muga hor zen menturaz. Auzapeza ez da haserretu, jakin dugunaz, momentuan irri egin du eta gero ateratu zen...

EGUNKARIA.— Errepikatzeko gogoa eman dizue horrelako arrakastak?

IRIGOIEN.— Bai, zeren horrek posibilitate asko ematen bait du. Guk ez dakigu berriro aterako ditugun, baina beste nonbait badaiteke...

EGUNKARIA.— Euskararen zaindari batzuek zure 'karrikako euskara' jorratuko dute berdin...

IRIGOIEN.— Hautu bat izan da 'karrikako euskara' horrena, hasieratik. Tobera karrikako espresabidea da, eta ez Akademiakoa! Jendea mintzo den bezala egin dugu. Tritzoka ibiltzea zentzu berean hartu dugu.

EGUNKARIA.— Zergatik erabaki duzue argitaratzea?

IRIGOIEN.— Lehendabizi oroitzapen baten uztea zen helburua ari izan direnentzat. Gehiago dena, harrera ona ukan bait du jende askorengandik, galde egiten ziguten testua argitaratzea.

BIZI IRAKURRIZ

MOMO, KALEKO LEGEA, BANPIRO TXIKIA, BABAR, IGEL ETA UBEL, AMAIGABEKO ISTORIOA.....

Gaurko Irakurketak

ENDE, DAHL, NOSTLINGER, DURREL, LOBEL, HINTON.....

Gaurko Idazleak

Haur-Gazte Saila

ALFAGUARA

DESCLÉE DE BROUWER

IRAKURKETA BIZIAK

DDB Eska itxazu zure liburudendan edo Desclée De Brouwer. Henao, 6 48009 BILBO - Tels.: (94) 423 30 45 - 424 68 43

ETOR ARGITALETXEA

Bertsolaritzaren Historia argitaratzen ari da.

Bertsoz bertso eta bertsolariz-bertsolari, Erdi Arotik 1989ko txapelketara arte.
Eritzi kritiko eta azterketa berri ugari.
Kontsultarako gidaliburu fidagarria, denborapasarako irakurgai atsegina.
Gerora egin litezkeen azterketa lan guztien ezinbesteko erreferentzia.

☐ Bertsolaritzaren historiaren liburu sailera harpidetzen naiz.

Izen abizenak: . . . . . .

Zuzenbidea . . . . . .

Telefonoa: . . . . . Herria . . . . . Postal kodea . . . . . .

Banketxea . . . . . Sukursala . . . . . K.k. . . . . .

Ordainkera ☐ Epetan. 7.000 pta. liburuko ☐ Dena batera

EDITORIAL ETOR ARGITALETXEA

C/ Euskal Herria, 2-2º Apdo. 193
Donostia. Tlf: (943) 42 12 49 / 42 35 02

Izenpea:

EZAUGARRIAK
ENKUADERNAZIOA LARRUZ
12 TOMO
Orrialde kopurua: 12.000
Neurriak: 16 x 24

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Irigoien anaiek 'Luk Berri-a' argitaratu dute disko batean

Garazin jaio diren hainbeste kantarien artean Irigoien anaiek estilo berezia dute. Bigarren LPan, lehenean azaldutako izaera sakondu eta landu dute Frantxua eta Gillomek. Beren burua gehienbat plazako kantaritzat daukatenek estudioko lan polita agertzen digute 'looka' asko aldatu gabe, herriari samur begi keinuka.

L. ETXEZAHARRETA / **BAIONA**

Garaziko Ainiza herrikoak dira Idiondotik datozen anaiek, baserri mundu horren nortasun indartsua dakarte. Ainizan antolatu 'irri gauetan' edo Garaziko kantari bilaldietan eta hainbat lekutan elkarrekin kantuan ohituak dira. 1987. urtean, Eiheralarreko Euskal Kantu Txapelketan 'Ziminoa Gizondu' kantarekin lehen saria irabazi zuten. Hori izan ere beren lehen diskoaren izenburua.

Bertso idazten, kanta sortzen, hitz jokuak ateratzen, baserritarren arazo larriak irri egiteko moduan aipatzen, guztiz trebatuak dira bi anaiak. Gillome, gaur egun Radio Francen aritzen dena, antzerki idazle joria da eta Garaziko Hiruak Bat taldearekin airez aire azken urte hauetan bide berriak zabaldu ditu. Aurtengo udaberrian 'Don Iban eta Ibai Gorri' bere azken antzerkia liburu modura Elkar argitaletxeak plazaratu zuen. Frantxua Euskal Herriko Laborarien Batasuneko eledun ezaguna da, hortz eta haginez dabilana.

'Luk Berri' izeneko lana 'Lur Berri' kooperatibaren izenaren gogorarazle da, baserri munduan kokatzen delako irudi atsegina emanez, askotan inutilkeriaz lotutako 'look' horri. Azalaren diseinua Igartuarenak Euskal Herriko kontresanez betea dakar lantalde baten aurkezle. Andde Duhalderen soinu kudeantzarekin egina izan da diskoa. Jano Larrieu Donazaharrekoa eta Pantxo Etxeberri hazpandarraren lanak dira bi anaien ondoan Mikel Erramuzperekin batera.

Duhalderen soinulariek musika partea oso modu profesionalean landu dute: Jimmy Arrabit, Mikel Iratzoki, Joxean Goikoetxea eta Anjel Unzuk. Jean Phocas grabatzailearen 'pazientzia' soinu tresna osatzailea izan zuketen honen zientzia goresteko ziurraski. Renaud kantariaren 'Germaine' famatuari gure 'Gaxuxa' nazionalaren aurpegia eman diote eta baten batek Ravelen Bolerotik 'Puñeta Pu' ateratzea heretikotzat jo lezake.

HERETIKOTASUNAREN LOOK ATSEGINA

Heretikotasun hori bi anaiek preziatu egiten dute. 'Lukink luka' gastronomia gainditzen duen gaia da alabaina. Iparraldean ia Garaziko Joteroek egin zuten urratsa lauzkatzen dute ere 'Jota Heretika' bat

▼

'Luk Berri' izeneko lana 'Lur Berri' kooperatibaren izenaren gogora arazle da, baserri munduan kokatzen delako irudi atsegina emanez, askotan inutilkeriaz lotu 'look' horri.

emanez. Protesta sozialaren antza zuen jota horren erabiltzea gustokoa dute biek, gure bazterretan izaten diren zapalkuntzen salatzeko.

Hitz jokuek leku handia daukate bi anaien umorearen bideetan. Baten batek bi gogoeta egin beharko ditu horrela testuak dauzkan tranpa berezien ulertzeko. Badirudi hemen 'look' honen inguruan beren lan berezia ereman dutela. Gillome Irigoienen antzerkietan ia hori nabaria zen. Gogora gaitezen 'euskal apuñak' eta 'eskalapoinak' hitzen arteko pentsa bide sakonaz!

Umorearekin batera sentsibilitate handia bizitzen eta erabiltzen dutela konturatuko da ere diskoaren entzulea. Ainizaren ondoko herrian bizi zen Beñat Galtxetabururi eskainitako omenezko kantua agertzen da diskoan. Duela urte bat zendu zen Garaziko soinulari famatua gogorarazten du, honen inguruko maitasuna azalduz. Galtxetaburu, denek izendatzen zuten bezala, umore erabiltzaile handia zen, bereziki bere kontakizunetan. Batek bi anaien umorearen iturri bat hor ikus lezake, umore serio batetan. Honek ere diskoan diren alde orokorrak azpimarratzen ditu azalak dakarren kaleidoskopioren moduan.



Gillome egun Radio Francen irratilari dena, antzerki idazle joria da. J. GOYA

«Plazerragatik kantatzen dugu»

L.E. / **BAIONA**

«Gu, ez gara batere profesionalak» dio Frantxuak «zeren guk lehendabizi publikoan kantatzen dugu eta gero bilduma modura diskoa ateratzen dugu». Estudio lana, grabaketarako «lan zaila» dauka Idiondoko laborariak jakina baita nekazaritzak jaten duela denbora gehiena. Ororen gainetik ematen dien plazerragatik kantatzen dutela azpimarratu du Frantxuak eta kantuak, bata edo bestearenak edo bienak direla dio familiako sinbiosi natural batean.

Sindikalismoak zer dakarren kantagintzari? «nahi edo ez agertzen da ene engaiamendua, baina «diskoan ez taula gainean bezainbat». Hitzen eta musikaren umorea aipatzean aurpegia argitzen zaio azaltzen duelarik 'pastiche' moduko lanen egiteko atsegina. Parodia lan horietan maisu dira bi anaiak.

Radio Franceko estudioko txoko batetan bere umorearen trintxeretan Gillomek bere lana agertzean dio «ironia bada baina ez larregi ...nahiz jota heretiko bat badugun. Hor uste dut mezua argi den. Ulertu dugunaz Nafarroako jota batzuen funtzioa zen, garai batetan, gertakari sozial batzuen salatzea, poderearen aurka. Jota hori Elizondon kantatu genuen lehen aldiko».

erein
argitaletxea
Euskal kulturaren zerbitzuan
Tolosa Etorbidea, 107 - 20009 DONOSTIA
Telf.: 21 83 00 - 21 82 11

LIBURUAK
Hontza
Okendo, 4 - 20004 DONOSTIA Tel.: 42 82 89 FAXA: 43 12 56

Ez gelditu azalean, zatoz muinera!
Hilero zure eskutan

BALIZKO
Koldo Izagirreren poesia liburuaren 2. argitalpena
ERROTEN
Espainiako «Premio Nacional de Poesia 1990»ko finalista
ERRESUMA
SUSA literatur argitaldaria. Industrialdea 1-2 Lasarte-Oria. ☎ 37 07 38 - 37 15 45

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Edorta Jimenez, kale gorriko kontalaria

Bere hirugarren elaberria kaleratu du Susa argitaletxearen eskutik: 'Speed gauak'

Edorta Jimenezek gogor heldu dio narratibari azkenaldian, eta bigarren elaberria («hirugarrena, EGUNKARIAn kaleratu nuena ere niretzat elaberria delako») kaleratuko du Durangoko azokan: 'Speed gauak'

Z.ZAMAKOLA / **BILBO**

Elaberriak Bilbo du gune, eta hiria gaitzat, eta genero ezberdinen arteko nahasketa gisa definitzen du autoreak berak. «Poliziakoa da, halako intriga dagoelako, zerbaiten ondoren dabiltzalako; historikoa da atzerako uneak ematen direlako; erotikoa ere bada pasarte batzuetan... eta dena ironiaz eta umorez egina».

Idazleak berak ere umorez ekin zion liburuari, era oso bitxian gainera. «Aukera neukan egunero Mundakatik Bilbora dohan etortzeko autoan, baina ordubete lehenago ekartzen ninduen. Beraz, iluntzeko 8etatik 9etara idatzi egiten nuen, egunero bi folio edo; gero arratsaldean, trenean zuzendu egiten nituen. Horregatik umorez egin nuen elaberria».

Arlo surrealista ere jasotzen du liburuak, «ezen, batzuetan eserita nagoen leku honetatik bertatik (Bilbo erdi erdiko kafetegi batean, kristaletik kalera begira), hauteskunde txartelak ikusi eta bapatean ikusten nuen bati bizarra hasten zitzaiola... begi kolpea edo, horrelako surrealismoa badago».

Hala ere, eta izenburuak dioenaren aurka, surrealismoa ez du speedak eragiten. «Gaua da garrantzitsua, ez speeda. Gau guztiak dira speedatuak», aipatu du.

> «Euskal literaturaren egoera negargarria da. Ematen du Euskal Herriak ez duela sekula irtengo etniatik, nekazal mundutik eta halakoetatik».

EUSKAL LITERATURA, NEGARGARRIA

Idazleak gogor kritikatu du gaur egun euskal literaturak duen gai eredua: «Nire iritzian eta irakurleari begira, egoera negargarria da. Ematen du gure Euskal Herriak ez duela sekula irtengo etniatik, antropologismotik, nekazal mundutik eta halakoetatik. Ezin dut sinestu Euskal Herrian oraindik dena izatea baserria, krimen barik ala krimenarekin, baina hori».

Beste muturrean, hiritartasuna eta kaletartasuna aldarrikatu du Jimenezek, etorkizuneko euskal literaturak jorratzen hasteko. «Nik txikitan ez dut ezagutu euskal dantzarik, bertsolaririk... gu kaletarrak gara. Oso kritikoa naiz —erantsi du—, euskal literaturak irakurlerik ez badu, argi daukat nire alabarentzatko literatura egiten ez delako dela».

Salbuespenak ere onartu ditu baina «korrontetik kanpo» iharduten dutenena; esaterako, Xabier Montoiaren 'Non dago Stalin' liburua. «Negu Gorriak-en kontzertuan egon zen publikoa, horixe da etorkizuneko irakurlegoa. Eta ni bertan egon nintzen, atzean baina bertan», gaineratu du.



Oso ikuspegi kritikoa du Edorta Jimenezek euskal literaturari buruz. JOSE SIMAL

«Hor demostratu da publiko euskalduna dagoela, eta nik publiko horrentzat idazten dut. Zergatik hiria? Ni korrontetik kanpo nago, 'Aizu!-ren' ahaleginaren moduan, Maskaradaren ahaleginaren moduan, Negu Gorriaken moduan, hirian kultura egin nahi dugun guztion ahaleginaren moduan. Eta kultura hori euskaraz egin. Hauxe da gure Bilbo, hauxe da nik maite dudan herria, beste edozein munduren gainetik; hau eta Mundaka».

Hizkuntza berria aldarrikatu du Edorta Jimenezek, hiria euskaraz deskibratuko duen hizkuntza. «Eta gero obrak motzak badira euskaren aldetik edo, bilaketaren ondorioz lortuko dugu geure obrak sinesgarriak izatea».

Berak idazketa «neorruralista» bezala deskribatzen duen idazkeraren errua erakunde publikoei egotzi die Edortak. Izan ere, «idazleak nahi duena idazteko eskubide osoa» duela aitortuta ere, «sariak banatzeko orduan eta filmeei dirulaguntza eskaintzeko orduan instituzioek zer bultzatzen duten ikusten da».

«OLERKIGINTZA ARRISKUTSUA DA»

Poesia gutxi idatzi du aspaldian idazle mundakarrak. «Desenkatu bat daukat poesiarekin: nahiz eta mila adreilu eta mila harri ekarri, eta kristoren harresia egin, ematen du batzuk erabaki dutela liburu bat baino ez dagoela duela hamabost urterik hona, eta beste guztiok ez dakit noren epigonoak, jarraitzeaileak edo garela. Oztopoak daude bidean eta ez daukagu indarrik oztopoak kentzeko».

Poesiaren izaera arriskutsua ere azpimarratu du Edorta Jimenezek. «Poesia egitea da emozio bat hartu, azalera ekarri eta era kontrolatuan idatzi, euspena galdu barik. Hori peligrosoa da, buzoak egiten duena bezalakoa: hondoratu baina zorabioa datorren muga horretara ailegatu barik; gero deskonpresioa egin behar da, presio maila diferenteak dagozelako. Poesia sentimenduz egiten bada, jeiste hori da, eta deskonpresioa behar da. Nire kasuan behintzat peligrosoa da».

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91

Egaña, Murua eta Peñagarikano lehenengo hirukote finalista

Bere buruarekin fidatuta, txapeldun izan daitekeela erakutsi zuen atzo zarauztarrak

Gipuzkoako Bertxolari Txapelketa 91ko lehenengo hiru finalisten izenak ezagutarazi ziren atzo, jendez leporaino zegoen Tolosako Beotibar pilotalekuan. Bertan jokatutako finalerdiko saiotik Andoni Egaña, Iñaki Murua eta Anjel Mari Peñagarikano Donostiako belodromorako txartel banarekin irten ziren.

JOXAN OIZ / **TOLOSA**

Martxeli Sagastumek jarritako gaien arabera kantatu zuen lehen finalerdiko zortzikoteak. Goizeko 11.30etan hasitako saioak jendetza zen Beotibarko entzulegoa asetu zuen. Ikusmin handiaz espero zen lehiaketak bertso on asko izan zituen.

Egaña-Murua, Mendizabal-Olaso, Peñagarikano-Lertxundi eta Telleria-Sorozabal ofizio bikoteekin hasitako ihardunaldiak maila ederra izan zuen amaierako agurrak arte. Egaña, zigarro purua lagun, bikain aritu zen. Txapeldungai ikusi zuen burua eta hala agertarazi nahi izan zien bildutako guztiei. Zartailuaren zigorraz gogaitu eta oihanera itzuliko zen lehoiaren gartzelakoan, puntaren puntan dagoela erakutsi zuen.

Iñaki Muruak bikain ihardun zuen baina Andoni Egañak are bikainago. JUANTXO EGAÑA

Murua patxadaz baina maisuki ere saioan zehar ereindako uzta ederraren fruituak jaso zituen eta bigarren sailkatu zen. Besteen iharduera, laburrean aipatzearren, Peñagarikano parean zuen aldeko piloak nahi izango zukeen baino estuago ibili zen, potoak galdu zuen Sorozabal, eztarriak Lertxundi, Olasok txapelketako errebelazioa dela gogorazi zuen, Mendizabal bikain ere bai eta Telleria airoso irten zen.

SOROZABAL TELLERIA LERTXUNDI: ADIO

Epaimahaikideek puntuetan neurtu zuten guzti hau eta txapelketa honetan derrigorrezko bihurtu diren txistu eta txaloen artean honako sailkapena osatu zuten: Egaña (526,5 puntu), Murua (513,5), Peñagarikano (507,5), Mendizabal (490,5), Olaso (482), Sorozabal (481,5), Telleria (476) eta Lertxundi (473,5).

Puntuaketak honako ondorioak ekarri ditu: Egaña, Murua eta Peñagarikano zuzenean pasa dira finalera; Mendizabal eta Olasok bihar Oñatin jokatuko den bigarren finalerdiko puntuaketaren arabera izango dute txartela; eta, azkenik, Sorozabal, Telleria eta Lertxundi lehiaketatik kanpo daude dagoeneko.

Bihar Oñatin plazaratuko da azken finalerdia. Goizeko 11.30etatik aurrera, Euskitze, Lizaso, Sarasua, Loidisaletxe II, Maia, Zeberio, Sasiain eta Olaldek ihardungo dute Zubikoa kiroldegian.

Tolosako emaitzak

Egaña	526,5
Murua	513,5
Peñagarikano	507,5
Mendizabal	490,5
Olaso	482
Sorozabal	481,5
Telleria	476
Lertxundi	473,5

Klasifikatuak: Egaña, Murua eta Peñagarikano.
Puntuaketaren zain: Mendizabal eta Olaso.
Kanporatuak: Sorozabal, Telleria eta Lertxundi.

✓ Zortzikote osoaren iharduna oso ona izan zen eta saio bikaina entzun ahal izan genuen Beotibar pilotalekuan.

Andoni Egaña

Gartzelako gaia: Zartailuaren menpean bizi izandako lehoia zara, zigor guztiak alde batera utzi eta oihanera itzultzen zara.

Domadoreak esana egin
lehoiaren erregela
tipoa zer zen bihotz gabea
gogorra bezain ergela
garai hartako oroitzapenek
ez naute asetzen bela
oraintxe nago horrela
hauxe da suerte itzela (bis) libre ta aske ohian batean
animaliak bezela
pena bat daukat mundu honetan
gizonen menpe gaudela.

Orain errexa gertatuko zait
arnas garbia hartzia
oihan hontako xulo guztitan
nahi dedan eran sartzia
gizonezkoen eskabutza(h)ura
ez daukat guztiz ahantzia
askatasunan antsia
hona nere irrintzia. (bis)
Gauza bakarra eskatu nahi det
badu bere garrantzia
duintasunez bizi ez tzana
duintasunez hiltzia. (bis)

Martxeli Sagastumek emandako bukaerarekin osatutako bertsoa:

Sortu zenean gehientsuenok
izan genuen partea
Jaurlaritzatik ez zaio heldu
dirulaguntza fuertea
herri xumean babesa eta
gainera kriston suertea
EGUNKARIAk hola bete du
bere lehenengo urtea.

OLASO aiarra ederki aritu zen, baita erakutsi ere txapelketa honetan izan dituen emaitza onak ez direla kasualitatea izan. Ez du zuzeneko txartela lortu eta bihar Oñatin jokatuko den saioaren emaitzei itxaron beharko die. Hemendik aurrera, litekeena da Martin Rezabal 'Olaso' izen-deiturak plazaz plazako saioetako karteletan sarriago ikustea. Gainera, jendearen aurrean 'a-to-mar-por-sa-ko' bezalako errimak egiten badakizkiela agertarazi du Aiako mutilak.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 91

OÑATI

ABENDUAK 8 ♦ «EUSKITZE»/J. MAIA
IGANDEA ♦ S. LIZASO/X. ZEBERIO
GOIZEKO 11,30EAN ♦ J. SARASUA/J.A. SASIAIN
ZUBIKOA pilotalekuan ♦ «LOIDISALETXE II»/«OLALDE»

FINALERDIAK

Erakusketa honek artista nafarren zikloa itxiko du.

Carlos Canovas argazkilariaren erakusketa zabaldu da Iruñean

Artista nafarraren azken 10 urteotako lana ikusgai Nafarroako Museoan

Carlos Canovas nafar argazkilariaren erakusketa zabaldu zen herenegun Nafarroako Museoan eta abenduaren bukaera arte egonen da ikusgai. Bilduma horrekin bukatuko da Museoak bizirik dauden nafar artistei buruz aurten prestatu duen programazioa.

IRUÑEA

Erakusketa osatzen duten koadroak artistak azken hamar urte hauetan egindako lanak dira, atal desberdinetan banaturik. 'Harresiaren Bestaldea' izeneko atala zabalena da, Iruñea inguruan aurkitu dituen gauza interesgarrien bilduma eginez. Beste hiru sailak, 'Paisaia Urrunak', 'Ahanzturaren Landareak' eta 'Landare Mingarriak' izenekoak aurkeztu zituen.

Canovas berak esan zuenez, ikusgai dauden obrak argazkietan agertzen diren gauzen deskribapena baino gehiago dira. «Hautaketa egitea jarrera moral zehatza da, eskena eta irudi horiek aukeratzea estetika baten aldeko joera garbia hartzen duzula esan nahi du», azaldu zuen artistak. Bere kasuan, miseriaren estetika izan da hautatu duena, eta argazkiekin pobrezia hori 'edertzeko' aukera izan duela aitortu zuen.

Bere argazkietan ez dira sekula pertsonak agertzen, «sartzen diren guztietan ikuslearen arreta beti pertsonetara doa.

Nere kasuan, ez dut nahi ikuslearen arreta desbideratzen duen gauzaren bat jartzea, pertsona bat ipiniz gero denok hara begiratuko bait genuke», adierazi zuen Canovasek. Horren ondorioz, Carlos Canovasen lanean nostalgia kutsua somatzen da, tristezia batzutan, jendearen aldakuntzak aldatzen ez dituen paisaietan.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

BERBA
LOGOPEDIAKO GABINETEA
HIZKUNTZ ETA HIZKETA ARAZOAK ZUZENTZEN DITUGU
Manuel Allende, 23-1.A
48010 BILBO
Tfna.: 410 02 92

34x8,5mm
EGUN BAT 420pta/21l.
ASTEBETE 2.080pta/104l.
BI ASTE 3.600pta/180l.
HILABETE 5.500pta/275l.

34x17mm
EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.
HILABETE 10.100pta/505l.

MAROKKO
Abenduak 25 - Urtarrilak 5
AUTOKAR-LITERA / PREZIOA: 31.500
Tfna.: (943) 65.13.74-9

34x37mm
34x37 MODULOA
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

oskorri osoa
ELKAR
COMPACT disc DIGITAL AUDIO
zure ohizko disko dendan

Gabriel Arestiren oroimenez
Mosen Bernat Etxepare 1545
Oskorri
Plazarik plaza
...eta oskorri sortu zen
Adio Kattalina
Alemanian euskaraz
Hau hermosurie
In fraganti
15 urte ...eta gero hau!
Datorrena datorrela
Hi ere dantzari

HEGOAMERIKA
AIRE-TARIFAK MADRILETIK

91/12/15a arte		91/12/15etik aurrera
119.500	MEXICO	132.500
139.500	GUATEMALA	145.700
139.500	COSTA RICA	145.700
139.500	MANAGUA	145.700
139.500	PANAMA	145.700
112.700	PUERTO RICO	119.300
119.300	SANTO DOMINGO	132.500
119.300	CARACAS	125.900
125.900	BOGOTA	132.500
142.800	GUAYAQUIL	155.900
145.000	LIMA	159.000
192.200	BOLIVIA	198.800
181.900	TXILE	188.300
	BUENOS AIRES	167.200
	MENDOZA	174.400

OHARRA: Ezeztapen oro 5.000 pta. kostatuko da. Ezein Aldaketa 3.000 pta.

Viajes THINDOKI, S.A.
FRANZISKO GAZKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRENTERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

Azpeitiko IX. Euskal Antzerki Topaketak

'Berantenaz seietan' Bordaxuri taldeko azken antzezkizuna gaur

AZPEITIA

Atzoko etenaldia eta gero, Azpeitiko IX Antzerki Topaketak berriro heltzen dio gaur emankizun egitarauari. Gaueko 9.30etatik aurrera eta Zelaitxo antzokian Bordaxuri talde lapurtarrak bere azken muntaia taularatuko du. 'Berantenaz seietan' izenburua duen ikuskizuna Jean-Marie Broucaret zuzenduko du. Testua Marc Perrier idazlearen lararekin Janine Urrutik egindako moldaketa da eta Besteak beste aktore nagusiak Txomin Hegi eta Pantxoa Cousteau dira. Obra hau lehengo apirilean estreinatu zen. Apirilaren 14ean, hain zuzen, Galarrotsak 91ko antzerki ihardunaldietan.

Cousteau eta Hegi.

GETXON HIRU TALDE Getxoko IX Antzerki Ihardunaldietan, berriz, hiru muntaia aurkeztuko dira gaur. Tira ta Floja taldeko kale ikuskizuna, Pikorren 'Nor da da' eta Udaberri konpainiaren 'Brindemos' izeneko estreinaldia. Bihar amaituko dira lehengo asteartean hasitako ihardunaldiok.



POUMEYROLen erakusketa Angelun. Udal liburutegian dagoen Georges Pompidou izeneko Galerian Jean-Marie Poumeyrolen obrak ikusgai dira datorren urtarrilaren 25a arte, asteartetik larunbata arte. Klima tropikal heze bero baten antzekoa den arteo honek bidaia bat baino gehiagotara gonbidatzen du.

MUSIKA

• **ARETXABALETA**
Matraka. Gaztetxean gaueko 11etan.

• **ARRASATE**
Gipuzkoako VI Akordeoi Jaialdia. Institutuan gaur eta bihar.

• **BALMASEDA**
Tankard eta Beer Mosh. Kiroldegian 23.00etan.

• **BERBINTZANA**
Piskerra eta Deskarga. Goizaldeko ordubatean.

• **BERGARA**
Gamma Ray eta Rage. Txibisto dantzalekuan gaueko 11etan.

• **BERMEO**
Soinu Tantak Txistulari Bandaren kontzertua. Eupeme Deuna elizan 20.00etan.

• **BILBO**
Fosa Comun eta La casa Usher. Gaztetxean 20.30etan.

• **DEBA**
Sanchis y Jocano eta Elliot Murphy. Txitxarro dantzalekuan gaueko 12etan.

• **DONOSTIA**
Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren entseiu irekia. Miramongo egoitzan 11.00etan.
Alberto cortezen kantaldia. Victoria Eugenia Antzokian 20.00etan.

• **ELORRIO**
SS-77 eta Heriotza. Gaztetxean 22.00etan.

• **GETXO**
Julio Kageta eta Ezkixu. Txiki eta Otaegi plazan 22.30etan. EHEek antolatua.

• **FUSTIÑANA**
Soziedad Alkoholika taldearen kontzertua, gaueko 10.30etatik aurrera.

• **GERNIKA**
Pablo Sarasate Gazte Orkestraren kontzertua. Andre Mari elizan.

• **LAUDIO**
Whipe Out Skate. Skuatean gaueko 9.30etan.

• **OION**
Su Ta Gar eta LSD. Kiroldegian 23.00etan.

• **ONDARROA**
Tijuana in Blue. Gaztetxean gaueko 11etan.

ANTZERKIA

• **AZPEITIA**
Euskadiko IX Euskal Antzerki Topaketak. Bordaxuri taldeak 'Berantenaz seietan' antzezlana taularatuko du. Zelaitxo zineman 21.30etan.

• **BARAKALDO**
Atalaya taldeak 'Hamlet-maquina' lana antzeztuko du. Barakaldo Antzokian 20.00etan.

Bihar ere ikusteko aukera izango da.

• **DONOSTIA**
Bederen 1 taldeak 'El ponche de los deseos' lana antzeztuko du Antzoki Zaharrean 20.00etan. Bihar ere ikusteko aukera izango da.

• **DURANGO**
Maxkarada taldeak 'Marxkarada' antzezlana eskainiko du. Dominical Aretoan 22.00etan. Bihar arratsaldeko 7etan.

• **GETXO**
IX Antzerki Ihardunaldiak. Tita Ta Floja taldeak 'Kaja ta kaja' lana antzeztuko du San Nikolas plazan 12.00etan. Toki berean, baina arratsaldeko 7.30etan Pikor taldeak 'Nor da da?' antzezlana eskainiko du. Producciones Udaberri taldeak 'Brindemos' antzezlana taularatuko du gaueko 10.30etan Gurea Zineman.

• **IRUÑEA**
Gran Wyoming eta Reverendok 'En la flor de la vida' lana taularatuko dute. E.N.T.n (San Agustin, 5) 20.00etan.

• **SESTAO**
Nazioarteko VII Txotxongilo Jaialdia. Flip y Robi taldeak 'La gondola fantasma' lana eskainiko du. Udal Kontserbatorioan 19.00etan.

SS-77 eta Heriotza taldeek kontzertu bat eskainiko dute gaur Elorrion. Kontzertua gaztetxean izango da, gaueko hamarretatik aurrera.

KRITIKA

HORTENSIA TALDEA

Gozamena

MARXKARADA

Titulua: Marxkarada.
Taldea: Markarada.
Aktoreak: Patxo Telleria, Mikel Martinez, Inazio Tolosa, Marife Berrojalbiz.
Zuzendaria: Karlos Panera.
Antzokia: Dominical Aretoa. **Herria:** Durango.
Egunak: Abenduak 7 eta 8.
Iraupena: Ordu eta laurden.

Asteburu honetan Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka dugunez, azokatik irten ondoren Maskarada taldea ikustera hurbil gaitezke 'Dominical Aretora'. Ikustera baino gozatzera. 'Marxkarada' lanarekin hasieratik bukatu arte gozatu egiten dugulako.

Marx anaiak pertsonaiengan oinarritutako lana egitea apustu ausarta da, jakina. Izan ere, 'Marxkarada' ezagutu baino lehen horrelako lan bat 'ikustea' nahiko zaila iruditzen zitzaidan, baina 'Harrizko Aresti hau' edota 'Gaztibeltzaren karabinak' antzeztu dituen taldeak erraz gainditu du proba.

Taldearen hamargarren urtemuga ospatzeko iaz kaleratu zuten lan honetako eszenografia oso leuna da eta horrela aktoreen papera gehiago nabaritzen da. Guztiz zaindutako karakterizazioak, landutako keinuek antzerkian gaudela ahantz erazten digute lehen momentutik, Marx anaien mundura eramaten gaituztelarik.

Groucho eta Chico bizkor mugitzen dira egoera batetik bestera, Harpo delizioso baten laguntzarekin. Flywheel, Ravelli, Astolfi eta Ruby izenez Maskarada taldeak figura hauek birsortzen ditu eta laugarren pertsonaia sartzen du: emakume bat.

Ardura handiz eginiko testuak Marx anaien umorez ezin hobeto isladatzen du, hitz jokoak eta zentzugabeko egoera desberdinak erabiliz.

Oso piano berezia eta baita beste instrumento batzuk musika zuzenean jotzeko erabiltzen dituzte. Horrela Marx anaien alde musikala errespetatzen da eta Maskaradaren aurreko lanetan musikak izan duen garrantzia mantentzen da.

LEHIAKETAK

• **ARETXABALETA**
V Argazki eta Diapositiba lehiaketa. Euskadiko argazkizale guztiek har dezakete parte. Gaia: Mendia eta natura arlo guztietan. Lanak aurkezteko epea abenduaren 10ean amaituko da. Lanak bidaltzeko edo informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Murrukixo Mendizale elkartera jo (Posta kutxatila 34, 20550 Aretxabaleta).

• **ARRIGORRIAGA**
VII Ipuin Lehiaketa, gazteleraz edo euskaraz, Arrigorriagako Udalak antolatua. Maila bi bereiztu dira: 13 urtetik beherakoentzat eta, 14 urtetik 25 urtera bitartekoentzat. Gaia librea da. Lanak aurkezteko epea abenduaren 30ean amaituko da. Lanak aurkezteko helbidea: Arrigorriagako kultur etxea, Urgoiti paseoa 8.

• **BAKIO**
Idazlan lehiaketa Bakio Euskara Batzordeak antolatua. Adin banaketa: 7-10 urte, 11-14 urte, 15-18 urte eta 18 urtetik gorakoentzat. Lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean amaituko da eta Udaletxera eraman behar dira.

• **BILBO**
Ihauterietako kartela, 1992ko Ihauterietako Jai Batzordeak antolaturik. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 15ean amaituko da. Aurkezteko tokia: Bilboko Udala, Kultura eta Turismo saila. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Udaletxera jo.

'Imaginatu Euskadi - IV' lehiaketa, Banco Hispano Americano-k antolatua: Argazki, pintura, ipuin eta poesia (Euskaraz zein gazteleraz idatz daitezke). Lanak aurkezteko epea 1992ko urriaren 31an amaituko da.

• **BUSTURIA**
Ipuin Lehiaketa. Busturiko hamalau urtetik beherako neskamutilentzat. Euskaraz edo gazteleraz. Bolografoz idatzita aurkeztu behar dira. Sariak denontzat daude. Ipuinak abenduaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira liburutegian.

• **DONOSTIA**
Donostiako Ihauteriak 1992 Kartelen Lehiaketa. Nahi duen guztiak har dezake parte. Gaia Ihauteria izango da. Lanak Kultur eta Turismo Ekintzetxean aurkeztu behar dira (Bengoetxea, 4), abenduaren 31n, eguerdiko ordubatak baino lehen. Informazio gehiago bertan edo telefono zenbaki honetan: ☎ 48 11 66.

XIV Donostia Hiria Ipuin Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea abenduaren 9an amaituko da. Helbide honetara bidali behar dira: Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxea, Reina Regente kalea, 20003 Donostia. Informazio gehiago bertan.

'Elbire Andereñoa' VIII sariketa, Euskerazaintzak antolatua: Olerki-sariketa eta Ipuin-sariketa. Lehenengo sariketarako umeentzako olerkiak izango dira eta ez umeek eginak (40-60 lerro). Eta, Ipuin-sariketa gaztetxoentzako da (16 urte baino gehiago ez dutenentzat). Sariketa bi horietarako lanak 1992ko urtarrilaren 31rako aurkeztu behar dira. Helbidea: 'Euskerazaintza', Getaria 21, 20005 Donostia. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero ere, bertara jo.

• **EUSKAL HERRIA**
Bertso Paper Lehiaketa Araba-Bizkaiko Bertsolari Elkarteak antolatua. Lehiaketak hiru maila ditu: 14 urte artekoak, 25 urte artekoak eta 25 urtetik gorakoak. Haurren maila Araba-Bizkaira mugatuko da eta beste biak Euskal Herri osora. Lanak aurkezteko epea abenduaren 21ean amaituko da. Lanak helbide honetara bidali behar dira: Araba-Bizkaiko Bertsolari Elkartea, Lekeitioko ikastola, Atea z/g, Lekeitio. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, aipaturiko lekura jo edota, ☎ 684 15 51 telefono zenbakira deitu.

• **IRUÑEA**
Pintura eta marrazki lehiaketa, Udaletxeko Hiritar Sustapen arloko sailak antolatua (Gabonetako irudiak). Iruñeko edonork har dezake parte. Lanak aurkezteko epea abenduaren 10ean amaituko da. Lanak Hiritar Sustapen arloko sailean aurkeztu behar dira (Zapateria, 40, 31001 Iruñea). Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, bertara jo.

ZINEMA-BIDEOA

• **BETELU**
'Harreman Arriskutsuak'. Eskola Zaharretan 21.30etan. Ondoren solasaldia Tolosako sexologo batekin.

• **GETXO**
'Cuando Harry encontró a Sally'. Algortako Kultur Etxean 16.30 eta 21.30etan.
'La venganza de los zombies'. Erromoko Kultur Etxean 16.30 eta 21.30etan.
'Karate Kid I'. Areetako Kultur Etxean 16.00 eta 20.00etan.

• **LEITZA**
'Dic Tracy'. Zineman 17.00 eta 19.00etan.

IHARDUNALDIAK

• **AZPEITIA**
Dantza Suelto Ikastaroa antolatu du Itsasi Taldeak. Astelehen eta asteazkenetan izango da gaueko 9etatik aurrera. Dohainik. Interesatuok bertara azaldu.

• **IRUÑEA**
IPESek antolatutako ikastaroa. 'Taller encuentro en comunicación personal', Josu Cabodevillak emango du abenduaren 13tik aurrera.
IPESek antolatutako ikastaroak. 'Espresio ikastaroa' abenduaren 9an hasita. 'Bizitza historiak' Bernabe Sarabiak emanik, abenduaren 13 eta 14an. Informazio eta matrikula: IPES, San Migel, 8-2º. ☎ 22 59 91.

BESTELAKOAK

• **DURANGO**
Umeen irakurketa zaletasuna indartzeko 'liburutegi' bat antolatu du BERBARO elkarteak. Horrezaz gain, Euskal Herriko idazle eta adituek hitzaldiak, bideo emanaldiak,... emango dituzte, umeei irakurketa zaletasuna eta liburuen erabilpena zelan egin behar den azaltzeko, besteak beste. Guzti hori Pinondo etxean.
26. Euskal Liburu eta Disko Azoka. Goizeko 11etatik aurrera, 'Esan Ozenki Records', 'Igela' eta 'Elkarren' azken disko eta liburuen aurkezpena. 12.00etan mahaingurua: 'Nobela beltza euskal literaturan'. Partaideak: Gotzon Garate, Xabier Kintana eta Xabier Olarra. 17.00etatik aurrera, AEK, 'Erein', 'Etor' eta 'Pamielaren' liburuen eta 'Zurgai' aldizkariaren azken zenbakiaren aurkezpena. 18.40etan 'EGUNKARIAk igarotako urtearen azalpena'. Partaideak: Joxemiel Zumalabe, Martin Ugalde eta Pello Zubiria. 19.00etan mahaingurua: 'Erotika eta Euskal Literatura'. Partaideak: Amaia Lasa, Ramon Etxezarreta, Edorta Jimenez, Andoni Egaña, Aitor Arana. Azokaren ordutegia: goizez 10.30etatik 14.00etara, eta arratsaldez 16.30etatik 21.00etara.

• **GETXO**
Euskal Herrian Euskarazek antolatutako ekintzak. 12.30etan trikitilariak eta bertsolariak Tellagorri plazan. Ondoren tortila lehiaketa Los Chopos parkean. Gaueko 10.30etan Julio Kageta eta Ezkixu taldeen kontzertua Txiki eta Otaegi plazan.

• **LARRABETZU**
Mendi irteera Atxartera. Bihar izango da. Irteera goizeko 9etan plazatik. Arratsaldez Durangoko Liburu eta Disko Azokara. Hori Bai Gazte Elkarteak antolatua.

KARTELDEGIA

ARABA

• GASTEIZ

Azul 1. 'Más alla del Arco Iris' / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Azul 2. 'El silencio de los corderos' / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Gasteiz. 'Terminator 2, el juicio final' / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Samaniego 1. 'Colmillo blanco' / 17.30. **'Tacones lejanos'** / 19.45 - 22.00.
Samaniego 2. 'Escándalo en el plató' / 17.30 - 19.45 - 22.00.
Samaniego 3. 'La amiga' / 17.30 - 19.45 - 22.00.
Samaniego 4. 'Latino' / 17.30 - 19.45 - 22.00.
Mikeldi. 'Fiebre salvaje'. Zuz: Spike Lee. Akt: Wesley Snipes, Spike Lee / 17.15 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Mikeldis. 'Terminator 2, el juicio final'. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.15 - 20.15 - 22.45. 18 gorak.
Mikeldis. 'Hot Shots'. Akt: Marthin Sheenn, Valeria Golino / 16.15 - 18.15 - 20.15 - 22.30.
Mikeldis. 'Thelma & Louise'. Zuz: Ridley Scott. Akt: Geena Davis, Susan Sarandon / 17.30 - 20.15 - 22.45. 13 gorak.
Mikeldis. 'El imperio del mal'. Akt: Christian Slater, Anthony Quinn / 17.30 - 20.15 - 22.45. 18 gorak.

BIZKAIA

• BILBO

Astoria. 'Hot shots'. Zuz: Jim Abrahams. Akt: Charlie Sheen, Cary Elwes / 17.30 - 20.00 - 22.15.
Avenida 1. 'Spymaker'. Akt: Jason Connery / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Avenida 2. 'Terminator 2'. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.00 - 19.30 - 22.00. 18 gorak.
Avenida 3. 'Thelma & Louise'. Zuz: Ridley Scott. Akt: Susan Sarandon / 17.00 - 19.30 - 22.00. 13 gorak.
Avenida 4. 'Los rescatadores de cangurolandia'. Zuz: Walt Disney / 11.15 - 17.30 - 19.30. **'Tacones lejanos'.** Zuz: Pedro Almodovar. Akt: Victoria Abril, Miguel Bosé / 22.00. 18 gorak.
Avenida 5. 'Hot shots'. Zuz: Jim Abrahams. Akt: Charlie Sheen, Cary Elwes / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00.
Avenida 6. 'La novia de Re-animator'. Zuz: Brian Yusma / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
Ayala. 'El señor de la gran mansión' / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Capitol. Ez dago emankizunik.
Campos Eliseos. Ez dago emankizunik.
Coliseo Albia. 'Terminator 2, el juicio final'. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.00 - 19.45 - 22.15. 18 gorak.
Consulado. 'La novia de Re-animator'. Zuz: Brian Yuzna / 17.30 - 20.00 - 22.15. 18 gorak.
Gran Vía. 'Hamlet'. Akt: Mel Gibson, Glenn Close / 17.15 - 20.00 - 22.45. (Etenik gabeko emankizuna). 13 gorak.
Ideal 1. 'Terminator 2, el juicio final'. Akt: Arnold Schwazenegger / 17.00 - 19.45 - 22.30 - 01.00. 18 gorak.
Ideal 2. 'Hot Shots'. Zuz: Jim Abrahams / 17.30 - 20.15 - 22.30 - 01.00.
Ideal 3. 'Tacones lejanos'. Zuz: Pedro Almodóvar. Akt: Victoria Abril / 17.15 - 20.00 - 22.30 - 01.00. 13 gorak.
Ideal 4. 'La noche de los muertos vivientes'. Zuz: Tom Savini / 17.30 - 20.15 - 22.30 - 01.00. 18 gorak.
Ideal 5. 'Terminator 2'. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.00 - 19.45 - 22.30 - 01.00. 18 gorak.
Ideal 6. 'Los rescatadores de cangurolandia'. Zuz: Walt Disney / 17.30 - 20.00 - 22.30. **'Cita con Venus'.** Akt: Glenn Close / 01.00. 13 gorak.
Ideal 7. 'Escándalo en el plató'. Akt: Kevin Kline, Woopie Golsberg / 17.30 - 20.00 - 22.30 - 01.00.
Ideal 8. 'Fiebre salvaje'. Zuz: Spike Lee / 17.00 - 19.45 - 22.30 - 01.00. 18 gorak.
Mikeldiak. 'El Prado'. Akt: Richard Harris, John Hurt / 16.15 - 18.15 - 20.30 - 22.45. 13 gorak.
Mikeldiak. 'Thelma & Louise'. Zuz: Ridley Scott. Akt: Geena Davis, Susan Sarandon / 17.15 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Mikeldiak. 'Grito de piedra'. Zuz: Werner Herzog. Akt: Donald Sutherland, Mathilda May / 16.15 - 20.30. **'El rey pasmado'.** Zuz: Imanol Uribe. Akt: Gabino Diego, Javier Gurruchaga / 18.15 - 22.45. 13 gorak.
Multi 1. 'Los chicos del barrio'. Zuz: John Singleton / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 2. 'Llamaradas'. Zuz: Ron Howard / 11.00 - 17.00 - 19.45 - 22.30.
Multi 3. 'El fantasma de la ópera'. Akt: Robert Endglund / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 4. 'El precio de la ambición' / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Multi 5. 'Impulso'. Akt: Theresa Rusell / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Multi 6. 'A proposito de Henry'. Akt: Harrison Ford / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Multi 7. 'Bailando con lobos'. Zuz: Kevin Costner. Akt: Kevin Costner / 17.15 - 20.30.
Multi 8. 'Robin Hood, principe de los ladrones'. Zuz: Kevin Reinolds. Akt: Kevin Costner / 17.30 - 20.15.
Vistarama. 'El silencio de los corderos'. Akt: Jodie Foster, Scott Glenn / 17.45 - 20.00 - 22.15. (Etenik gabeko emankizuna). 18 gorak.

• ALGORTA

Gurea. Ikus antzerkia.

• AREETA

Gran Cinema. 'El marido de la peluquera' / 17.00 - 19.30 - 22.00. 13 gorak.

• BARAKALDO

Duplex A. 'Hot Shot' / 17.30. (Etenik gabeko emankizuna).
Duplex B. 'Terminator 2, el juicio final'. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.00. (Etenik gabeko emankizuna).

• DURANGO

Kurutziaga. Antzerkia.
Zugaza. 'Doc Hollywood' / 19.00 - 22.00.

• ELORRIO

Arriola. 'Robin Hood, principe de los ladrones'. Zuz: John Irvin / 22.00.

• GERNIKA

Gernika. 'Los inmortales II' / 19.00 - 22.00.

• LEKEITIO

Antzoki. 'El gran Halcón' / 19.00 - 22.00. 7 gorak.

• ONDARROA

Alameda. 'Zandalee' / 18.30 - 22.15.
Bide Onera. 'Un buen policia' / 18.30 - 22.15.

• SESTAO

Amezaga. 'Colmillo blanco' / 17.30. (Etenik gabeko emankizuna).

• ZORNOTZA

Udal zinema. 'El gran Halcón' / 20.00 - 22.30.

GIPUZKOA

• DONOSTIA

Amaia. 'Bailando con lobos'. Zuz: Kevin Costner / 17.00 - 20.15.
Astoria 1. 'Thelma & Louise'. Zuz: Ridley Scott. / 15.15 - 20.00 - 23.00.
Astoria 2. 'Todo por la pasta'. Zuz: Enrique Urbizu. / 17.00 - 19.30 - 22.30.
Astoria 3. 'Terminator 2'. Zuz: James Cameron. / 16.45 - 19.30 - 22.30. 18 gorak.
Astoria 4. 'Tacones lejanos'. Zuz: Pedro Almodóvar. / 17.30 - 20.00 - 23.00. 18 gorak.
Astoria 5. 'El imperio del mal'. Zuz: Michael Karbelnicoff. / 17.30 - 20.00 - 23.00. 18 gorak.
Astoria 6. 'El precio de la ambición'. Zuz: Martha Coolidge. / 17.00 - 19.30 - 22.30. 13 gorak.
Astoria 7. 'El rey pasmado'. Zuz: Imanol Uribe. / 17.30 - 20.00 - 23.00.
Petit Casino 1. 'Grito de piedra'. Zuz: Werner Herzog. / 17.00 - 19.00 - 21.00 - 23.00.
Petit Casino 2. 'El señor de las bestias'. Zuz: Sylvio Talbet. Akt: Marc Singer, Kari Wuhrer / 17.15 - 19.30. **'El prado'.** Zuz: Jim Sheridan. / 22.30. 13 gorak.
Petit Casino 3. 'El silencio de los corderos'. Zuz: Jonathan Demme. Akt: Jodie Foster, Anthony Hopkins / 17.15 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Principe. 'Hamlet'. Zuz: Franco Zeffirelli. Akt: Mel Gibson, Glenn Close / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Antzoki Zaharra. Ikus antzerkia.
Victoria Eugenia. Ikus musika.
Savoy. 'Terminator 2, el juicio final'. Zuz: James Cameron. Akt: Arnold Schwarzenegger, Linda Hamilton / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.

• ARRASATE

Alai. 'Robin Hood, principe de los ladrones' / 17.00 - 19.30 - 22.00.

• AZKOITIA

Baztartxo. Ez dago emankizunik.

• AZPEITIA

Soreasu. 'El placer de un extraño' / 19.30 - 22.00. 18 gorak.
Zelaitxo. Ez dago emankizunik.

• BERGARA

Novedades. 'Buscando justicia' / 17.00 - 19.30. **'Oscar'** / 22.30.

• EIBAR

Unzaga. 'Los chicos del barrio' / 19.30 - 22.15.
Rialto. 'Agente juvenil' / 19.30 - 22.15.

• ELGOIBAR

Herriko antzokia. 'Los inmortales II' / 19.30.

• IRUN

Avenida. 'Tacones lejanos' / 19.30 - 22.15.
Bidasoa. 'La noche de los muertos vivientes' / 19.30 - 22.15.

• LEGAZPI

Latxategi. 'Bailando con lobos' / 22.00.

• LEGORRETA

Udal Zinema. Ez dago emankizunik.

• MUTRIKU

Ederrena. 'Rocketeer' / 19.00.

• OÑATI

Santa Ana. 'A proposito de Henry' / 19.30 - 22.30.

• ORDIZIA

Herri Antzokia. 'Agente juvenil' / 19.30 - 22.15.

• TOLOSA

Iparragirre. 'A proposito de Henry' / 19.30 - 22.30.
Leidor. 'Ella siempre dice sí' / 17.00 - 19.30 - 22.30.

• ZARAUTZ

Modelo. 'Robin Hood, principe de los ladrones' / 19.30 - 22.15.

• ZUMARRAGA

Itzalon. 'A proposito de Henry' / 19.30 - 22.00.
Zelai Aristi. 'La cenicienta' / 17.00. **'Los chicos del barrio'** / 19.30 - 22.15.

LAPURDI

• BAIONA

Atalante 1. 'L'amour avec des gants'. Zuz: Maurizio Nichetti. Akt: Angela Finocchiaro, Mariella Valentini / 18.30.
Atalante 2. 'Indian Runner'. Zuz: Sean Peen. Akt: Viggo Mortense, Patricia Arquette / 22.45.
Atalante 3. 'Barton Fink'. Zuz: Joel eta Ethan Coen. Akt: John Turturo, John Goodman / 14.00 - 20.30.
Atalante 4. 'Fisher King'. Zuz: Terry Gilliam. Akt: Robin Williams, Jeff Bridges / 16.15.
Marine Plus. 'Ma vie est un enfer'. Zuz: Josiane Balasko. Akt: Josiane Balasko, Daniel Auteuil / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Marine 1. 'Hot shots'. Zuz: Jim Abrahams. Akt: Charlie Sheen, Cary Elwes / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Marine 2. 'Croc blanc'. Zuz: Randall Kleiser. Akt: Klauss Maria Brandauer, Ethan Hawke / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Marine 3. 'Robin des bois prince des voleurs'. Zuz: Kevin Reynolds. Akt: Kevin Costner / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Marine 4. 'Harley Davidson et l'homme aux santiags'. Zuz: Simon Wincer. Akt: Mickey Rourke, Don Johnson / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Marine 5. 'Mon pere ce heros'. Zuz: Gerard Lauzier. Akt: Gerard Depardieu, Marie Gillain / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Vauban Plus. 'Autant en emporte le vent'. Zuz: Victor Flemming. Akt: Clark Gable, Vivien Leich / 14.30 - 20.30.
Vauban 1. 'Bernard et Bianca au pays des kangourous'. Marrazki bizdunak / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Vauban 2. 'J'embrasse pas'. Zuz: Andre Techine. Akt: Manuel Blanc, Philippe Noiret, Emmanuelle Beart / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Vauban 3. 'Mayrig'. Zuz: Henry Verneuil. Akt: Omar Shariff, Claudia Cardinale / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Vauban 4. 'Pretty Wooman'. Zuz: Garry Marshall. Akt: Richard Gere, Julia Roberts / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.
Vauban 5. 'Terminator 2 le jugement dernier'. Zuz: James Cameron. Akt: Arnold Schwarzenegger / 14.30 - 18.00 - 20.00 - 22.30.

• DONIBANE LOHIZUNE

Rex 1. 'La Thune'. Zuz: P. Galland. Akt: Sami Bonajila, Sophie Aubry / 21.00.
Pergola 1. 'Croc Blanc'. Zuz: Randal Kleiser / 21.00.
Pergola 2. 'La vieille qui marchait dans la mer' / 21.00.

• HENDAIA

Les Varietes. 'Croc Blanc'. Zuz: Randal Kleiser / 21.00.

• MIARRITZE

Le Royal 1. 'Croc blanc'. Zuz: Randall Kleiser. Akt: Kluass Maria Brandauer, Ethan Hawke / 15.00 - 18.30 - 21.00.

NAFARROA

• IRUÑEA

Golem 1. 'Terminator 2, el juicio final'. Zuz: James Cameron. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.15 - 19.45 - 22.30.
Golem 2. 'Grito de piedra'. Zuz: Werner Herzog. Akt: Donald Sutherland, Mathilda May / 17.30 - 20.00 - 22.45.
Golem 3. 'Alas de mariposa'. Zuz: Juanma Bajo Ulloa. Akt: Silvia Munt, Susana Garria / 17.30 - 20.00 - 22.45. 18 gorak.
Golem 4. 'Colmillo blanco'. Zuz: Walt Disney. Akt: Klaus María Brandauer / 17.30. **'Los chicos del barrio'.** Zuz: John Singleton. Akt: Ice Cube, Cuba Gooding / 19.45. **'Tacones lejanos'.** Zuz: Pedro Almodovar. Akt: Victoria Abril, Miguel Bosé / 22.30. 13 gorak.
Golem 5. 'Thelma & Louise'. Zuz: Ridley Scott. Akt: Susan Sarandon, Geena Davis / 17.15 - 20.00 - 22.45.
Golem 6. 'El rey pasmado'. Zuz: Imanol Uribe. Akt: María Barranco, Gabino Diego / 17.15 - 19.45 - 22.30.
Carlos III. 'Terminator 2, el juicio final'. Zuz: James Cameron. Akt: Arnold Schwarzenegger, Linda Hamilton / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Olite 1. 'El silencio de los corderos'. Zuz: Jonathan Demme. Akt: Jodie Foster, Anthony Hopkins / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Olite 2. 'El imperio del mal'. Zuz: Michael Karlbenikoff. Akt: Christian Slater, Anthony Quinn / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Olite 3. 'Atrapa ese maniquí'. Zuz: Stewart Raffill. Akt: Kristy Swanson, Terry Kiser / 17.30 - 22.30.
Olite 4. 'Tacones lejanos'. Zuz: Pedro Almodovar. Akt: Vistoria Abril, Miguel Bosé / 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Olite 5. 'Robin Hood, principe de los ladrones'. Zuz: Kevin Costner. Akt: Kevin Costner, Morgan Freeman / 17.15 - 20.00.
Principe de Viana 1. 'Hamlet'. Zuz: Franco Zeffirelli. Akt: Mel Gibson, Glenn Close / 17.15 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Principe De Viana 2. 'Estan todos bien'. Zuz: Giuseppe Tornatore. Akt: Marcello Mastroianni / 17.15 - 19.45 - 22.30.
Principe de Viana 3. 'El hombre que perdió su sombra'. Zuz: Alain Tanner. Akt: Francisco Rabal, Angela Molina / 17.30 - 19.45 - 22.30.

NAFARROA BEHEREA

• DONAPALEU

Argitze. 'Point Break'. Zuz: Kathryn Bigelow. Akt: Patrick Swayze, Keanu Reeves / 21.00.

ZUBEROA

• MAULE

Maule Baitha. 'Hot shots'. Zuz: Jim Abrahams. Akt: Charlie Sheen, Cary Elwes / 21.00.

Susan Sarandon eta Geena Davis, 'Thelma & Louise' filmeko protagonistak.

KRITIKA

J.J. IRIBAR

Handitzen, handitzen...

THE INDIAN RUNNER

Zuz eta gid: Sean Penn. **Arg:** Tony Richmond. **Mus:** Jack Nitsche, Danny Bramson. **Akt:** David Morse, Viggo Mortensen, Valeria Golino, Patricia Arquette. **Pro:** Mount Film Group, EBB-1990.

Zalantzarik gabe Sean Penn bere antzezle lanei baino ezagunagoa da Madonnarekin izan zituen ezkontza gorabeherei esker. Hori ezezik denbora luzean izan du mutiko gaiztoaren ospea zine munduan, baina beste ikuspegi serioagoa eman nahi izan du kamara atzean egin duen lehen lanean.

Filmeak zinean sarritan ikus ahal izan dugun amerikar mitoetako bat jorratzen du. Munduan ez dago bi gizon mota besterik. Bata ona, legearen aldekoa eta bestea gaiztoa eta legez kanpokoa.

Istorioan bi anai izango dira. Bata polizia eta bestea familiako ardi galdua. Lehenak bere baserria galdu ondoren hartu zuen ogibide hori eta bigarrenak Vietnametik itzuli ondoren ez dio jaramonik egingo anaiari eta nahiago izango du legez kanpo bizitzea. Sean Pennek amerikar gizarteko sustraiak arakatu nahi ditu eta abeslari baten antzera irudi malenkoniatsuz betetzen du filmea. Teleobjetiboarekin jasotako irudiek dokumental itxura iradokitzen duten, baina azken finean hankamotz gelditzen den istorioa puzteko balio dute.

Izan ere, bi anaiek 'gaiztoa' on bilakatzeko daramaten borroka nahikoa ahula suertatzen da filmeko minutuak aurrera joan ahala eta egilearen asmoek ez dute istorioa gorpuzteko bitartekorik. Dena dela ziur nago hau ez dela Sean Penn kamara atzean aurkitzeko azken aukera izango.

ABENDUA

7

LARUNBATA



HOROSKOPOA

UXUE AGIRRE

ARIES
martxoak 21 — apirilak 20
Burukominak txikitzen zaude azkenaldi honetan. Guztia txapel handi horregatik da.

TAURUS
apirilak 21 — maiatzak 20
Beltzaran egotea gustatzea gauza bat da, baina horretarako ez garbitzea... Zikina.

GEMINI
maiatzak 21 — ekainak 20
Dentistarengana joaten zarenean beti negarrez. Bi urteko haurrak baino okerragoa zara.

CANCER
ekainak 21 — uztailak 21
Zalantzak zalantza, azkenean elkarrekin bukatuko duzue. Alferrik da patua ukatzea.

LEO
uztailak 21 — abuztuak 23
Lehoien moduko ile horiek orrazteko, ez dago permanente polit bat bezalakorik.

VIRGO
abuztuak 24 — irailak 23
Laster amaituko dira hainbeste larritzen zaituzten penak. Gutxi falta da.

LIBRA
irailak 24 — urriak 23
Martxa horretan jarraituz gero, laster gauez ere lan egingo duzu.

SCORPIUS
urriak 24 — azaroak 23
Gero eta gehiago jaten duzu. Amak ez dauka sufrimentu makala zure sabela betetzen.

SAGGITARIUS
azaroak 23 — abenduak 23
Horrelako lagun ponpoxoak inguruan edukita, zergatik maite dituzu horrenbeste zakurrak?

CAPRICORNIUS
abenduak 22 — urtarrilak 20
Gaur eseri aurretik begiratu ondo aulkietan. Norbait txintxetak jartzen dabil zure atzetik.

AQUARIUS
urtarrilak 21 — otsailak 18
Zorionekoak zure ingurukoak. Zer izango litzateke mundua zu bezalako jenderik gabe?

PISCIS
otsailak 19 — martxoak 20
Sorgin hutsa zara. Erratza hartu eta hurrengo akelarrera joatea duzu onena.

EFEMERIDEAK

Jose Altuna Aldasororen jaiotza

1888. urteko abenduaren 7an jaio zen Bilbon (Bizkaia) Jose Altuna Aldasoro. Euskararen langile porrokatu eta nekagaitza. 'Amilgain' eta 'Azparren' ezizenez sinatu zituen garai hartako aldizkarietan idatzi zituen lanak. Klasikoak euskaratzen ahalegindu zen, Esopo, Grimm, Oscar Wilde... Euskararen etimologia ikerketak egin zituen; euskal abizenen jatorria aztertu; giza soinaren, txorien, jazkien, botanikaren terminologia landu. Bilbon hil zen 83 urte zituela.

1688. Ezagutu den ekaitzik handienetakoa izan zen Donostian.
1833. Zumalakarregi Gipuzkoako eta Bizkaiko gudarien buruak, foruak zainduko zituela zin egin zuen.
1987. Ronald Reagan eta Mikhail Gorbatxovek tiramen erdi eta motzeko misilekin amaitzeko dokumentua izenpetu zuten.
1988. 50.000 lagun inguru hil ziren Armenian izandako lurrikaran.
SANTORALA. Anbrosio, Teodoro.

TELEFONOAK

Hegoaldetik Iparraldera hots egiteko: 07-33- aurrezenbakia.

Iparraldetik Hegoaldera: 19-34- (eta 45, 4, 43 edota 48, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa edo Nafarroara deituz gero).

Hegoaldeko herrialdeen artean:
Araba: 945-
Bizkaia: 94-
Gipuzkoa: 943-
Nafarroa: 948-

IPARRALDEA

Kostaldeko ospitalea	59 44 35 35
SAMU	15 / 59 63 33 33
Pozpindatze kasuetan	56 96 40 80
Suhiltzaileak	18
Suhiltzaileak BAMen	59 63 55 55
Polizia	17
Baionako Suprefetura	59 59 09 19
Elektrika-gas arazoak	14 / 59 52 10 18
Errepideetako berri	56 96 33 33
Kontseilu Orokorra	59 25 78 40
Miarritzeko aireportua	59 23 90 66
SNCFko trenbideak	59 55 50 50
Laborantza Ganbara	59 29 50 43
Ordua telefonoz	36 99
Meteo agiria (grabatua)	59 22 03 30
Meteo zerbitzuak	59 23 84 15

HEGOALDEA

SOS Deiak	088
Udaltzaingoa	092
Polizia Nazionala	091
Ordua telefonoz	093
Telefono argibideak	003

ARABA

Suhiltzaileak	28 25 25
Gurutze Gorria	13 47 47
DYA	28 10 20
Errepidetako informazioa	25 42 00
Ertzaintza-Arkaute	28 20 00
Miñoiak	13 55 00
Goardia Zibila	25 61 00
Txagorritxuko Ospitalea	24 26 00
Santiagoko O. Orokorra	25 36 00
Ospitale Militarra	13 65 77
Poliklinikoa	22 33 00
Arana Eritetxea	28 28 00
'Nª Sª Esperanza' klinika	25 25 00
Asepeyo klinika	27 46 55
Araba klinika	14 21 00
Forondako Aireportua	27 33 00
Gasteizko RENFE geltokia	23 20 30
Autobus geltokia	25 84 00
'Radio Taxi'	13 60 60

BIZKAIA

Diputazioko suhiltzaileak	492 28 00
Bilboko suhiltzaileak	423 30 00
Gurutze Gorria	422 22 22
DYA	431 92 00
Ertzantza	444 14 44
Larrialdiak (Osakidetza)	475 75 00
Basurtoko ospitalea	441 88 00
Galdakaoko eritetxea	456 88 16
Santa Marina	446 20 66
Gurutzetako ospitalea	490 31 00
Sondikako aireportua	453 13 50
RENFE	423 86 33
ET/FV Atxuri	433 95 00
ET/FV San Nikolas	416 13 12
ET/FV Unamuno plaza	415 50 26
Bizkaia irrati taxiak	416 22 22
'Radio Taxi'	444 88 88
'Tele Taxi'	444 23 33

GIPUZKOA

Donostiako suhiltzaileak	080
DYA	46 46 22
Gurutze Gorria	22 22 22
Itsasoko Gurutze Gorria	27 22 22
Ospitale Probintziala	45 40 00
Erresidentzia	45 38 00
Gurutze Gorria (Donostia)	21 46 00
Gurutze Gorria (Irun)	61 12 03
Poliklinikoa	46 22 00
Deba Garaiko eritetxea	79 53 00
Zumarragako ospitalea	72 39 01
Ertzaintza	28 88 88
Goardia Zibila	21 11 00
Hondarribiko aireportua	64 22 40
RENFEko geltokia	28 35 99
ET/FVko geltokia	45 01 31
Easo Taxiak	46 76 66
Santa Clara Taxiak	46 64 55
Radio Telefonoa	42 66 42
Suital Taxiak	39 80 18

NAFARROA

SOS Deiak/Foruzaingoa	088
Iruñeko suhiltzaileak	22 22 22
DYA	17 17 17
Gurutze Gorria	088
Errepidetako informazioa	22 91 17
Goardia Zibila	22 11 00
Eguneko Psikiatri O.	27 38 12 / 61
Nafarroako Ospitalea	10 21 00
Bideko Ama Birjina O.	10 94 00
Noaingo aireportua	31 75 12 / 51
Iruñeko Autobus geltokia	22 38 54
RENFEko geltokia	12 69 81
Radio Taxi	21 00 00
Teletaxi	23 23 00
Goardiako Farmaziak	22 21 11

EGURALDIA



Aldaketarik ez

Atzo izan genuen eguraldiaren antzerakoa izango dugu gaur ere. Beharbada, laino gehixeago agertuko dira. Laino altuak. Goizean behe lainoa eta lanbroa. Haizeari dagokionean, hegoaldetik joko du eta ahula izango da. Tenperaturei dagokienez, aldiz, atzo izan genituenen antzerakoak izango dira, beraz, ez da aldaketa nabarmenik izango.

Itsasoa

Hegoekialdeko haizea 2-3ko indarrarekin.
Bisibilitatea: Ona.
Hondoko itsasoa: Ez da ia izango.
Itsas-haizeari dagokionean: Kizkurretik itsaskirrira.

Atzoko minimoak aireportuetan

Miarritze	0
Iruñea	0
Donostia	7
Gasteiz	2
Bilbo	2

DENBORAPASA

ENBIDO

HITZ GEZIDUNAK

Astindu ▼ Landare lekadun ▼ Zegoen ▼ Lagunik gabe ▼
Fakultatea — Azkazalak — 1003 — Naiz
► ▼ ▼ ▼
Dotoreak ► — Jausi
► Galioa ► — Egun
Jainko egiptiarra ► Gizon izena ► ▼ — Lokarri — Gipuzkoako herria
► ▼ Bokala ► Röntgen ► — Kriptona — Atzizki femeninoa
Sufrea ► Begiratu ► ▼ ▼ — Aurpegiko ileak — Azkenekoa
► ▼

AURREKOAREN SOLUZIOAK

EZKER ESKUIN: 1. Baliogabetua. 2. Izurritea. Gr. 3. Barrenak. Gar. 4. Ol. II. Nabala. 5. Lepanto. Erdi. 6. Ir. Kai. Araua. 7. NAN. Kroketak. 8. Aker. Ar. Nuke.

GOITIK BEHERA: 1. Bibolina. 2. Azalerak. 3. Lur. P. Ne. 4. Irriak. R. 5. Oreinak. 6. Gin. Tira. 7. Atano. Or. 8. Beka. Ak. 9. Ea. Beren. 10. T. Garatu. 11. Ugalduak. 12. Arraia. E.

E-310



10.40: **AURKEZPENA.**

10.42: **DRAGOI BOLA.** Marrazki bizidunak.

12.15: **ATRILA.** Musika klasikoa.

Joseph Haydn-en 'La creacion' lana entzuteko aukera izango dugu Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik. Berarekin batera Donostiako Orfeoia eta Sohora Lavender, Sheila Amstrong eta Alfonso Etxeberria bakarlariak izango dira.

14.00: **GAUR EGUN.** Albistegia.

14.15: **SUSTRAIA.** Nekazaritza eta abeltzantza saioa.
Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri duen herri bide sareari buruzko erreportaia bat eskainiko da, baita azukre sektoreak bizi duen egoerari buruzkoa ere.

14.45: **DINOSAURIOAK.** Marrazki bizidunak.
'Tirano kanpamendua'.

15.15: **PINGU.** Marrazki bizidunak.

15.55: **KIROLEZ KIROL.** Kirol saioa.

16.00: **FUTBOLA.** Inglaterrako Liga.
'Aston Villa-Manchester City'.

18.00: **RUGBYA.**

18.30: **FUTBOL AMERIKARRA.** 'Denver Broncos-Kansas Chiefs'.

19.30: **GAUR EGUN.** Albistegia.

19.40: **FUTBOLA.** 'R. Madrid-Reala'.

22.05: **GAUR EGUN.** Albistegia.

22.20: **ERREPORTARI.** Erreportaiak.
Urrutia eta Etxabe euskal presoen adierazpenek sortu duten eztabaida izango da gaurko saioan jorratuko den gaietako bat. Arrantz flotaren errekonbertsioari buruzko erreportaia bat ere ikusteko aukera izango dugu.

22.50: **ZINE EROTIKOA: 'EMAKUME AZAL EZTIA'.** Filmea.
Zuzendaria: Gianfranco Angelicci.
Aktoreak: Clio Goldsmith, Fernando Rey, Catherine Spaak, Susan Scott.

00.20: **AMAIERA.**

REAL MADRID eta Realak Santiago Bernabeu zelaian jokatu behar duten partidua zuzenean eskainiko du Euskal Telebistaren lehenengo kateak. Arratsaldeko lauretan, aldiz, Inglaterrako Ligako Aston Villa eta Manchester City taldeen arteko partidua ikusteko aukera izango dugu.

Autonomiaren aldeko borroka

ETB2ko 'Todavia ayer' saioan 'Autonomiaren aldeko borroka' kapitulua eskainiko da gaur. Errepublika garaia, autonomiaren aldeko borrokak azpimarratu zuen, horregatik 1931-33. urteak gainbegiratuko dira dokumental honetan. Koldo San Sebastianek zuzentzen duen saio honetan gainera, 1932. urteko Aberri Egunaren irudi interesgarriak ikusteko aukera izango dugu.

ETB-2 / 21.30etan.

Luciano Pavarotti

Apirilaren 29an Luciano Pavarottik musika munduan daramatzan 30 urteak ospatzeko, kontzertu berezia antolatu zen Reggio Emmiliako Valli Antzokian. Kontzertu horretan, tenore ospetsuarekin batera, maila handiko abeslariak izan ziren: Giuseppe Sabbatini, Shirley Verret, Giovanni Furlanetto eta Raina Kawaibanska. Gaur TVEko bigarren katetik kontzertu hau ikusi eta entzuteko aukera izango dugu, gaueko hamaikak eta hamarretatik aurrera.

TVE-2 / 23.10etan.

2

11.03: **Aurkezpena.**
11.05: **Dragoi bola.**
12.30: **Atrila.**
13.30: **Bai Horixe.**
13.55: **Ventana economica.**
14.30: **Teleberri.**
15.00: **Estrellas en juego.** Kirol lehiaketa.
16.00: **Europa 93.** (Errepikapena).
16.25: **Lonesome dove: la gran aventura.** Telesaila.
17.15: **Ole tus videos.** (Errepikapena).
18.10: **Dejame que te cuente.** (Errepikapena).
18.35: **Pinceladas.**
19.10: **Musical.**
19.25: **Cine 2 Sabado: 'Su testigo'.** Filmea.
21.00: **Teleberri.**
21.30: **Todavia Ayer.** 'Autonomiaren aldeko borroka'.

22.00: **Entre amigos.**
00.05: **Reporteros.**
00.35: **Amaiera.**

tve1

08.00: **Caja de musica.** (Errepikapena).
09.00: **Ultimas preguntas.** Erlijio saioa.
09.30: **V Concurso Internacional Mozart 1991.** Kontzertua.
11.00: **3, 2, 1... contacto.** Erreportaiak.
11.30: **Visto y no visto.** Haur eta gazteentzako saioa.
12.55: **Encuentro juvenil con Banesto.**
13.55: **Rockopop.**
15.00: **Telediario-1.**
15.35: **Alfred J. Kwak.**
16.00: **Sesión de tarde: 'Solo el valiente'.** Filmea.

17.50: **Club Disney.**
19.35: **El tiempo es oro.**
20.30: **Telediario-2.**
21.05: **Informe semanal.**
22.05: **Sabado Cine: 'Amadeus'.** Filmea.
01.00: **Sabado Cine: 'Kill'.** Filmea.
02.40: **Amaiera.**

2 tve

07.45: **Egokipen karta.**
07.59: **Aurkezpena.**
08.00: **España en solfa.** (Errepikapena).
09.00: **Barrio Sesamo.** Haurrentzako saioa.
09.40: **Las aventuras de Long Silver.**
10.05: **Los ositos voladores.** Marrazki bizidunak.
10.30: **Cine para todos: 'Alerta en el cielo'.** Filmea.
12.00: **El profesor Poosnagle.** Telesaila.
12.25: **Redaccion de la 2.** Albisteak.
12.30: **Concierto para jovenes.** Musika kalsikoa.
13.30: **NBA.** Saskibaloia.
15.00: **Rapido.**
15.30: **Ponte las pilas.**
16.25: **Redaccion de la 2.**
16.30: **Sabado deporte.**
19.15: **Redaccion de la 2.**
19.20: **Pista de estrellas.**
20.00: **Sala 2: 'Las buscadoras de conchas'.**
21.50: **Devorame otra vez.** Musika saioa.
22.25: **Redaccion de la 2.**
22.45: **El show de Steve Allen.**
23.10: **Treinta años de Pavarotti.** Kontzertua.
00.15: **La tabla redonda.**
01.00: **Cine club: 'Oriana'.** Filmea.
02.35: **Cine club: 'La guerra gaucha'.** Filmea.

TF1

06.00: **Passions.**
06.25: **Météo.** Eguraldia.
06.30: **Club mini zig-zag.**
07.00: **TF1 Matin.**
07.20: **Club mini.**
07.50: **Le club de l'enjeu.**
08.25: **Télé shopping.**
08.55: **Club Dorothée.**
10.05: **Le Jacky Show.**
10.50: **Les enfants d'abord.**
11.15: **Ski.**
12.00: **Tournez... manége.**
12.25: **Le juste prix.**
13.00: **Le journal.**
13.15: **Reportages.**
13.50: **Millionnaire.**
14.10: **La une est à vous.**
15.15: **L'express ne répond plus.**
16.50: **La une est à vous.**
17.50: **Trente millions d'amis.**
18.25: **Une famile en or.**
18.55: **Marc et Sophie.**
19.25: **La roue de la fortune.** Lehiaketa.
19.50: **Tirage du loto (1).**
20.00: **Le journal.**
20.30: **Tapis vert.**
20.40: **Tirage du loto (2).**
22.55: **Tenor.** Telesaila.
00.55: **Formule sport.**
02.15: **TF1 dernière.**
02.35: **Intrigues.**
03.00: **Le club de l'enjeu.**
03.25. **Histoire du rire.**
04.20: **L'année noire.**
05.30: **Histoires naturelles.**

2

06.00: **Téléthon matin.**
08.35: **Téléthon jeunesse.**
11.05: **Téléthon exploits.**
11.55: **Flash info.** Albisteak.
12.00: **Téléthon grande parade.**
13.00: **Journal.** Albistegia.
13.15: **Écrire contre l'oubli.**
13.25: **Téléthon sans frontieres.**

14.15: **Téléthon passion.**
17.00: **Téléthon jazzy.**
18.15: **Téléthon bonne humeur.**
19.55: **Noël surprise.**
20.00: **Journal.**
20.40: **Noël surprise.**
20.45: **La grande fête du Téléthon en direct du Studio 102 de Radio-France.**
01.35: **Écrire contre l'oubli.**
01.45: **Le journal du Téléthon.**

FR3

08.00: **Jef.** Haurrentzako saioa.
10.30: **Espace 3.** Eguneko pertsonaia.
12.00: **Le 12-13.** Albisteak.
14.00: **Eurotop.**
15.00: **Mozart et la musique de chambre.**
15.55: **Cinémémo.** Zinema saioa.
16.40: **Portraits d'Alain Cavalier.**

16.55: **Avis de tempete.**
19.00: **Le 19/20.**
19.10: **Actualités regionales.** Albisteak.
20.00: **Le dessous de carte.**
20.05: **Histoire parallèle.**
21.00: **'Les caquets de l'accouchée'.** Telefilmea.
22.30: **Le courrier des télespectateurs.**
22.35: **Soir 3.** Albistegia.
22.55: **Cinéma de poche.**
23.55: **Images.**
00.00: **L'heure du golf.**

GAURKO FILMEAK

Wolfgang 'Amadeus' Mozart, bi grinaren arteko gerra zeluloidezkoa

BEGOÑA DEL TESO

08.55	C+(f)	○○○	EWOKS LA BATAILE D´ENDIOR	1985	Jim eta Ken Wheat	95 m.
10.30	TVE2	○	ALERTA EN EL CIELO	1961	L. Cesar Amadori	83 m.
11.30	A3	○○	LOCO, LOCO KUNG-FU	-	Cheng Lung	95 m.
15.30	T5	○○○	CITA EN HONG KONG	1955	Edward Dmytryk	93 m.
16.00	TVE1	○○○	SOLO EL VALIENTE	1951	Gordon Douglas	100 m.
18.09	A3	○○	CORAJE, SUDOR Y POLVORA	1972	Dick Richards	100 m.
19.25	ETB2	○○	EL TESTIGO	1950	Robert Montgomery	100 m.
22.00	C+(e)	○○○	VENDEDORES DE NOTICIAS	1988	W.H. Macy	67 m.
22.05	A3	○○	UNOS POLICIAS VIOLENTOS	1987	John Stockwell	94 m.
22.05	TVE1	○○○○	AMADEUS	1984	Milos Forman	153 m.
22.50	ETB1	○○	DULCE PIEL DE MUJER	1981	Gianfranco Angelucci	103 m.
00.00	A3	○○	FEROZ	1983	M. Gutierrez Aragón	111 m.
01.00	TVE1	○○	KILL	1971	Romain Gari	99 m.
01.05	TVE2	○○	ORIANA	1985	Fina Torres	86 m.
01.44	A3	○○	INTIMIDADES DE UN SEPARADO	1981	Peter Markle	88 m.
02.35	TVE2	○○○	LA GUERRA GAUCHA	1942	Lucas Demare	91 m.
02.55	C+(f)	○○○	UNE RORE NOIRE POUR UN TUEUR	1980	José Giovanni	105 m.

○ *TXARRA* ○○ *ESKASA* ○○○ *BALEKOA* ○○○○ *ONA* ○○○○○ *BIKAINA*

Bukatzear dago 1991. urtea. Bukatzear bigarren mendeurreneko jai eta ospakizunak. Asteazkenean, TVEn, 'Olvidar Mozart' agindu ziguten ordu txikietan. Ezina. Ezinezkoa. Horrexegatik gaur, berriro ere, 'Amadeus' ikusiko dugu. Bai, jakin badakigu musikazale amorratuek egundakoak esaten dituztela filme honen kontra. Bai, jakitun gaituzue, Salieri ez zen horren musikari traketsa. Ezta horren lehiakide maltzurra ere.

Bai, jakinaren gainean gaude. Aitaren mamua ez zen gorpuztu Mozarten aurrean bera hil zorian zegoela. Igoal dio. Atsegina dugu umekeriatan aise dabilen maisu gazte eta zerutiarra. Atsegina musika. Atsegina Don Giovanni erraldoia. Negar egingo dugu ehorzketa goibelean. Barre ihauterietako dantzan...

Gainera, aukera handiagorik ez dago gure kateetan. Ez debaldekoetan ezta ordaindu beharrekoetan ere. Oesteko xume bat, 'Sólo el valiente'; gerrako beste bat, 'Entre dos pasiones'; negar egiteko aproposa den 'Alerta en el cielo', Pablito Calvo antzesle... Horretaz gain, Manuel Gutierrez Aragonek egindako fabula harrigarria: 'Feroz'. Fernán Gomez, hartz bat eta... Elene Lizarralde.

Espainiako Canal Plusen, 'Terminator II' ikaragarria burutu zuenaren 'Aliens, el regreso' eta Jeff eta Michelle 'Las fabulosas Baker Boys-en'. Besterik ez. Amadeusi egiozue harrera.

AMADEUS

Zuzendaria: Milos Forman.
Aktoreak: Tom Hulce, F. Murray Abraham.

Ikuskizun handia. Paregabea. Entzuteko plazerra. Zorioneko sentitzeko beharra. Dohakabea zarelako bultzada aldendu ezina. Espektakuloa. Ikuskizuna. Famaren barrea. Ospearen laztana. 'Amadeus'. Zortzi oskar. Sariak inoiz inon zuzenak izan badira, hona hemen kasua. Zeluloidezko opera kaskarina, 'Xirula miresgarria' bezain arina. Planuz osaturiko opera sakona, 'Don Giovanni-ren' antzekoa.

DULCE PIEL DE MUJER

Zuzendaria: G. Angelucci.
Aktoreak: C. Spaak, F. Rey.

Filme erotikoa, «kalitatezkoa» omen. Oso mimatua, nonbait. Ikusi nahi duena, baina ausartu ez, izan dadila lasai, zeren badago aitzakia dotorea Espainia eta Italiaren arteko ekoizpen hau ikusteko. Dauden antzesleei erreparatu, arren: Fernando Rey, Catherine Spaak eta abar... Azala txukuna badu ere, barrukoa da ustela. Susan Scott andereñoa, hortik dabilen neskatila ederra baina edadetua ez da existitzen. Bere izen berdaderoa, Margarita Navarro, beraz ez pentsa jokalari amerikarrik dagoenik filmatxo honetan. Denak dira gezurrezkoak.

Izarra, ala behintzat izarra izan nahi zuena, Clio Galdsmith da. Emmanuellekin ibili zen lehia bizian baina amore eman behar izan zuen. Horrexegatik, behe mailako pornoak, polito lagunduta, hori bai, besterik ez zituen egin... Oso gutxi galdu genuen, ikuslea ez bait zen aktore fin eta klase handikoa.

LA GUERRA GAUCHA

Zuzendaria: Lucas Demare.
Aktoreak: E. Niniño, F. Petrone.

Ez zen nolanahiko personaia Lucas Demare jauna. Tangoak idazten zituen Lucasek, bere anaiak musika jartzen zien bitartean. Aditua, trebea zen bandoneoarekin eta beti zebilen tangoak jotzen herrialdean.

1938an hasi zen zine lanetan. Argentinan zituzten sustraiak egin zituen filme guztiak, hala nola 'Chingalo', 'Pompa bárbara', 'Gaucho'. Melodramak ziren zenbaitzu. Melodrama ikaragarriak. Besteak, berriz, alaitsuagoak eta eskukada bat aberriaren ispilu zauritua. Adibiderik? Gaurko 'La guerra gaucha', Espainiako erregeen kontrako borroka azaltzen diguna. Zimeldua ba zeluloidea, baina oraindik badu indarra matxinadarako.

FEROZ

Zuzendaria: M. Gutierrez Aragón. **Aktoreak:** F. F. Gómez, Elene Lizarralde.

Hartzak ikasiko al du hizketan? Zer ote Pablo? Gizakia ala animalia? Zertarako izan gizakumea, mila demontre. Ordenadore baten botoia zapaltzeko edo? Hamaika galdera era baldar batez erantzungo ditu erdizka Gutierrez Aragonek. Ehun aukera zuen egileak inoiz ikusitakoa pantailaratzeko, baina banan banan, alferkeriak eta gogorik ezak jota galdu zituen, arranopola.

TVE2 — CONCIERTO PARA JOVENES. Musika klasikoa — 12.30

M6 — COSBY SHOW. Umorezko saioa — 12.30

TVE1 — EL TIEMPO ES ORO. Lehiaketa — 19.35

ETB2 — REPORTEROS. Urrutia eta Etxaberen grabazioa — 00.05

LA CINQ 5

06.30: **Le journal permanent.** 07.30: **Youpi!.** 09.20: **Cap danger.** 09.50: **Les animaux du soleil.** 10.20: **Chevaux et casaques.** 11.00: **Mille et une pattes.** 11.50: **Écrire contre l'oubli.** 11.55: **Que le meilleur gagne.** 12.40: **Méteo.** 12.45: **Le journal.** 13.20: **Le retour de Mike Hammer.** 15.00: **C'est pour rire.** 15.10: **En direct des courses.** 15.45: **Capitaine Furillo.** 16.40: **Riptide.** 17.35: **La loi de Los Angeles.** 18.25: **Intégral.** 19.00: **L'enfer du devoir.** 20.00: **Le journal.** 20.40: **Le journal des courses.** 20.50: **Perry Mason.** 22.30: **Shogun.** 23.25: **Journal de la nuit.** 23.35: **Sangria.** 23.40: **Freddy, le cauchemar de vos nuits.** 00.30: **La nuit sur la 5.**

M6

06.00: **Boulevard des clips.** 08.30: **Pour un clip avec toi.** 10.00: **Infoprix.** 10.05: **M6 boutique.** 10.30: **Multitop.** 12.00: **Culture rock.** 12.25: **Météo 6.** 12.30: **Cosby show.** 13.00: **O'Hara.** 13.55: **Supercopter.** 14.50: **Laredo.** 15.45: **Les aventures de Papa-Poule.** 16.45: **Hong Kong connection.** 17.35: **Le saint.** 18.25: **Les têtes brûlées.** 19.20: **Turbo.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Papa schultz.** 20.30: **Bonne nouvelle.** 20.40: **Le monstre des profondeurs.** 22.20: **La malédiction du pharaon.** 00.00: **6 minutes.** 00.05: **Rapline.** 02.30: **Hong KOng.** 03.20: **La 6e dimension.** 03.50: **La Tunisie.** 04.40: **Le glaive et la balance.** 05.30: **Nouba.**

CANAL+

07.00: **CBS evening news.** 07.25: **Ça cartoon.** 08.10: **Canaille peluche.** 08.45: **Écrire contre l'oubli.** 08.55: **'Ewoks: la bataille d'endor'.** 10.30: **Le journal du cinéma.** 10.35: **'Potins de femmes'.** 12.30: **Flash info.** 12.35: **24 heures.** 13.35: **L'assassin était dans mon roman.** 15.30: **Football américain.** 17.05: **Les superstars du catch.** 18.00: **Décode pas bunny.** 19.05: **La grande supercherie.** 19.35: **Le top.** 20.30: **'Couffin surprise'.** 22.00: **Les nuls... l'émission.** 22.55: **Quincy a montreux II.** 23.55: **Le journal du cinéma.** 00.00: **'La bourgeoise et le privé'.** 01.10: **'Panique a Needle Park'.** 02.55: **'Une robe noire pour un tueur'.** 04.55: **'Kinjite, sujet tabou'.** 06.30: **Pieges de soie.**

TELE 5

07.15: **Entre hoy y mañana.** 07.55: **Superguay del sabado.** 10.30: **Las chicas con las chicas.** 11.00: **Humor amarillo.** 11.35: **Pressing catch.** 12.05: **El sheriff chiflado.** 13.00: **Telecinco ¿digame?.** 15.00: **Campeones.** 15.30: **'Cita en Hong Kong'.** 17.25: **Vip noche.** 19.00: **Vivan los novios.** 19.30: **¿Hablando se entiende la basca?.** 20.00: **Ines Duarte, secretaria.** 21.00: **Manuela.** 22.00: **Humor cinco estrellas: Cheers, Apartamento para tres, El nuevo Benny Hill.** 00.15: **Entre hoy y mañana.** 01.00: **Pressing boxeo.** 02.00: **Play boy.** 03.00: **Amaiera.**

A3

07.00: **La llamada del oeste.** 07.30: **Aula 3.** 08.00: **De tu a tu.** 09.30: **Noticias.** 09.33: **La guarderia del sabado.** 11.00: **Furia.** 11.30: **'Loco, loco Kung Fu'.** 13.00: **Centimetros cubicos.** 14.00: **Noticias.** 14.03: **Embrujada.** 14.30: **Los heroes de Hogan.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **El programa de Hermida.** 18.00: **'Entre dos pasiones'.** 20.00: **Noticias.** 20.03: **Chicas con clase.** 20.30: **Noticias.** 21.00: **3 de A3.** 22.00: **Noticias.** 22.03: **'Unos policias violentos'.** 00.00: **'Feroz'.** 01.30: **'Intimidades de un deparado'.** 03.00: **El programa de Hermida.** 05.30: **Oh video.**

CANAL+

08.10: **ABC world news.** 08.40: **Los 40 principales.** 09.30: **Newhart.** 10.00: **'Mas allá de la realidad'.** 10.43: **'En el baile del pato'.** 13.00: **Del 40 al 1.** 14.00: **Noticias.** 14.10: **La pandilla plumilla.** 14.35: **Los chicos de Beverly Hills.** 15.00: **Premiere Canal+.** 16.25: **'Aliens, el regreso'.** 18.35: **Especial infantil.** 20.00: **Avance redaccion.** 20.05: **Mama, detective privado.** 20.30: **Primer plano.** 21.00: **Lo + Plus.** 21.30: **Noticias.** 22.00: **'Vendedores de noticias'.** 23.24: **'Los fabulosos Baker Boys'.** 01.12: **Inside out.** 01.22: **'El caso de la viuda negra'.** 03.00: **Boxeo.** 06.30: **'Juegos de amor en la universidad'.**

IRRATIA

Arrate Irratia.	FM 87.7	Gure Irratia.	FM 89.6
Bizkaia Irratia.	FM 102.6	Irulegi Irratia.	FM 93.1
Egin Irratia.	FM 103.0	Segura Irratia.	FM 89.2
Euskadi Irratia.	OM 1.161	Xiberoko Botza.	FM 98.6
Euskalerria Irratia.	FM 91.0	Xorroxin Irratia.	FM 107.5
Gipuzkoa Herri Irrat.	FM 99.8	Iruñeko Herri Irratia.	FM 87.6

Iruñeko Herri Irratia. 'Hor hemenka' ibiliko gara, eguerdiko ordubi t'erdietatik hiruretara; 'Hor hemenka' kultur munduan ematen diren albisteen artean; 'Hor hemenka' ikuskizun batetik bestera; 'Hor hemenka' aisialdian egin ditzakegun gauzak topatzen... Guztia, aipatutako gaien inguruko elkarrizketaz lagundurik.

Euskalerria Irratia. 'Ama, aspertuta gaude!'. 'Jantzi eta segi orduan kalera, ea pake piska bat ematen didazuen'. 'Ez ama, hotza egiten du.' 'Amatxo, zergatik ez duzu Euskalerria Irratia jartzen. Larunbatero, goizeko bederatzietan irratsaio polit bat egoten da 'Xingulu-Mangulu' izenekoa. Joan den larunbatean Aitziberren lehengusuaren gelakoak atera ziren bertan. A ze parrak.

Gasteiz Irratia. Kirol erretrasmisioek programazioaren tarte zabal bat beteko dute gaurkoan. Dena den, izango da besterik noski. Goizeko hamarretatik eguerdiko ordubata t'erdiak arte, 'Plaza nueva' magazina eskainiko da. Jarraian saskibaloiaren txanda iritsiko da 'Supercanasta' saioarekin. Ordubietako albistegiaren ondoren, kirol albiste nagusiak ezagutzeko aukera izango dugu. Musika klasikoaren doinuak, bazkalosteko kafearekin batera helduko dira. Ondoren Taugres Baskonia eta Estudiantes taldeen arteko saskibaloi partidua eskainiko da zuzenean. Arratsaldeko zortzietan aldiz, Real Madrid eta Realaren partidua zuzenean jarraitzeko aukera izango dugu.

EGUNEKO DIANAK



Herrietako EGUNKARIA batzordeak

'Abenduaren 6a, Egun Handia Euskal Herriarentzat' zioen EGUNKARIA sortu zen egunaren lehen urteurrena gogoratzeko iragarkiak eta halaxe izan zen. Goizean goiz herrietako batzordeak lanean hasi ziren. Ehundaka euskaltzale eta laguntzaileek mahaiak ezarri zituzten herri eta hiriburuetako erdigune eta auzoetan, urteurreneko alea jendearen eskura jartzeko. EGUNKARIA zuei esker / 11



Andoni Egaña

Andoni Egañak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91ko finalerako txartela eskuratu zuen atzo Iñaki Murua eta Angel Mari Peñagarikanorekin. Zarauztarrak goi mailako bertsoak kantatu zituen Tolosako Leidor aretoan, eta txapeldun izan daitekeela erakutsi zuen. Zigarro puroa lagun, bikain aritu zen. Txapeldungai ikusi zuen bere burua eta hala erakutsi nahi izan zien Tolosara bildutako guztiei 29

Espainiako Gobernua

Datorren asteartean amaituko da Espainian bizi diren atzerritarrek beren egoera legeztatzeko Gobernuak jarritako epea. Maiatzetik hona, 120.000 etorkin inguruk lortu dute beren egoera legeztatzea baina beste askok —250.000 erakunde batzuen arabera— Espainiatik kanporatzeko mehatxua dute gainean / 14



Repsol

Petronorren akziodun nagusia den Repsolek euskal birfindegiaren erabakigunea Madrilera eramango duen beldur azaldu da ELA sindikatua. Birfindegian zenbait aldaketa prestatzen ari dira, eta horien arabera, Euskal Herrian puntako konpainia izatetik Madrilen erabakien menpe egongo litzatekeen produkzio unitatea izatera pasa daiteke, enpresa deuseztatuz / 13

Martin Berasategi: «Hemengo sukaldaritzak teknika falta du»

ANE AZURZA / **DONOSTIA**

Alejandro Bodegoiko sukaldaritza ez da urte batzuetatik honako sorkuntza. Gaur egungo jabea den Martin Berasategik amaren bitartez ikasi zuen lanbidea. «Ikastea ez nuen atsegin. Sukaldaritza beti gustokoa izan dut, giro horretan sartua egon bait naiz bizitza osoa».

Donostiako parte zaharrean dagoen jatetxe hau, sukaldaritza umil eta xumea eginez eman zituen lehen urratsak, pixkanaka gero eta esperimenduzko edo plater kreatibo gehiago sartuz. Sukaldaritzako lana sakifrikatua baina aldi berean atsegina dela aitortzen du Martinek. «Profesional batentzat saririk handiena, bezeroek konfidantza azaltzea da. Hasieratik amak gogor egin zidan. Sukaldari on bat izateko, lan egiten ikasi behar dela, orduak eta orduak sukaldean eginez, gero lanbidea ikasteko, esaten zidan».

Normalean, jatetxeak plater berezi bat edo batzuengatik egiten dira ezagunak. Alejandro Bodegoia bere postre berrien bitartez eman zen ezagutzera. Hala ere, Martin Berasategiren ustez jatetxeak eta sukaldariak ezin dira gauza bakar batean espezializatu. «Denetan izan behar dugu iaioak. Ezin gara postretan bakarrik espezializatu eta besteetan kale egin. Plater guztietan gutxieneko maila bat lortu behar da».

Hamazazpi urterekin, Martin Frantziara joaten hasi zen, Gozotegi Modernoko Eskolara. Ordutik hona, sarritan bueltatu da Frantziara teknika berriak eskuratu asmoz. Eskola horretan profesional handiak ezagutu ditu. «Zortea izan nuen Andre Madion ezagutzearekin. Berak bultzada eman zidan sukaldaritza profesionalean murgiltzeko». Mandionez gain Didier, Oudill, Alain Ducasse eta bere azken ikastaroko gidari izan den Betin ezagutzea baliagarria izan da Berasategirentzat.

Euskal sukaldaritzari dagokionez, oso aberatsa dela baina aldi berean teknika falta duela adierazi du donostiarrak. «Frantzian ikasi dudan teknika euskal lehengaiei aplikatzen saiatzen naiz. Horrek ez du frantsez platerrak ekartzen ditudala esan nahi». Lekuko sukaldaritzan, lekuko lehengaiak behar dira, kontrakoa okerra dela azaldu du Martinek. «Bestalde, jatetxeko kartan plater tradizionalak, kreatibo eta berriekin osatu behar dira. Bezeroen joera bietatik probatzea bait da» gehitu du. Plater esperimental horiek asmatu eta prestatzea, lan zaila eta gogorra da. Zaporeak era egokian elkartu egin behar dira. Bestalde, platerren aurkezpenak garrantzi handia du bezeroaren jangura esnatzeko orduan. «Nahiz eta sukaldari batentzat lehengaiak eta beraien laboraketak izan garrantzi handiena, aurkezpenak funtsezko betebeharra du; esan ohi den bezala, jende askok begien bitartez jaten bait du».

SOSLAIA

Konfidantza handia

Hogeitamaika urteko sukaldari hau betidanik egon da jatetxeetako giroan sartuta. Txikitatik amarekin hasi zen lanean, garai hartan sukaldaritza xume batean oinarrituta zegoen Alejandro Bodegoian. «Gauzak aurrera ateratzeko orduan, beti izan dut neure buruarekin izaugarrizko konfidantza. Horrek asko lagundu dit gaur egun nagoen posturaino iristen, eta aurrerantzeko planak, irekitzeko dudan Lasarteko jatetxe berria kasu, aurrera eramaten. Frantzian izan ohi dituen egonaldiei esker, euskal sukaldaritzan, teknika berriak egokitzen saiatu da. Hala ere, teknika horiek etengabe berritzen ari dira, ez dira erabatekoak. Beraz, sukaldaritzak berrikuntzaren beharra duela, tradizionala ere gordeta, esan daiteke.

LERRO GUTXITAN

Izotzetako gizonak 4.500 urte ditu adituen ustez

Irailaren bukaeran muga austro-italiarreko glaziar batean aurkitu zuten Izotzetako gizonak 4.500 urte ditu, adituek aditzera eman dutenez. Innsbruckeko Unibertsitateko adituek egin dute azterketa. Unibertsitate honetako Aurrehistoria saileko arduradunek Uppsala (Suezia) eta Pariseko Unibertsitateko laguntza izan dute azterketa egiteko. Bi unibertsitate horietan momian aurkitutako belarren azterketa egin dute. Azterketa guzti hauen arabera, Tiroleko Gizonaren (izotzetako gizona ezagutu eta deitzeko beste era bat) adina 4.416 eta 4.866 urte bitartekoa da.

SANTA CLAUS talde honek azken azalpenak jaso ditu gabonetan etxez-etxe opariak banatzen hasteko. Erdiko horrek, botila muturrean duenak, kaleetako hotzari aurre egiteko jadanik trago dexente egin dizkio botilari.

ETA BIHAR

Alain Iriart solaskide

Alain Iriart EMAko kidea izango du solaskide Pello Zubiria EGUNKARIAko zuzendariak biharko zenbakian. Iparraldeko egoera politikoaz mintzatu da EMAko kidea.

ONCE

ASTELEHENA	50.278
ASTEARTEA	97.770
ASTEAZKENA	67.164
OSTEGUNA	73.387

KUPOITZARRA
OSTIRALA
78.976
071. SERIEA

DONOSTIA OIARTZUN ARRASATE

Zure etxeko kafea.
Zaporea, lurrina...bereziena...
kolombiarra ehunetik ehun.
Kolombiako kafearen agiria duen Euskal Herriko etxe bakarra.

LA CASA DEL CAFE

San Martzial, 19. DONOSTIA Tel.: 424512 ARRASATE Tel.: 790346 OIARTZUN Tel.: 491642